

2024 Urteko txostena

EAEko ekonomiaren analisia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIA, LAN ETA
ENPLEGU SAILA
Ekonomia Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA,
TRABAJO Y EMPLEO
Dirección de Economía

EUSKAL EKONOMIAREN URTEKO TXOSTENA 2024

Koiuntura eta Aurreikuspen Ekonomikoen Zerbitzua

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIA, LAN ETA
ENPLEGU SAILA
Ekonomia Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA,
TRABAJO Y EMPLEO
Dirección de Economía

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2025

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke :
<https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1–01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea eta itzulpena: Koiuntura eta Aurreikuspen Ekonomikoen Zerbitzua
Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila

ISSN: 3101-2264

Aurkibidea

0. Ekonomiaren egoera laburbilduta.....	1
1. Ekonomiaren egoera 2024an	12
1.1 EAEko ekonomiaren ingurunearen portaera.....	12
1.2 Euskadiren bilakaera ekonomikoa.....	24
1.3 Lan merkatua	51
1.4 Prezioak	67
1.5 Lehiakortasuna eta lan kostuak.....	74
1.6 Arlo publikoa	78
2. Ziurgabetasun handiko aldi baterako politikak	94
2.1 Funtsak kudeatzeko Europako politika.....	94
2.2 Moneta politika	100
2.3 Merkataritza politika	112
2.4 Lehiakortasun politika	119
3 Aurreikuspen ekonomikoak.....	126
3.1 Inguruneko aurreikuspenak.....	126
3.2 EAEko aurreikuspenak	130

Taulen aurkibidea

1. Ekonomia eremuen pisua, hazkundea eta ekarpenak.....	2
2. BPG errealaren bilakaera	3
3. EAEko taula makroekonomikoa.....	7
4. EAEko ekonomiaren beste aldagai nagusi zenbait	10
5. Munduko ondasunen merkataritza eremuka	16
6. Ekonomiaren aldagai nagusiak	22
7. Lehen arloko adierazle nagusiak.....	30
8. EAEko industriaren BEGaren bilakaera	31
9. Eraikuntza arloaren adierazle nagusiak	33
10. Zerbitzu arloaren adierazle nagusiak	34
11. Zerbitzuen BEGaren bilakaera azpisektoreka	35
12. Errenten adierazleen bilakaera.....	37
13. Egindako kontsumoaren adierazleen bilakaera.....	37
14. Kapital eraketa gordinaren eta bere adierazleen bilakaera	39
15. EAEren eta atzerriaren arteko merkataritzaren helmuga	44
16. Atzerriarekiko euskal merkataritzaren sailkapena	45
17. EAEren eta atzerriaren arteko merkataritzaren jatorria.....	46
18. Enplegua sektoreka	53
19. Erregistratutako lan kontratuen bilakaera	61
20. Kontsumoko prezioen indizearen banaketa	68
21. EAEko kontsumo prezioen indizea.....	69
22. EAEko industriako prezioen indizea.....	72
23. Hitzarmenetan adostutako soldata igoerak	73
24. Zerga itunduen bilakaera	79
25. Euskadik parte hartze nabarmena izan duen EBEPE nagusiak	99
26. Banku zentralen interes tasak	101
27. 10 urterako zor publikoaren errendimendua	103
28. Jarduera ardatzak eta lehentasun estrategikoak (I)	123
29. Jarduera ardatzak eta lehentasun estrategikoak (II)	124
30. Aldagai ekonomiko nagusiak	127
31. Taula makroekonomikoa	131

Irudien aurkibidea


1. EAEko eta munduko ekonomien hazkundera. Urte arteko aldakuntza tasak	1
2. BPG errealaren eta enpleguaren bilakaera EAEn	5
3. EAEko BPGari eginiko ekarpenak	6
4. Lehengai energetikoen bilakaera. Hileko batez bestea.....	13
5. Inflazioaren bilakaera. Urte arteko aldakuntza tasak.....	14
6. Salgaien munduko merkataritzaren bolumenaren eta munduko BPGaren hazkundera.....	15
7. Barne produktu gordina. Urte arteko aldakuntza tasak.....	17
8. Herrialde garatu gabeen BPGa. Urte arteko aldakuntza tasak.....	19
9. Ekonomia aurreratuen BPGa. Urte arteko aldakuntza tasak	20
10. Politika ekonomiko globalaren ziurgabetasun indizea (GEPU). Merkatuko kanbio tasak.....	23
11. BPG biztanleko. 2022-2024	25
12. BPG biztanlekoaren hazkunderaren banaketa (I)	26
13. BPG biztanlekoaren hazkunderaren banaketa (II)	27
14. BPG biztanlekoaren hazkunderaren banaketa (III).....	28
15. EAEko industria ekoizpenaren bilakaera ondasunen helburu ekonomikoaren arabera.	32
16. Barne eskariaren osagaien hazkundera. Urte arteko aldakuntza tasak	36
17. EAEko ondasunen esportazio eta inportazioen merkatu kuota munduko merkataritza guztia- rekiko	40
18. Esportazio eta inportazioen alderaketa euro, tona eta prezioetan. Urte arteko aldakuntza tasak (I)	41
19. Esportazio eta inportazioen alderaketa euro, tona eta prezioetan. Urte arteko aldakuntza tasak (II)	42
20. EAEko kanpo merkataritza. Adierazle nagusiak	48
21. Partaidetza tasaren bilakaera sexuaren arabera EAEn.....	51
22. Enpleguaren bilakaera EAEn. Pertsonak	52
23. Enplegu tasaren bilakaera sexuaren arabera EAEn.....	54
24. Goi mailako hezkuntza (30-34 urte bitarteko taldea)	55
25. Enpleguaren bilakaera hezkuntza mailaren arabera. 2024. urtea	56
26. Aldi baterako enplegu tasa soldatapeko guztiekiko	57
27. Lanaldi partziala duten landunek okupatu guztiekiko.....	57
28. Langabezia tasaren bilakaera EAEn	59
29. Langabezia tasaren bilakaera sexuaren arabera EAEn.....	59
30. Langabeziaren bilakaera hezkuntza mailaren arabera. 2024. urtea	60
31. Batez besteko soldataren bilakaera Euskadin. 2008. urtea=100	62
32. Soldataren bilakaera Euskadin. Pertzentilak. 2008. urtea=100.....	63

33. Soldataren bilakaera Euskadin. 10 pertzentila. 2008. urtea=100.....	64
34. Soldataren bilakaera Euskadin. 90. pertzentila. 2008. urtea=100.....	64
35. Urteko batez besteko irabazia lan egindako langile bakoitzeko (euro ez.) eta soldata-arraila (% esk.)	65
36. 16-64 urteko biztanleriaren jarduera tasaren arrakala (ehuneko puntuak).	66
37. KPIaren bilakaera.....	70
38. EAEren eta Eurogunearen arteko inflazio tarte. 2024ko batez besteko balioak	71
39. Lan kostu osoa langile bakoitzeko 2019-2024.....	74
40. Lan kostu osoa sektoreko langile bakoitzeko. Urte arteko aldakuntza tasak.....	75
41. Batez besteko lan kostua orduko.2022-2024. Urte arteko aldakuntza tasak.....	76
42. Lan produktibitatea orduko.....	77
43. Lan kostu nominala orduko	77
44. Zerga nagusien diru bilketa 2005-2024. BPGaren %a	81
45. Eusko Jaurlaritzaren eragiketa arrunten bilakaera 2005-2024. BPGaren %a	82
46. Eusko Jaurlaritzaren aurrezkia, kapitaleko gastua eta defizita 2005-2024. BPGaren %a	83
47. Eusko Jaurlaritzaren zorpetze beharraren analisia 2005-2024. BPGaren %a	83
48. Zorraren kostua eta bizitza	84
49. Foru aldundien eragiketa arrunten bilakaera 2005-2024. BPGaren %a	85
50. Foru aldundien aurrezkia, kapital gastuak eta defizita 2005-2024. BPGaren %a	86
51. Administrazio Autonomoaren zor publikoaren bilakaera (gehiagizko defizitaren protokoloaren arabera). BPGaren %a	87
52. Eusko Jaurlaritzak gauzatutako gastuaren bilakaera (2005-2024). BPGaren %a	92
53. EBZk euroarentzat ezarritako truke tasa ofizialak. Moneta unitateak euro bakoitzeko	106
54. Gordailuen bilakaera. Milioi euro.....	108
55. Kredituen bilakaera	110
56. Etxebizitzen hipoteken bilakaera (milakoak) eta 12 hileko euriborra	111
57. BPGren gaineko eragina eskualdearen arabera	113
58. Eragindako sektore nagusiak. Eragin erlatiboa BEGaren ehunekoetan. Euskadi	114
59. Sektore eragin absolutua (BPGari egindako ekarpena, sektoreko BEGaren %)	115
60. Sektore kaltetuenak enpleguari dagokionez (galdutako lanpostu kopurua). Euskadi	116
61. AEBekiko zuzeneko esposizio handiena duten euskal sektore nagusiak. Sektoreko ekoizpen osoaren %an	117
62. AEBekiko zuzeneko esposizio handiena duten euskal sektore nagusiak. Sektoreko ekoizpen osoaren %an	118
63. BPG erreala, BPG potentziala eta pandemia aurreko joera	128
64. Euskadiko BPG erreala, BPG potentziala eta pandemia aurreko joera	130
65. Langabezia tasa eta NAWRU	133

0. EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA

Erresilientzia izan da munduko ekonomiaren ezaugarria 2024. urtean eta 2025eko lehen hilabeteetan. Gatazka armatuek denboran iraun dute, eta ziurgabetasuna areagotu egin da, batez ere Etxe Zuriko maizter berria izendatu zutenetik eta bere muga zergen politika alderraitik. Horri gehitu behar zaio 2024ko zati handi batean inflazioak igoera tasa altuak jasotzen jarraitu zuela eta prezioak kontrolatzeko abian jarritako diru politika murriztailea. Diru politika horrek fruituak eman ditu, eta lerro hauek idazteko unean inflazioa ekonomia garatuen zati handi batean kontrolatuta egotetik gertu dago, nolabaiteko neurritasuna erakusten duten energia prezio batzuei esker.

EAEko eta munduko ekonomien hazkundera. Urte arteko aldakuntza tasak *1. irudia*



Iturria: Eustat eta NDF.

Testuinguru horretan, munduko ekonomia %3,3 hazi zen 2024an, aurreko urteko datua baino bi hamarren gutxiago soilik, eta hazkunde erritmoan moteltzeko joera oso leunaren irudia ematen du. Intentsitate galera hori garapen bidean dauden herrialdeen taldean gertatu da, bereziki Txinan eta Indian, hazkunde tasa oso altuak dituzten bi potentzia izaten jarraitzen baitute, baina aurreko urteko erritmoetara iritsi ez direnak. Hala eta guztiz ere, erosteko ahalmenaren parekotasunari dagokionez, garapen bidean dauden herrialdeen taldeak pisua irabazi du berriro munduko BPGan, eta %60 baino pixka bat gehiago biltzen du, Txina guztizkoaren bostenera hurbilduz, AEBko ekonomiaren pisu erlatiboaren oso gainetik.

Herrialde garatuen multzoak hazkunde irudi nahiko egonkorra erakusten du, gaur egunera arte luzatu dena. Hala, 2023an %1,7 lortu ondoren, iaz aldakuntza tasa %1,8an kokatu zen, eta 2025eko lehen hiruhilekoan bi hamarren baino ez ditu galdu. Hala eta guztiz ere, herrialde talde horren barruan portaera kontrajarriak hautematen dira. AEBetako ekonomiak hazkunde erritmo handiari eutsi zion azken bi urteetan, eta moteltzeko sintomak ematen hasi da azken hilabeteetan. Aitzitik, Europar Batasunak eta euroguneak emaitzak hobetu dituzte, nahiz eta oraindik ere nolabaiteko ahultasuna erakusten dute. Azkenik, Japonia ez zen gai izan 2023ko erritmo indartsuari eusteko, eta 2024a batez besteko hazkunde ia hutsalarekin amaitu zuen (%0,1), baina behetik gorako ibilbidea egin zuen, eta aurtengo urteari aldakuntza tasa oso esanguratsuekin ekitea ahalbidetu du (%1,7).

Ekonomia eremuen pisua, hazkundera eta ekarpenak
1. taula

	Pisua	Hazkundera	Ekarpena		Pisua	Hazkundera	Ekarpena
Ekonomia aurreratuak	39,9	1,8	0,7	Garatu gabeak	60,1	4,3	2,6
AEB	14,9	2,8	0,4	Txina	19,5	5,0	1,0
Eurogunea	11,6	0,9	0,1	India	8,3	6,5	0,5
Japonia	3,3	0,1	0,0	Errusia	3,5	4,1	0,1
Erresuma Batua	2,2	1,1	0,0	Brasil	2,4	3,4	0,1
Kanada	1,3	1,5	0,0	Mexiko	1,7	1,5	0,0
Besteak	6,6	1,9	0,2	Besteak	24,7	3,4	0,9

Iturria: Ekonomia Zuzendaritzak egina, NDFren datuetan oinarrituta.

Azken urteetako hazkunde ekonomikoaren baldintzatzaileetako bat 2022an inflazioak izan zuen gorakada bizia izan da, munduak pandemiaren arazoak atzean utzi eta pultsuari berriro ekin ahala. Eskari handiak, ekoizpenean sortu ziren botila lepoek, Errusiak Ukraina inbaditu izanak eta ekoizpen kateetako desordenek ekonomia garatuen KPIa %7,3ra eraman zuten, eta garapen bidean dauden herrialdeena, berriz, %9,5era. Pixkanaka, tasa horiek motelduz joan dira, eta 2024an, urteko batez beste, %2,6an eta %7,7an kokatu ziren. Tasak moteltzeko orduan erresistentzia handiagoa dago AEBetan, iaz %3,0ko tasa erregistratu baitzuten, eta aurtengo maiatzean oraindik %2,4an zegoen. Atzerriko produktuei muga zerga handiagoak ezartzeak, dolarrak izan duen balio galerak eta bertako ekonomiaren sendotasunak herrialdeko kontsumoko prezioen kontrol osoagoa eragozten dute. Eurogunean, berriz, KPIa %2,4raino leundu zen iaz, eta aurtengo ekainean %2,0 igo zen, Europako Banku Zentralak (EBZ) inflazioa tasa horretan uzteko helburua betetz. Inflazioaren moderazio horri esker, diru politika irauli eta interes tasak jaitsi ahal izan dira herrialde garatu gehienetan, bereziki eurogunean.

BPG errealtaren bilakaera

2. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Munduko ekonomia	2,9	-2,7	6,6	3,6	3,5	3,3
Herrialde garatuak	1,9	-4,0	6,0	2,9	1,7	1,8
AEB	2,6	-2,2	6,1	2,5	2,9	2,8
Japonia	-0,4	-4,2	2,7	0,9	1,5	0,1
Erresuma Batua	1,6	-10,3	8,6	4,8	0,4	1,1
Eurogunea	1,6	-6,0	6,3	3,5	0,4	0,9
- Alemania	1,0	-4,1	3,7	1,4	-0,3	-0,2
- Frantzia	2,1	-7,6	6,8	2,6	1,1	1,1
- Italia	0,4	-8,9	8,9	4,8	0,7	0,7
- Espainia	2,0	-10,9	6,7	6,2	2,7	3,2
- Euskadi	2,3	-9,5	6,1	5,7	2,7	2,2
Garapen bidean daudenak	3,7	-1,7	7,0	4,1	4,7	4,3
Txina	6,1	2,3	8,6	3,1	5,4	5,0
India	3,9	-5,8	9,7	7,6	9,2	6,5
Errusia	2,2	-2,7	5,9	-1,4	4,1	4,1
Brasil	1,2	-3,3	4,8	3,0	3,2	3,4

Iturria: NDF eta Eustat.

Lehenago ere adierazi den bezala, AEBetako ekonomiak 2023ko emaitzaren antzekoa lortu zuen 2024an ere. Hala eta guztiz ere, hiru hilekoko bilakaeraren profilaren arabera, oraindik zalantzaz beterikoa den intentsitatea duen moteltzea nabaritzen da. Hain zuzen ere, 2024ko lehen erdian %3,0 inguruko hazkundera izan ondoren, bigarren erdian %2,6ko igoera lortu zuen, eta 2025eko lehen hiru hilekoan, berriz, %2,0ko tasa. Egia da neurritasun horren zati bat atzerrian erosketak aurreratzearen ondorioa dela, muga zergen igoeratik eratorritako prezioen igoera saihesteko, eta, ondorioz, hurrengo hiru hilekoetan inportazio txikiagoekin konpentsa litekeela, baina administrazio berriak sustatzen duen sektore publikoaren tamaina murrizteko neurriek intentsitatea kenduko diote ekonomiaren hazkunderari.

Euroaren eremuak kontrako bilakaera izan du, eta zifrak behetik gora doaz hiru hileko batetik hurrengora. Hala, 2023ko hirugarren hiru hilekoan hondoa jo ondoren (urte arteko tasa %0,1 izan zen), Europako ekonomia erritmoa poliki-poliki bizkortzen joan zen, 2024an batez besteko igoera %0,9 eta aurtengo lehen hiru hilekoan %1,5 izan arte. Emaitza on horretan eragina duten bi faktore daude: Irlandaren hazkunde izugarria hiru hilekoan (%21,1) eta esportazioen hazkunde nabarmena, hain zuzen ere AEBetako muga zergak saihesteko. Hala eta guztiz ere, koadro makroekonomikoak adierazten du familien kontsumoa indartsu hazten ari dela eta kapitalaren eraketa gordina pixkanaka berriro aktibatzen ari dela.

Europako herrialde handiek, Espainiak izan ezik, ez dute azkenean hazkunde sendoaren irudia proiektatzen. Alemaniak bi urtez jarraian egin du behera bere ekonomian, eta 2025aren hasieran bere BPGa egonkortzea baino ez du lortu (%0,0). Frantziak bultzada bat izan zuen (%1,1) 2024an, Olinpiar Jokoei esker, baina badirudi suspertze hori desagertzen ari dela urtea hastean (%0,6 lehen hiru hilekoan). Italiak %0,6ko edo %0,7ko urte arteko tasak jasotzen ditu sistematikoki, aldaketa handirik gabe. Azkenik, Espainiak intentsitate handia erakutsi zuen bere hazkundera 2024an (%3,2), nahiz eta urte honen hasieran erritmoa moteldu duen (%2,8).


Garapen bidean dauden herrialdeei dagokienez, Txinak 2024an lortu zuen herrialdeko agintariekin ezarritako %5,0ko helburua lortzea, urtean zehar zalantzak agertu ziren arren, bereziki higiezinaren sektoreari eta familien kontsumo txikiari dagokienez. Halaber, 2025eko lehen hiru hilekoan gai izan da iazko amaierako erritmoari eusteko (%5,4), eta sendotasuneko irudia ematen du, administrazioaren pizgarrietan oinarrituta. Bestalde, Indiak moteldu egin zuen iaz bere hazkunde aparta, eta %6,5eko urteko batez besteko tasa eskuratu zuen, urte honen hasieran mantentzeko gai izan dena (%6,7), kontsumo publikoak barne eskariari eman dion bultzadari esker.

Nazioarteko agertoki horretan, 2024an EAEko ekonomiak %2,2 handitu zuen bere BPGa termino errealetan, aurreko urtean lortutako zenbatekoa baino puntu erdi bat gutxiago. Aipatu behar da azken lau hiruilekoetan, aurtengo lehena barne, EAEko ekonomiaren hazkundera oso egonkorra izan dela eta %2,1 inguruan kokatu dela. Horrek pentsarazten du pandemiaren ondoren normaltasunera itzultzeak ekarri zuen ezohiko bultzada ia erabat desagertu dela eta hazkunde normalizatura iritsi dela. Epe luzeagoko ikuspegi batetik, egungo BPGaren mailak ia hamasei puntutan gainditzen du 2008-2009ko finantza krisiaren aurretik izandakoa, eta zazpi puntutan, berriz, pandemiaren aurretik zuena.


Ekoizpenaren igoerari esker, 17.000 lanpostu garbi inguru sortu ziren 2024an, %1,8ko aldakuntza tasarekin, eta 2025aren hasieran erritmoa pixka bat moteldu da, %1,5ean kokatu arte. Aurreko paragrafoan erabilitako denbora ikuspegi berak adierazten du, hain zuzen ere, 2008an, hots, finantza krisiaren aurretik, zegoen enplegu maila berreskuratzea 2024an lortu zela. Beraz, hamasei urte behar izan dira krisi hartan eta, ondoren, pandemian galdutako enplegu guztia berreskuratzeko. Aldi luze horretan BPGaren eta enpleguaren bilakaeren arteko aldeak produktibitatearen hazkunde nabarmena iradokitzen du. Beste modu batera adierazita, enplegu kopuru berarekin, orain BPGaren ia %16 gehiago lortzen da.

BPG errealearen eta enpleguaren bilakaera EAEn
2. irudia

BPG 2008=100



Enplegua 2008=100




Iturria: Ekonomia Zuzendaritzak egina, Eustaten datuak erabilia.


BPGaren hazkundera eskari motaren arabera banakatzek agerian uzten du kanpoko eskariak pandemiaren aurreko urteetan izan ohi zuen neutraltasunari heldu diola berriro. Hain zuzen ere, krisi urteetan (finantza krisian, euroaren krisian eta pandemian) kanpoko saldoak BPGaren hazkunderari egindako ekarpena oso handia izan ohi da eta, 2022an izan ezik, positiboa. Hala ere, aldi horietatik kanpo oreka egoten da esportazioen eta inportazioen artean, kanpoko saldoaren ekarpena nabarmen murrizten baitute. 2024an, ekarpen hori hamarren bat negatiboa izan zen, hau da, kanpora egindako guztizko esportazioak %0,1 baino ez ziren hazi termino errealetan, eta inportazioak, berriz, %0,3.

EAEko BPGari eginiko ekarpenak
3. irudia

Barne eskaria



Kanpo eskaria



2008 2009 2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022 2023 2024

2008 2009 2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022 2023 2024

Iturria: Ekonomia Zuzendaritzak egina, Eustaten datuak erabilia.

Aipatu behar da, 2024an EAEko BPGa aurreko urtean baino puntu erdi bat gutxiago hazi bazen ere, barne eskaria orduan baino puntu erdi bat gehiago igo zela, %2,3an kokatu arte. Barne eskariaren sendotasun hori joan den urte osoan erregistratutako hiruhilekoko emaitzetan hautematen da, eta aurtengo lehen hiruhilekora ere luzatu da (%2,4). Urte horretan, kanpo eskariak hamarren pare bat areagotu du ekarpena, inportazioak (%2,1) esportazioek (% 1,7) baino zertxobait gehiago suspertu direlako.

EAEko taula makroekonomikoa
3. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Barneko azken kontsumoa	2,1	-9,0	5,2	6,7	1,7	2,4
Familien kontsumoko gastua	1,8	-12,2	5,8	7,8	1,9	2,4
Herri administrazioen kontsumoa	3,1	2,9	3,2	3,1	1,3	2,3
Kapital eraketa gordina	3,2	-12,7	5,4	8,7	1,8	2,1
Ekipamenduko ondasunak	3,6	-11,8	11,1	14,4	3,1	2,3
Gainontzeko inbertsioa	3,1	-13,2	2,3	5,3	1,0	1,9
Barne eskaria	2,4	-9,9	5,2	7,2	1,8	2,3
Esportazioak	-0,1	-15,6	10,5	13,7	1,0	0,1
Inportazioak	0,0	-16,1	9,1	15,9	-0,2	0,3
BPG	2,3	-9,5	6,1	5,7	2,7	2,2
Lehen arloa	6,0	-16,9	15,0	2,2	16,0	3,1
Industria	1,5	-12,0	4,8	3,9	1,8	1,0
Manufakturak	1,2	-12,9	9,0	4,5	0,2	0,6
Eraikuntza	2,4	-14,4	1,0	5,8	2,6	1,6
Zerbitzuak	2,6	-7,7	6,6	6,7	3,0	2,6
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	2,2	-19,6	15,3	12,6	1,1	1,8
AA. PP., hezkuntza eta osasuna	3,2	1,1	2,3	3,0	0,9	2,9
Gainontzeko zerbitzuak	2,5	-4,5	4,3	5,0	5,4	2,9
Balio erantsi gordina oinarritzko preziotan	2,3	-9,2	5,9	5,9	2,8	2,1
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,0	-11,9	7,8	3,4	1,7	2,3

Iturria: Eustat.

Eskariaren aldetik egindako analisiak barne eskariaren bi osagaien oreka islatzen du, 2024an antzeko erritmoetan hazi baitziren, eta aurtengo hasieran ere hala egin dute. Adierazi behar da kapital eraketa gordinaren igoera inbertsiorako oso egokia ez den ingurune batean lortzen dela, Ukrainako eta Ekialde Ertaineko gatazka armatuek sortu zuten ziurgabetasunagatik, polarizazio

geografikoagatik, protekzionismoaren igoeragatik eta enpresek aurre egin zieten oraindik kostu handiengatik, nahiz eta inflazioa zuzendu eta EBZk interes tasak jaitsi ahala inbertsioa berraktibatzen joan zen, bereziki ekipamendurako ondasunetara bideratutakoa. Lehen hiruhilekoaren hasieran, ekipamendurako inbertsioa %3,0 hazi zen, eta gainerako inbertsioa, berriz, %1,7.

Azken kontsumoko gastuak dinamismo handia erakusten du, 2024 urte osotik 2025eko lehen hiruhilekora arte luzatu dena, urte arteko aldaketa tasak %2,0tik gorakoak izanik aldi guztietan. Agregatu horren bi osagaiek antzeko bilakaera izan zuten. Hala, familien kontsumoan egindako gastua %2,4 igo zen 2024an, eta pixka bat bizkortu da urte honen hasieran, %2,6raino; administrazio publikoen kontsumoa, berriz, %2,3 handitu zen iaz, eta %2,0 aurtengo lehen hiruhilekoan. Enpleguaren hazkundera eta inflazioaren kontrola dira kontsumo pribatuaren hedapen hori azaltzen duten bi arrazoi, eta horiei gehitu beharko litzaieke negoziazio kolektiboaren bidez lortzen den erosteko ahalmenaren igoera. Interes tasen jaitsiera ere kontsumorako pizgarria da, nahiz eta familiek aurrezki metatu kopuru handia duten.

Eskaintzaren ikuspegitik egindako azterketak adierazten du EAEko industria, Europako herrialdeetakoa bezala, egoera zailean dagoela gatazka armatuek sortutako ziurgabetasunagatik, eskari txikiagatik, protekzionismoaren gorakadagatik, kostu handiengatik eta, aurtan, muga zergak igotzeko mehatxuengatik. Horren guztiaren ondorioz, 2024an industriaren balio erantsia %1,0 handitu zen, ekonomiaren batez besteko hazkundearen oso azpitik. Gainera, hiruhilekoko bilakaerak adierazten du jarduera motelduz joan zela hiruhilekoak igaro ahala, lehen hiruhilekoko %1,7tik laugarreneko %0,5era. Manufakturen emaitza are negatiboagoa izan zen, iazko azken zatian lortutako tasa %0,1ekoa baino ez baitzen izan. Zorionez, 2025ean igarotako hilabeteetan susperraldi arina hauteman da, bai balio erantsi osoari dagokionez (%0,7 lehen hiruhilekoan), bai manufakturei dagokienez (%0,3).

Ekonomia orokorraren moderazioa eraikuntzaren balio erantsian ere nabaritzen da, 2024an %1,6 igo baitzen, aurreko urtean baino puntu bat gutxiago. Tasa hori bera da 2025eko lehen hiruhilekoan jaso duena. Kostuen igoera handiek sektorearen bilakaera baldintzatu zuten, batez ere 2022an, baina baita 2023an ere. Hala ere, horiek moteldu egin ziren iaz, eta %2,1 baino ez ziren igo urteko batez bestekoan. Lehengaiak %0,9 baino ez ziren garestitu, eta eskulana, berriz, %5,4. Ingeniaritza zibila izan zen osagaririk dinamikoena, nahiz eta hiruhilekoko profilak iradokitzen duen azken hilabeteetan eraikinen txanda hartzen ari dela.

Ziurgabetasun handiko une honetara ondoen egokitzen ari den sektorea zerbitzuena da, 2024an bere balio erantsia %2,6 handitzea lortu baitzuen, hots, ekonomiaren batez bestekoa baino ia puntu erdi bat gehiago. Beraz, aurreko bi urteetako egoera errepikatu da. 2025. urtean igarotako hilabeteetan ere, EAEko ekonomiaren sektorerik dinamikoena izaten jarraitzen du. Sektorea osatzen duten hiru blokeen hazkunde erritmoan bat egiteko joera hautematen da, dinamikoena zena (gainerako zerbitzuak deiturikoa) apaldu delako eta beste bietan, ordea, bizkortzea nabaritu delako. Beraz, horien arteko aldea 2023an 4,5 puntu izatetik 2024an 1,1 puntu baino ez izatera igaro da. Azken hilabeteetan, alde hori are gehiago murriztu da, eta hiru taldeek gutxienez %2,0ko aldakuntza tasak eskuratu dituzte.

Inflazioaren kontrola da egungo gako nagusietako bat, bai EAEn, bai herrialde garatuetan. 2024an, hobekuntza esanguratsuak lortu ziren zeregin horretan, eta, esate baterako, EAEko ekonomian BPGaren deflatorea 2023an %4,1 igotzetik 2024ko batez bestekoa %2,8 handitzera igaro zen eta aurtengo lehen hiruhilekoan are gehiago apaldu da (%2,4). Apaltzeko joera horren zati handi bat esportazioko eta inportazioko prezioen bilakaeratik dator, garestitzea moteldu baita, nazioarteko merkataritzaren ahultasuneko une batean. Hala ere, kontsumorako ondasunen eta zerbitzuen eskari handiak zaildu egin du kontsumo pribatuaren deflatorearen moderazioa, %3,0tik gora mantentzen baita.

Aurrekoaren ildotik, Euskadiko KPIak %3,1eko batezbestekoa izan zuen 2024an, hau da, aurreko urteko datua baino puntu erdi bat gehiago. 2025etik igarotako hilabetei buruzko datuen argitalpenak adierazten du indizea pixkanaka %2,0ko helburura hurbiltzen ari dela. Hain zuzen ere, aurtengo maiatzean KPIa %2,4an kokatu zen, eta azpiko inflazioa, berriz, %2,5ean. Oro har, zailtasunak daude elikaduran, jatetxeetan eta elektrizitatean inflazioa jaisteko, eta erregaien merkatzeak, berriz, indize orokorrari eusten laguntzen du. Azken horiei dagokienez, adierazi behar da 2022an, urteko batez bestekoan, gasolina eta gasolioa 1,78 eta 1,80 euro inguruko prezioetara iritsi zirela litroko, eta aurtengo lehen hilabeteetan, berriz, batez besteko kostua 1,52 eta 1,44 eurokoa izan dela. Petrolioaren prezioak merkatuetan izan duen bilakaerak (67 dolarretan kotizatzen da) azaltzen du merkatze hori.

Epe luze batean, EAEko ekonomian lan faktorearen itxurazko produktibitatearen irabazia %1 ingurukoa izaten da urtean. Hala eta guztiz ere, 2024an batez besteko irabazia zenbaki horretatik urrun kokatu zen, eta %0,4an geratu zen, BPGa %2,2 handitu zelako eta enplegua, berriz, %1,8 areagotu zelako. Eraitza eskas samar horren azalpena industriak erakutsitako ahulezian dago; izan ere, lehenago adierazi den bezala, bere balio erantsia %1,0 baino ez zuen hobetu iaz, baina enplegua %0,9 handitu zuen, eta, beraz, sektorearen produktibitate irabazia %0,1 baino ez zen izan,

bere batez besteko historikoa %1,5etik gertuago dagoenean. Egoera zail batean langileak kontratatzeak pentsarazten du EAEko enpresek prest egon nahi dutela kanpoko merkatuen susperraldia iristen denerako.

EAEko ekonomiaren beste aldagai nagusi zenbait
4. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Biztanleko BPG eurotan. EB-27=100	106,2	98,9	99,2	101,3	103,7	104,8
BPG per capita EAPn. EB-27=100	114,3	104,2	107,5	111,5	115,5	116,9
BPG erreala merkatu prezioetan	2,3	-9,5	6,1	5,7	2,7	2,2
Enplegua	1,5	-6,3	3,0	2,9	1,8	1,8
Lan faktorearen itxurazko produktibitatea	0,8	-3,4	3,0	2,7	0,8	0,4
BPG nominala merkatu prezioetan	3,5	-9,5	8,3	10,2	6,9	5,0
BPGaren deflatorea	1,2	0,0	2,1	4,3	4,1	2,8
KPI (urteko batez bestekoak)	1,0	-0,1	3,1	8,0	3,6	3,1
Kostu guztiak langile bakoitzeko	1,8	-1,1	4,9	2,7	4,5	2,3
Langabezia tasa	9,8	10,6	10,0	8,6	7,8	7,4

Iturria: Ekonomia Zuzendaritzak egina, Eustaten, Eurostaten eta INEren datuetan oinarrituta.

EAEko ekonomiaren BPG nominala 97.293 milioi eurokoa izan zen 2024an, aurreko urteko balioa baino %5,0 handiagoa. Azken lau urteetako hazkunderik txikiena izan zen hori, aurrekoetan inflazioak hazkunde biziagoak lortzen lagundu baitzuen. Prezioak neurrian igotzea albiste ona da ekonomiaren egonkortasunerako, eta, beraz, BPG nominalaren hazkunde tasa hori ontzat hartu behar da. Hazkunde hori BPG errearen %2,2aren eta BPGaren deflatorearen %2,8aren artean banatzen da.

Inflazioaren kontrolak, besteak beste, 2024ko hitzarmen kolektiboetan adostutako soldata igoerak leuntzeko balio izan du, batez beste %3,4ko igoera izan baitzuten, aurreko bi urteetako datuen azpitik (%4,1 eta %4,2, hurrenez hurren). Orobat, 2025ean igarotako hilabeteetan nabaritzen da

moderazioa luzatu egin dela, hitzartutako batez besteko igoera %3,1 baita eta urtean sinatutako hitzarmenetarako igoera, berriz, %2,7.

Lan merkatuaren bilakaera onak langabezia tasa berriro murrizteko balio izan du. Hala, 2024ko batez bestekoan, langabezia tasa osoa %7,4ra jaitsi zen, 2023an baino lau hamarren beherago, eta 2025eko lehen hiruhilekoko tasa, berriz, %7,0koa izan zen. Emakumeen egungo langabezia tasaren (%7,1) eta gizonen oraingo langabezia tasaren (%6,8) artean hamarren batzuetako aldea bakarrik dago, baina alderik aipagarriena nazionalitatearen arabera langabezia tasan dago. Hain zuzen ere, 2025eko lehen hiruhilekoan Espainiako nazionalitatea zuten pertsonen langabezia tasa %5,6 izan zen, eta atzerritarrena, berriz, %18,5.

Urteko txosten honetan aztertzen den alderdi gehigarri bat bi sexuen arteko soldata arrakala da. INEk soldata egiturari buruz argitaratutako inkestaren informazioak adierazten du arrakala hori murrizten jarraitzen dela, eta 2023ko hobekuntza, argitaratutako azken urtea hori baita, oso esanguratsua izan zela. Zehatzago adierazita, gizon baten eta emakume baten batez besteko soldataren arteko aldea duela hamar urte %25,2 izatetik 2023an %12,8 izatera igaro da. Murrizketa horren zati handi bat azken urteetan hartutako lanbide arteko gutxieneko soldata nabarmen igotzeak ekarri du, lanbide feminizatuenei mesede handiagoa egiten baitie.

1. EKONOMIAREN EGOERA 2024AN

1.1 EAEko ekonomiaren ingurunearen portaera


2024. urtea nazioarteko ingurune ekonomiko bereziki konplexu batek markatu zuen, hegakortasuneko gertakariak sortu eta munduko ziurgabetasuna areagotu zuten faktoreen konbinazio batek baldintzatuta. Tentsio gune nagusien artean, Ekialdeko Europan eta Ekialde Ertainean gatazka geopolitikoek jarraitzen dutela nabarmendu zuten (bereziki, Ukrainako gerraren jarraipena eta Israelen, Gazaren eta Iranen arteko gatazkaren gorakada), eta horiek unean-unean eragin zieten energiaren, itsasoaren bidezko segurtasunaren eta hornidura kateen prezioei. Horri gehitu behar zaio aurreko urteetako moneta gogortzearen ondorioz bizi zen finantzaziorako baldintza murriztaileen eragin metatua. Halaber, hainbat ekonomia aurreraturen ziurgabetasun politikoak, ondasunen merkataritzaren dezelerazioak eta azaleratzen ari diren ekonomia batzuen hauskortasunak, konplexutasun handiko agertokia osatu zuten erabaki ekonomikoak maila globalean hartzeko.

Zehatzago adierazita, 2024an, energiaren prezioek beheranzko bilakaera neurritsua erakutsi zuten, inflazioa modu orokorrean kontrolatzeko eta lehengaien merkatuetako tentsioen erlaxazioaren testuinguru batean. Hegakortasuneko gertakari puntualak gertatu ziren arren, bereziki Ekialde Ertaineko tentsio geopolitikoek eta Ukrainako gatazkari lotuta, Brent petrolioaren salneurriak upeleko 74 dolarren inguruan amaitu zuen urtea, upelaren prezioa 91 dolarretik gora eta 69 dolarretik behera ebili eta gero, eskaera globalaren apaltzea, bereziki Txinarena, islatuz, baita eskaintzaren sendotasuna ere.

Gas naturalaren prezioek, berriz, urtean zehar goranzko joera erakutsi zuten arren, Ukrainako gerra piztu ondoren izan zuten maila maximoen oso azpitik mantendu ziren. Energia prezioen bilakaera

hori hornidura kateetako botila lepoen gaineko eta lehengaien prezioei eusteko presio txikiagoko ingurune batean gertatu zen, eta horrek inflazio orokorraren eta azpiko inflazioaren tasak moteltzen lagundu zuen ekonomia aurreratu eta azaleratzen ari direnen gehienetan. Oro har, energiak inflazio faktore nagusi izateari utzi zion, eta desinflazio prozesuari egin zion ekarpena ikusgarriagoa izan zen urtearen bigarren erdian, normalizazio ibilbidea sendotuz, 2021ean eta 2022an izandako igoera handien ondoren.

Lehengai energetikoen bilakaera. Hileko batez bestea
4. irudia



Iturria: Ekonomia, Merkataritza eta Enpresa Ministerioa.


Gainerako lehengaiak dagokienez, metal industrialek ibilbide desberdinarekin amaitu zuten urtea. Altzairuaren eta burdinaren ugaritasunak %20 baino gehiago beheratu zituen prezioak, eta kobreak eta aluminioak, ordea, %5 baino ez zuten errebalorizatu, batez beste. Metal preziatuek bai, urte ona izan zuten, merkatuaren hegazkortasunaren aurrean babes balioa zutelako. Izan ere, urrea %27 garestitu zen, ontza bakoitzeko 2.620 dolarrak ukitzearaino.

Horiek horrela izanda, 2024. urtean, munduko inflazioak moteltzen jarraitu zuen, eta 2023an hasitako desinflazio prozesua sendotu zuen. Abenduan, tasa globala %5,7 ingurukoa izan zen, 2022an lortutako %8,6ko maximoaren oso azpitik. Bilakaera horrek lehengaien merkatuen

egonkortzea, hornidura kateen hobekuntza eta manufaktura bezalako sektoreetan eskari jarraituagoa islatu zituen.

Hala eta guztiz ere, azpiko inflazioak, osagai hegazkorrenak, hala nola energia eta elikagai freskoak, kanpoan uzten dituenak, beheranzko erresistentzia handiagoa erakutsi zuen, bereziki zerbitzuen alorrean, non lan kostuek goranzko presioa egiten jarraitu zuten. Ekonomia aurreratuetan, hala nola AEBetan eta eurogunean, azpiko inflazioa indize orokorra baino motelago murriztu zen, sektore batzuetan, bereziki zerbitzuetan, soldatek hazten jarraitu zutelako eta barne kontsumoak sendo segitu zuelako, eta horrek prezioen gaineko presioa egiten jarraitu zuelako. Oro har, prezioen arloko 2024ko balantzea positiboa izan zen, urte hasieran aurreikusitakoa baino desinflazio irmoagoarekin, baina oraindik osatu gabe dagoena. Bilakaera horren ondorioz, banku zentral nagusiek erlaxazio monetarioko prozesuak hasi edo jarraitu zituzten, ikuspegi zuhurra hartuta eta datu ekonomikoek gidatuta.

Inflazioaren bilakaera. Urte arteko aldakuntza tasak 5. irudia




Iturria: Eurostat.

Salgaien nazioarteko merkataritzari dagokionez, 2024an susperraldi partziala erakutsi zuen, aurreko urtean erregistratutako uzkurduraren ondoren, bolumenean %2,9ko hazkundearekin, Munduko

Merkataritza Erakundeak (MME) argitaratutako datuen arabera. Gorakada horrek, moderatua izan arren, hasierako aurreikuspenak gainditu zituen, eta 2017tik lehen aldiz (pandemia osteko errebotea alde batera utzita) merkataritza munduko BPGa baino erritmo handiagoan haztea ahalbidetu zuen, merkatuko truke tasetan %2,8an kokatu baitzen.

Salgaien munduko merkataritzaren bolumenaren eta munduko BPGaren hazkundera
6. irudia

Urte arteko aldakuntza



Iturria: MME eta NDF.

Nazioarteko merkataritzaren bizitasuna Asian kontzentratu zen, eremu horretan esportazioek eta inportazioek igurikimenak nabarmen gaintu baitzituzten; Europak, ordea, uzkurdua erregistratu zuen, batez ere elkartearen barruko merkataritzan, %3,2 jaitsi baitzen. Izan ere, Europar Batasunaren barruko merkataritza baztertuz gero, munduko merkataritzaren hazkundera %4,3ra iritsiko litzateke, eta horrek agerian uzten du Europako barne eskariak izan duen ahultzearen eragin negatiboa.

Horiek horrela izanda, Asiak salgaien nazioarteko merkataritzaren motor nagusi gisa zuen zeregina berreskuratu zuen, 2023an jarduera apalagoa izan ondoren. MMAk argitaratu dituen datuen arabera, eskualdeak %8,0ko hazkundera izan zuen esportazioetan eta %4,9koa, berriz, inportazioetan, eta horrek merkataritza bolumenaren igoeraren ekarpen handiena egin zuen eremua bihurtu zuen. Manufakturen eskariak gora egin zuen, batez ere elektronikaren, kontsumo ondasun iraunkorren eta tarteko osagaien sektoreetan, bai eta baldintza logistikoen hobekuntzak eta energia prezioen egonkortzeak ere.

Munduko ondasunen merkataritza eremuka
5. taula

Salgaien merkataritzaren bolumenaren urte arteko aldakuntza tasak

	Esportazioak				Inportazioak			
	2021	2022	2023	2024	2021	2022	2023	2024
Mundua	8,1	1,6	0,0	3,1	9,9	3,0	-2,0	2,6
Ipar Amerika	6,5	4,0	3,6	2,3	11,8	5,6	-2,2	4,7
AEB	8,1	4,2	3,2	2,7	12,1	5,9	-3,0	5,3
Erdi eta Hego Amerika	6,5	3,4	2,6	6,6	25,9	4,0	-4,3	7,2
Brasil	3,7	4,7	8,8	2,6	24,7	1,8	-5,2	17,2
Europa	6,8	2,0	-2,9	-1,7	7,4	4,5	-5,3	-2,2
Europar Batasuna	6,9	1,9	-3,1	-1,8	7,9	4,7	-6,0	-2,7
Est. Burujabeen Erkid.	-1,0	-2,2	-4,3	2,3	8,9	-6,0	18,0	5,0
Errusia	3,3	-2,6	-13,2	1,8	13,0	-12,2	12,3	1,5
Ukraina	-6,6	-40,1	-5,1	11,8	7,6	-44,7	6,6	4,4
Afrika	3,8	-2,2	5,7	1,3	5,7	6,0	2,6	1,8
Ekialde Hurbila	-1,5	3,8	8,1	3,7	11,8	10,8	9,0	15,0
Asia	13,1	0,4	0,2	8,0	10,3	-0,8	-0,7	4,9
Txina	17,3	-2,1	3,0	13,4	7,6	-7,1	2,9	1,7
Japonia	12,0	1,9	-1,6	0,0	2,4	0,6	-2,2	-0,7
India	22,2	0,8	2,5	3,4	15,8	-1,2	8,2	9,5

Iturria: Munduko Merkataritza Antolakundea (MMA) eta UNTAC.

Aldiz, Europak berriz ere bilakaera uzkurra erakutsi zuen, bai esportazioek (-%1,7) bai inportazioek (-%2,2) behera egin baitzuten, barne eskariaren ahuleziak eta hornidura kateen zatiketak eraginda. Ipar Amerikak, bere aldetik, portaera askoz sendoagoa erakutsi zuen, eremu horretako esportazioak %2,3 eta inportazioak %4,7 areagotu baitziren, nahiz eta iazko urte amaieran bultzada galdu zuen.


Balioari dagokionez, salgaien munduko esportazioak %2,0 handitu ziren, 24,4 bilioi dolarreraino iritsi arte; merkataritza zerbitzuen esportazioak, berriz, %9,0 hazi ziren, turismoaren, garraioaren eta zerbitzu digitalen susperraldiak bultzatuta. Zerbitzuenak merkataritza osoaren %26,4 bereganatu zuen, proportziorik handiena 2005etik.

Bilakaera positibo hori gorabehera, merkataritza ingurunean tentsio geopolitikoak, disrupzio logistikoak eta neurri protekzionisten gorakada izan ziren nagusi. 2025aren hasieran AEBek muga zerga berriak ezartzeak, partzialki etenda egon arren, ziurgabetasuna sortu zuen merkataritzaren etorkizuneko bilakaerari buruz. MMAREN arabera, aurreko baldintzei eutsi izan balitz, 2025ean salgaien merkataritzaren hazkundea %2,7ra irits liteke. Hala eta guztiz ere, aurreikuspen doituaren arabera, %0,2ko uzkurdura dago orain, arau testuinguruak okerrera egin duelako eta merkataritza politikaren inguruko ziurgabetasuna areagotu delako.


Barne produktu gordina. Urte arteko aldakuntza tasak

7. irudia

Ekonomia aurreratuak



Garapen bidean dauden herrialdeak



Iturria: NDF.

Munduko jarduera ekonomikoak, berriz, hazkunde jasangarriaren bideari eutsi zion 2024an, hasieran aurreikusitakoaren gainetik, desinflazio mailakatuaren eta finantza baldintzak pixkanaka lasaitzearen testuinguruan. Nazioarteko Diru Funtsaren (NDF) kalkuluen arabera, BPG globala %3,3 hazi zen, 2023ko erregistroa baino bi hamarren gutxiago, eta horrek erakusten du oraindik konplexua den ingurune baten aurrean erresistentzia gaitasun handia duela. Aurrerapen hori, neurri handi batean, zerbitzuen sektorearen dinamismotik etorri zen, batez ere turismotik, teknologiatik eta bitartekaritza digitaletik; manufakturen jarduerak, berriz, ahultasuna erakusten jarraitu zuen, batez ere ekonomia aurreratuetan.

Zenbatetsitako hazkundeak, halaber, bloke ekonomikoen arteko ekarpenen banaketa desberdinari erantzun zion. Azaleratzen ari diren eta garatzeko bidean dauden ekonomiek zeregin zentrala izan zuten eta munduko BPGaren hazkundearen %60 baino zertxobait gehiago ekarri zuten, nahiz eta Txinan dezelerazioa eta merkatu espezifikotik finantza tentsio batzuk egon. Aitzitik, ekonomia aurreratuek ekarpen mugatuagoa egin zuten, eta AEBetan jarduera bereziki dinamikoa izan zuten, euroaren eremuan susperraldi geldiago eta desberdinagoaren aurrean. Oro har, 2024ko hazkunde patroiak munduko ekonomia bat islatu zuen, arrisku geopolitiko eta komertzial iraunkorrak izan arren, hedapen bati eustea lortu zuena, kontsumo pribatuaren bultzadari, finantza baldintzen hobekuntzari eta zerbitzuen sendotasunari esker.


Zehatzago, azaleratzen ari diren ekonomiak %4,3 hazi ziren 2024an, aurreko urtekoa baino tasa pixka bat txikiagoa, baina ekonomia aurreratuek erregistratutako batez bestekoa aise gainditzen jarraitzen duena. Asian, Txinak %5,0 hazteko helburu ofiziala lortu zuen 2024an, pizgarri fiskalen, interes tasen murrizketen eta higiezinaren sektoreari laguntzeko neurrien konbinazio batek bultzatuta. Hala ere, susperraldia uste baino ahulagoa izan zen. Azpiegituretako inbertsio publikoaren aurrerapen handiak eta esportazioen gorakadak jarduerari bultzada nabarmena eman zioten arren, hazkundeak ez zen handiagoa izan, kontsumo pribatuaren ahultasun iraunkorragatik eta higiezinaren sektorean susperraldi sendorik ez zegoelako. Bi faktore horiek barne eskariaren dinamismoa mugatzen jarraitzen dute, familien konfiantzari eragiten diote eta finantza egonkortasunaren gaineko tentsioak sortzen dituzte.

Indiak, berriz, hazkunde erritmo biziari eutsi zion 2024an, %6,5ekoa, baina 2023an erregistratutako %9,2aren azpitik, aurreko urteko hedapen handiaren ondoren normalizazio testuinguru batean. Gorakada hori egiturazko oinarri sendo batean oinarritu zen, batez ere barne eskariaren dinamismoak eta azpiegituretan inbertsio publiko handiak bultzatuta, batez ere garraioan eta konektibitate digitalean. Horri gehitu behar zaio sektore teknologikoaren portaera ona, informazioaren teknologien zerbitzuen hedapen jarraituarekin, funtsezko zutabea izaten jarraitzen


baitute bai esportazioetarako, bai enplegu kualifikaturako. Oro har, faktore horiei esker, hazkunde profil sendoari eutsi ahal izan zitzaion, eta India garapen bidean dauden herrialdeetako ekonomia garrantzitsuenetako bat bihurtu da.

Herrialde garatu gabeen BPGa. Urte arteko aldakuntza tasak
8. irudia


Amerika Latinoa




Brasil



Txina




India



Iturria: NDF.

Latinoamerikan, hazkunde tasa apalagoa izan zen, %2,4koa, herrialdeen arteko alde nabarmenarekin. Izan ere, Brasilek %3,4ko gorakada izan zuen, kontsumo pribatuak, nekazaritzako esportazioen hobekuntzak eta urtearen bigarren erdian diru politika egokitzailagoak bultzatuta. Mexiko, aldiz, %1,5eraino moteldu zen, kanpo eskariaren moderazioak eta ziurgabetasun politikoak hauteskunde testuinguruan eraginda. Eskualdeko gainerako herrialdeek portaera mistoa erakutsi zuten, lehengaien prezioen bilakaerak, truke tasaren egonkortasunak eta gobernuek politika fiskal hedakorrei eusteko duten gaitasunak baldintzatuta.

Ekonomia aurreratuen BPGa. Urte arteko aldakuntza tasak
9. irudia



Iturria: NDF eta Eurostat.

Garapen bidean dauden ekonomien bilakaerarekin batera, ekonomia aurreratuek %1,8ko hazkundera eskuratu zuten 2024an, aurreko urtean baino hamarren bat gehiago. Hobekuntza txiki hori desinflazio progresiboaren eta finantza baldintza onuragarriagoen testuinguruan gertatu zen, eta horrek aurreko urteetan pilatutako tentsio batzuk arintzen lagundu zuen. Hala ere, jarduera desberdina hauteman da eskualdeen artean, eta desberdintasunak islatu ziren susperraldiaren intentsitatean eta politika ekonomikoen erantzunean.

AEBek gorantz egin zuten berriro, %2,8ko hazkundearekin, kontsumo pribatuaren indarrak, lan merkatuaren bizitasunak eta sektore estrategikoetara bideratutako inbertsio publikoak bultzatuta, hala nola trantsizio energetikoa eta digitalizazioa. Finantza baldintzak gogortu eta barne politika ziurgabea izan arren, AEBetako ekonomiak hedatzeko profil iraunkorrari eutsi zion, zerga politika aktibo batean ere oinarrituta.

Aldiz, euroaren eremuak susperraldi apal bati eutsi zion, %0,9ko gehikuntzarekin, nahiz eta 2023an erregistratutako %0,5etik gorakoa izan, kanpo ingurunean eta gastu publikoan izandako hobekuntza partzialaren isla, baina oraindik ere inbertsioaren ahuleziak eta manufakturen sektorearen atoniak kaltetuta. Dinamismo falta hori, neurri handi batean, Alemaniako ekonomiaren bilakaera txarrak baldintzatu zuen, bigarren urtez jarraian uzkurtuta egon baitzen. Zehatzago adierazita, Alemaniak BPGaren %0,2ko jaitsiera izan zuen, energiaren garestitze erlatiboak, esportazioen jaitsierak eta automobilgintzaren krisiak eraginda.

Frantziak %1,2ko hazkundera eskuratu zuen, 2023an lortutako erritmoa baino bi hamarren gutxiago, kontsumo publikoaren bultzadari eta lan merkatuaren erresilientziari esker. Horrek barne eskariari eusten lagundu zuen, kanpo ingurune ez hain positiboaren aurrean, eta inbertsio pribatuaren portaera ahulari aurre egin zioten, ziurgabetasun ekonomikoak eta urtearen zati handi batean oraindik murriztaileak ziren finantza baldintzek eraginda. Italiak 2022an hasitako beheranzko bidea galgatzea lortu zuen, eta bere jarduera ekonomikoaren erritmoa %0,7an egonkortu zuen, Gobernuaren %1eko aurreikuspen ofizialaren azpitik, nahiz eta aurrekontu defizita eta zor publikoa espero baino gehiago murriztu ziren. Espainia, bestalde, eremuko ekonomiarik dinamikoenetako bat bihurtu zen, BPGa %3,2 handitu baitzen, zerbitzuen sektorearen indarrean, turismoaren portaera onean eta lan merkatuaren sendotasunean oinarrituta. Horri esker, familien errenta erabilgarria hobetu zen eta kontsumo pribatua nabarmen handitu zen.

Japonian, azkenik, hazkundera bat-batean moteldu zen %0,1eraino, barne kontsumoaren ahuleziak, enpresa inbertsioaren jaitsierak eta Japoniako Bankuaren diru politikari buruzko ziurgabetasun

iraunkorrak eraginda, zeinak normalizazio prozesu txiki bat hasi baitzuen, interes tasa oso txikiak hainbat hamarkadatan eduki ondoren. Yenaren balio galerak, esportazioetarako ona izan arren, inportazio energetikoak garestitu zituen eta familien erosteko ahalmena higatu zuten tentsio inflazionistak elikatu zituen.

Ekonomiaren aldagai nagusiak
6. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG erreala		Inflazioa		Langabezia tasa	
	2023	2024	2023	2024	2023	2024
Mundua	3,5	3,3	6,6	5,7	--	--
Ekonomia garatuak	1,7	1,8	4,6	2,6	4,4	4,6
AEB	2,9	2,8	4,1	3,0	3,6	4,0
Japonia	1,5	0,1	3,3	2,7	2,6	2,6
Europar Batasuna	0,5	1,0	6,4	2,6	6,1	5,9
Alemania	-0,3	-0,2	6,0	2,5	3,1	3,4
Frantzia	1,4	1,2	5,7	2,3	7,3	7,4
Erresuma Batua	0,7	0,7	5,9	1,1	7,7	6,5
Italia	2,7	3,2	3,4	2,9	12,2	11,4
Espainia	0,4	1,1	7,3	2,5	4,1	4,3
Garapen bidean daudenak	4,7	4,3	8,0	7,7	--	--
Asia	4,1	4,6	3,5	3,0	--	--
Amerika Latinoa	2,4	2,4	14,8	16,6	--	--
Ekialdeko Europa	2,2	2,4	15,5	14,4	--	--


Iturria: NDF eta Eurostat.

Ondorioz, 2024a hazkunde neurritsuko baina erresilienteko urtea izan zen munduko ekonomiarentzat, eremuen eta sektoreen arteko kontraste nabarmenek markatuta. Jardueraren susperraldia desinflazioak, finantza baldintzen erlaxazioak eta azaleratzen ari diren ekonomien dinamismoak bultzatu zuten, baina egiturazko arrisku iraunkorrek baldintzatzen jarraitu zuten, hala nola zatiketa geoekonomikoak, zaurgarritasun energetikoak eta ziurgabetasun politikoak.

2025eko lehen sei hilekoan, munduko ekonomiak bilakaera nahiko egonkorra izan du hazkundeari eta enpleguari dagokienez, baina egonkortasun horrekin batera, ziurgabetasun ekonomiko globala

nabarmen handitu da, batez ere faktore politikoek bultzatuta. Donald Trump AEBko presidentetzara itzultzea izan da eragin handienetako bat, eta horrek agenda komertzial protekzionista bat berraktibatu du, produktu txinatarrei %20ko muga zergak, altzairuaren eta aluminioaren %25eko tarifak eta Europatik eta beste bazkide komertzial batzuetatik funtsezko inportazioei murrizketa gehigarriak ezartzen dizkiena. Politika horiek nazioarteko tentsio komertzialak sortu dituzte, eta tentsio horiek eragin negatiboa izan dute atzerriko zuzeneko inbertsioan, nazioarteko merkataritzan eta hornidura kateen egonkortasunean.

Politika ekonomiko globalaren ziurgabetasun indizea (GEPU). Merkatuko kanbio tasak
10. irudia



Iturria: PolicyUncertainty.com.

Testuinguru hori argi eta garbi islatzen da politika ekonomiko globalaren ziurgabetasun indizean (Global Economic Policy Uncertainty Index: GEPU), 2025eko apirilean 603,56 puntutan kokatu baitzen, pandemiaz geroztik inoiz izan duen mailarik altuenetako bat. Balio hori indizearen batezbesteko historikoa halako sei baino gehiago da, eta horrek esan nahi du mundu mailako erabaki ekonomikoetarako aurreikusezintasun handiko ingurunea dagoela. Indizearen gorakadak iradokitzen du eragile ekonomikoak tentuz erreakzionatzen ari direla, alde bakarreko neurri berriak, errepresalia komertzialak eta nazioarteko joko ekonomikoaren arauetan aldaketa gogorak egon daitezkeelako.

GEPU hileroko indize bat da, politika ekonomikoari buruzko munduko ziurgabetasuna islatzen duena. 21 herrialdetako politika ekonomikoaren ziurgabetasun indize nazionalen (EPU) batez besteko haztatu gisa eraikitzen da, BPGaren arabera. AEBak, Txina, Alemania, Frantzia, Espainia, India, Japonia eta Erresuma Batua barne hartzen ditu, besteak beste. Frogatu da korrelazio esanguratsuak dituela inbertsio, enplegu eta hazkunde ekonomikoarekin. GEPU indizea osatzen duten 21 herrialdeak EAPn kalkulaturako munduko produktuaren %71 dira, gutxi gorabehera, eta %80, berriz, merkatuko truke tasetan.

Aurreikuspenak egiten dituzten erakunde nagusiek ere jasotzen dute ziurgabetasun hori, eta hazkunde aurreikuspenak berrikusi dituzte. ELGak, besteak beste, ohartarazi du muga zerga horiek moteltzen ari direla munduko hazkunde ekonomikoa, 2025erako %3,1ean zenbatetsi dena, aurreko aurreikuspenetatik behera zuzenduta. Gainera, inportazioen garestitzeak inflazioa igoko du, eta horrek banku zentralak moneta politika murriztaileak denbora gehiagoz mantentzera behartu ditzake. NDFk eta EBZk uste dute merkataritza eta finantza tentsioen ingurune hori dela egonkortasun ekonomikorako arrisku nagusietako bat, ziurgabetasun geopolitikoarekin eta merkatuen zatiketarekin batera.


22. irudia



Iturria: Eustat, Gizarte Segurantzak eta INE.

Okupazioaren bilakaerak aurreko urteetako bide positiboari eutsi zion Euskadin, baina hazkunde-erritmoa apur bat moteldu zen urtearen bigarren erdian. Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA) sailkatzeko Inkestak dioenez, enplegua %1,7 hazi zen eta Eustatek egindako kontu ekonomikoetan ere enpleguak %1,8ko hazkundera izan zuen. Zifra horien ildotik, Gizarte Segurantzako afiliazioak %1,5eko igoera eduki zuen, eta, horri esker, milioi bat pertsona inguruko enplegu mailak lortu ziren, eta beste urtebetez sendotu egin zen 2020ko atzerakadaren ondoren hasitako susperraldia.

Enplegua, dedikazio osoko baliokidetzako lanpostuetan neurtuta, %1,8 hazi zen, BPGaren hazkunde erritmoren azpitik, eta horrek lanaren itxurazko produktibitatearen hazkunde neurritsuagoa ekarri zuen, %0,4 bakarrik egin baitzuen Aurrera 2024an, 2023an erregistratutako datuaren azpitik. Aurreko ekitaldietan bezala, zerbitzuen sektorea izan zen berriro dinamikoena, %2,2ko aldakuntza tasarekin, turismoari lotutako adarren aurrerapen-erritmo handien ondorioz. Industriak (%0,9) eta eraikuntzak (%0,2) hazkunde positiboak baina ahulak izan zituzten, azken urteetako joera tertziarizazio handiagorantz luzatuz. Aldiz, nekazaritza sektoreak %1,8ko murrizketa izan zuen.

Gizarte Segurantzako afiliazioari dagokionez, maximo historiko berri bat lortu zen, 1.013.000 kotizatzaile baino gehiagorekin. Hazkundera 2023an baino zertxobait apalagoa izan bazen ere (%1,5 eta %1,6, hurrenez hurren), gizonezkoen biztanleria (%1,2) eta emakumezkoen biztanleria (%1,7) hazkunde orokorraren parte izan ziren biak.

Enplegua sektoreka
18. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Enplegua guztira	1,7	-2,3	1,2	2,5	1,2	1,7
- Enplegua lehen arloan	-8,3	-18,0	-9,8	18,9	-5,7	10,8
- Enplegua industrian	-1,5	-1,4	0,3	-2,4	0,2	1,8
- Enplegua eraikuntzan	2,6	-2,9	5,8	9,2	-2,1	-1,6
- Enplegua zerbitzuetan	2,8	-2,3	1,3	3,3	1,9	1,8


Iturria: Ekonomia Zuzendaritzak egina Eustateko datuetan oinarrituta.

2024an soldatapekoen erregimen orokorreko afiliazioaren banaketa jarduera-atalen arabera aztertuta, berriz ere informazioaren eta komunikazioaren adarrak eta ostalaritzakoak, turismoaren bilakaera onaren ondorioz, hazkunde nabarmenak izan zituzten. Halaber, hezkuntzari eta jarduera profesional zientifiko eta teknikoei dagozkien jarduera adarrek afiliazioaren batez besteko hazkunde baina gehikuntza handiagoak izan zituzten.


BJAk emandako okupazio datuen arabera, Euskadiko enpleguak gora egin zuen laugarren urtez jarraian eta 2024an 2023an baino hazkunde erritmo handiagoa izan zuen, nahiz eta 2022an ikusitako intentsitatera iritsi ez. Okupazioaren igoera orekatua izan zen emakumeen eta gizonen artean, %1,7ko hazi bait zen bi kasuetan.

Enplegu tasaren bilakaera sexuaren arabera EAEn 23. irudia

Gizonak



Emakumeak



Oharra: Serie hauek ez dira guztiz homogeneoak hainbat urteetan metodologia aldaketak egin zirelako.
Iturria: Eustat.


Adinari dagokionez, enplegu tasak izan zuen gorakadak (2023an %51,8 izatetik 2024an %52,3 izatera igaro zen) adin-talde guztietan izan zuen igoeraren islada. Hobekuntza horren arrazoi nagusia 25-44 urte bitarteko adin taldeak izandako bilakaera positiboa izan zen; izan ere, adin-talde horretako okupazio tasa %1,1 hazi zen. Konkreteki, 2023an pixka bat jaitsi ondoren 25-

44 urte bitarteko adin taldearen enplegu tasa %81,2koa izan zen 2024an. Halaber, gazteen enpleguaren hazkundera nabarmendu zen (16 eta 24 urte arteko biztanleak), %29,3ko tasarekin. Horrela, pandemiaren eraginaren ondoren hasitako suspertzeko joera sendotu zen. Beraz, talde horrek, pixkanaka, finantza-krisi globalaren aurretik erregistratutako gehieneko mailetara hurbiltzen jarraitzen du.


Produktibitateko eta enplegurako funtsezko faktoreetako bati dagokionez, hala nola biztanleriaren hezkuntza mailari dagokionez, 2024ko datuak oso positiboak izan ziren berriro ere. Hirugarren mailako ikasketak dituzten 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen ehunekoa %65,6ra iritsi zen, Espainiako (%51,7) eta 27-Europar Batasuneko (%44,7) batez bestekoen oso gainetik. Halaber, ikasketak goiz utzi dituztenen tasa oso baxua izan zen (%5), Espainiako erregistroaren (%13) eta europarren (%9,4) oso azpitik.

Goi mailako hezkuntza (30-34 urte bitarteko taldea)
24. irudia

Gizonak



Emakumeak



Iturria: Eurostat.


Beste behin ere, prestakuntza-maila handiagoa zuten pertsonen okupazio maila handiagoa izan zuten. Hala ere, goi mailako titulazioa duten pertsona landunen ehunekoak gora egin duenez (%60

baino gehiago), baliteke langile batek bere kategoriatik beherako eskakizunak eta ordainsariak dituen enplegu batean lan egin behar izatea.


Era berean, dauden lanpostu hutsak betetzeko enpresek duten zailtasuna langileek eskainitako profilen eta enpresek eskatutako profilen arteko desorekaren isla da. Gainera, horri guztiari zahartze demografikoa gehitu behar zaio. Zahartze horrek are gehiago zailtzen du nahi den lan-profila bilatzea, eta gero eta pentsiodun gehiago eta jardunean dauden pertsona gutxiago egotea eragiten du. Ondorioz, pentsio baten hartzaile bakoitzeko kotizatzaileen ratioa jaitsi egin zen 2024ko abenduan, 1,94ra, Estatuko batez bestekoaren azpitik (2,29)

Enpleguaren bilakaera hezkuntza mailaren arabera. 2024. urtea
25. irudia

Enplegu tasa. Gizonak



Enplegu tasa. Emakumeak




Iturria: INE.


Azpimarratzekoa da enpleguaren kalitatea hobetu egin dela, bai gizonen artean, bai emakumeen artean. Zehazki, emakumeen behin behinekotasun tasa %25,1etik %22,2ra jaitsi zen, eta gizonena, berriz, 2023an %18,2tik 2024an %16,7ra. Hobekuntza 2021etik aurrera berretsi zen, behin lan-erreforma onartuta; horrela, Euskadiko aldi baterako kontratuen proportzioa (%19,4) pixkanaka euroguneko batez bestekora (%14,4) hurbiltzen ari da. 2025eko lehen hiruhilekoan beheranzko joera horri eutsi zaio, eta %18,6ra iritsi da.

Aldi baterako enplegu tasa soldatapeko guztiekiko
26. irudia

Gizonak




Emakumeak




Iturria: Eustat.

Lanaldi partziala duten landunek okupatu guztiekiko
27. irudia

Gizonak



Emakumeak



Iturria: INE.

Bestalde, lanaldi partzialeko enpleguak, kasu askotan lan prekarietatearen adierazletzat hartzen denak, sarritan borondatearen aurkakoa izateagatik, eragin nabarmena izan zuen berriro Euskadin 2024an. Erkidegoa izan zen berriro ere Estatuko rankingaren buru kontratu-modalitate horren pean okupatutako pertsonen proportzioari dagokionez. Zehazki, lanaldi partzialeko enplegatuen ehunekoa %16,2koa izan zen 2024aren amaieran, 2023an erregistratutako %16,1 baino zertxobait handiagoa. Zifra hori Estatu osoko batez bestekoaren (%13,6) gainetik geratu da aurten ere.


Beste behin ere, emakumeak izan ziren modalitate horren eraginpean nagusi, eta horietako askok lanaldi murrizketak izan zituzten lana eta familia uztartu ahal izateko. Genero arrakala hori, jada esanguratsua, handitu egin zen azken urtean: lanaldi partzialeko enplegua zuten gizonen ehunekoa %7,5etik %7,3ra jaitsi zen bitartean, emakumeen kasuan %25,6tik %25,8ra igo bait zen.

Desberdintasun hori azaltzen duen faktoreetako bat lanaldi partzialeko enplegua ohikoagoa den sektoreetan emakumeen gehiegizko ordezkaritza da, hala nola etxeko lanetan, garbiketan, ostalaritzan, merkataritzan, administrazio- eta jolas-jardueretan. Gainera, emakumeek beren gain hartzen dituzte, oraindik ere, familia-zaintzaren ardura gehienak, eta horrek mugatu egiten du lanaldi osoko enpleguak lortzeko prestasuna, eta indartu egiten du lanaldi murriztuen kontzentrazioa. Bilakaera horrek agerian uzten du lan denboraren banaketan eta zaintza arduretan dauden egiturazko desberdintasunei aurre egiten jarraitzeko beharra.

Lehen aipatutako enpleguaren portaera onari esker, langabeen kopuruak beheranzko joerari jarraipena eman zion. Hain zuzen ere, azken urtean lan egin nahi zuten 79.000 pertsonak baino gutxi batzuk gehiagok ez zuten lanik lortu, 2008tik jaso den kopururik txikiena baita, urte horretan ez baitzen 40.000 lagunetara heltzen. 2023an ez bezala, langabeziaren jaitsiera nabarmenagoa izan zen gizonen artean (-%6,2) emakumeen artean baino (-%1,5).


Horren ondorioz, langabezia tasak 2021ean hasitako beheranzko bideari eutsi zion, %7,4 inguruan kokatuz, euroguneko batez bestekotik oso hurbil. Gizonezkoen langabezia tasa %7,6tik %7,1era jaitsi zen eta emakumezkoena %8,0tik %7,8ra. Bestalde, gazteen langabezia-tasak bere bilakaera positiboa berretsi zuen, %13,2an kokatu baitzen, 2020an erregistratutako %25,3aren oso azpitik, gazteen laneratzean etengabeko hobekuntza isladatuz.

Langabezia tasaren bilakaera EAEn
28. irudia



Oharra: Serie hauek ez dira guztiz homogeneoak hainbat urteetan metodologia aldaketak egin zirelako.
Iturria: Eustat eta INE.

Langabezia tasaren bilakaera sexuaren arabera EAEn
29. irudia




Oharra: Serie hauek ez dira guztiz homogeneoak hainbat urteetan metodologia aldaketak egin zirelako.
Iturria: Eustat.


Hain zuzen ere, goi-mailako hezkuntzako prestakuntza mailak jarraitzen du izaten langabezia-tasarik txikiena, gizonen kasuan % 4,4koa eta emakumeen kasuan % 5,7koa. Era berean, bigarren etapa profesionaleko langabezia tasak onak dira, eremu teknologikoan gertatzen ari diren eraldaketak ikasketa-maila horrekin lotutako lanpostuen eskaria ahalbidetzen baitu.

**Langabeziaren bilakaera hezkuntza mailaren arabera. 2024. urtea
30. irudia**

Langabezia tasa. Gizonak



Langabezia tasa. Emakumeak



Iturria: INE.

Kontratazio globalaren joera positiboaren aldean, kontratu mugagabeen beherakada aipatu behar da, %5,5 egin baitute atzera iazko kopuruekin alderatuta; zehazki, 2023ko 162.617 kontratutik 2024ko 153.700 kontratura pasatu dira kontratu guztien %21a osatuz. Kontratu finko horien artean 72.000 inguru lanaldi osokoak izan ziren, hau da, sinatu ziren kontratu mugagabe guztien %46,9. Bestalde, %20,4 aldizkako langile finkoak dira (31.000 pertsona baino gehiago) eta lanpostua bermatuta dute, naiz eta urteko hilabete batzuetan lanik ez egin.

Azkenik, aipatzekoa da lanaldi partzialeko kontratuak % 13,0 gehitu direla. Bilakaera horrek, INEk okupazioari buruz emandako datuen ildotik, enplegu mota horren hazkundera erakusten du, eta lanaldi moeta honetan emakumeen gehiengoa dela eta erronka bat suposatzen du genero berdintasuna lan merkatuan garatzerako orduan.

Erregistratutako lan kontratuen bilakaera
19. taula

	Kontratuak		Urte arteko aldakuntza tasa (%)				
	2024	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Guztira	729.874	0,7	-30,3	21,7	-6,9	-8,4	3,3
Lanaldi osoko mugagabeak	72.135	-10,8	-29,5	31,3	155,3	9,9	-4,8
Obra edo zerbitzukoak	0	-2,4	-28,9	12,0	-81,9	-	-
Abagunekoak	232.793	4,5	-29,8	22,7	3,5	-7,6	2,3
Lanaldi laburrekoak	291.328	2,6	-34,2	26,0	-3,5	-18,6	13,0
Prestakuntzakoak (*)	6.440	-17,2	-35,7	50,9	-5,0	-10,0	0,8
Gainontzekoak	127.178	-5,9	-18,5	15,3	10,6	27,4	-8,4

(*) Prestakuntzako kontratuetan, lanaldi laburreko praktika kontratuak sartzen dira.


Iturria: Ekonomia Zuzendaritzak egina, Enplegurako Estatuko Zerbitzu Publikoaren (SEPE) datuak erabiliz.

Soldata desberdintasuna murriztea

Soldatei buruzko estatistikak berandu samar argitaratzen dira. Horregatik, txosten hau idazterakoan, 2008-2023 aldiari buruzko informazio zehatza baino ez dugu, INEk soldaten egiturari buruzko inkestan argitaratua. Inkesta horren arabera, batez besteko soldata %3,7 igo zen 2023an, aldi osoko igoerarik handiena 2022 urtea kenduta, urte horretan %4,0 igo baitzen. Horri esker, 2023ko batez besteko soldata nominala 2008an erregistratu zena baino %31,1 handiagoa izan zen. Urte horretan hasi zen estatistika-serie hori eta Atzeraldi Handia izenez ezagutzen den finantza krisia urte horretan bertan hasi zen.

Soldata arrakalaren bilakaera eta denboran zehar izan duen zuzenketa aztertzeko, adierazi behar da soldata-igoera handiagoa izan zela emakumeentzat (%5,9) gizonentzat baino (%1,4), eta aipatutako aldi osoko metatutan emakumeen batez besteko soldata %42,6 igo dela, eta gizonena, berriz, %26. Igoeren alde horri esker, soldata arrakala 10,2 puntu murriztu da, 2008an %23 izatetik 2023an 12,8 izatera igaro baita.

Batez besteko soldataren bilakaera Euskadin. 2008. urtea=100
31. irudia




Iturria: INE. Soldaten egitura.

2008 eta 2023 artean metatutako soldata hazkundeak alde nabarmenak erakutsi zituen diru-sarreraren mailaren arabera. Soldata banaketaren muturrek ibilbide desberdinak izan zituzten. Horrela, 10. pertzentilak (soldata baxuenak dituen %10) ia ez zuen hobekuntzarik izan 2008 eta 2018 artean. Izan ere, haien batez besteko soldata hamarkada bat lehenagokoa baino pixka bat txikiagoa izan zen. Hala ere, 2018tik aurrera, eta hein handi batean Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren (LGS) igoerei esker, egoera hori aldatu egin zen. 2023an, talde horren batez besteko soldata 2008ko maila baino %36,2 handiagoa izatera heldu zen. Aldiz, 90eko pertzentilak, diru-sarrera handienak dituen %10 biltzen duenak, bilakaera egonkorragoa eta jarraituagoa izan zuen. 2008tik, batez besteko soldata %32,1 hazi zen, gorabehera handirik gabe.

Hala ere, LGSaren hobetzeak ez zien onura bera ekarri soldata tarte guztiei. Beheko kuartilak (soldata baxuenak dituen %25) batez besteko soldata %29,2 igo zuen aldi osoan. Honekin alderatuz, goiko kuartilak (diru-sarrera handienak dituen %25) %32,9ko hazkundera izan zuen. Bestalde, soldata mediana banaketaren balio nagusia da, eta soldata tipikora hurbiltzen da. Hau, %30,4 hazi zen 2008 eta 2023 artean. Igoera hori goiko kuartilarena baino txikiagoa izan zen, baina beheko kuartilarena baino handiagoa.

Soldataren bilakaera Euskadin. Pertzentilak. 2008. urtea=100
32. irudia




Iturria: INE. Soldaten egitura.

Genero-ikuspegitik, LGSa hobetzeak mesede handiagoa egin die soldata txikiagoak dituzten emakumeei gizonen baino. Zehazki, 2018. urtera arte, 10 pertzentilean zeuden emakumeen batez besteko soldata 2008koa baino handiagoa ez izateaz gain, %8,3 murriztu zen, eta pertzentil bereko gizonena, berriz, %8,4 igo zen. Hala ere, data horretatik 2023ra hobekuntza nabarmena gertatu da bi taldeetan, baina bereziki emakumeen artean. Emakumeen kasuan, 2008. eta 2023. urteen artean, 10. pertzentilaren igoera metatua %32,4 izan da; gizonen kasuan, berriz, %20,5.


Kuartilen arabeko azterketak adierazten du beheragoko kuartilak batez bestekoak baino jarduera txarragoa izan duela, bai emakumeen kolektiboan (horien batez besteko soldata emakumeen batez besteko igoera baino 9,2 puntu gutxiago igo zen), bai gizonenean (batez bestekoaren igoera baino 5,7 puntu gutxiago). Beraz, soldata-pertzepzioen desberdintasuna handitu egin da

Soldataren bilakaera Euskadin. 10 pertzentila. 2008. urtea=100
33. irudia

10 pertzentila. Emakumeak




10 pertzentila. Gizonak




Iturria: INE. Soldaten egitura.

Soldataren bilakaera Euskadin. 90. pertzentila. 2008. urtea=100
34. irudia

90 pertzentila. Emakumeak



90 pertzentila. Gizonak




Iturria: INE. Soldaten egitura.

Espektroaren beste muturrean, igoera nabarmenak izan zituen bai emakumeen bai gizonen 90. pertzentilak. Emakumeen kasuan, %46,5eko igoera izan da 2008tik 2023ra bitarteko aldi osoan, batez besteko %42,6ko igoeraren gainetik. Gizonen kasuan berriz, %27,6koa izan da igoera, batezbestekoa baino 1,6 puntu handiagoa. 2023 urteari dagokionez, talde horien urte arteko igoera %4,5koa izan zen emakumeen kasuan eta %1,0koa gizonen kasuan.

Azken urteetan ikusitako soldata bilakaera desberdinek genero-arrakala pixkanaka murrizten lagundu dute. 2008an, emakumeen urteko batez besteko soldata 21.766 eurokoa zen, eta gizonena, berriz, 28.264 eurokoa, hau da, 6.498 euroko aldea zegoen. 2023an, hamabost urte geroago, alde hori 4.561 eurora murriztu da, batez besteko soldatak 31.039 eurokoak emakumeentzat eta 35.600 eurokoak gizonentzat izanik.

Urteko batez besteko irabazia lan egindako langile bakoitzeko (euro ez.) eta soldata-arraila (% esk.)
35. irudia




Iturria: INE. Soldaten egitura.

Hobekuntza hau ehuneko terminoetan ere islatzen da. Soldata arrakala, 2009an %22,1ekoa zena, krisi ekonomikoaren urte gogorrenetan handitu egin zen, 2012an %25,8ra iritsiz. Hau emakumeen

batez besteko soldata apur bat jaitsi zelako izan zen (-%0,8), eta gizonen soldata %4 igo zelako. Ordutik aurrera, aldea pixkanaka murrizten hasi zen, 2018an %22,6an kokatuz. Mugarri garrantzitsua izan zen 2019an Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren igoera, sektore feminizatuenei bereziki mesede egin ziena. Urte horretan, emakumeen batez besteko soldata %5,8 igo zen, eta horrek soldata arrakala hiru puntu ehunekotan murriztea ahalbidetu zuen. Ondorengo urteetan, beheranzko joerak jarraitu zuen, eta 2023an arrakala %12,8an kokatu zen, seriearen hasieratik izandako mailarik baxuenean.

Era berean, gizonen eta emakumeen jarduera tasak nabarmen konbergitu dira azken bi hamarkadetan Euskadin, bereziki biztanleria aktiboaren adin tarte altuetan, parte hartze arrakala %6,4ra murriztuz 2023an. Azalpen nagusiak emakumeen Hezkuntza mailaren igoera eta “langile gehigarriaren efektua” izan dira, Hau da, emakumeak lan merkatuan sartzea bikotekideen enplegu galeraren ondorioz, krisi ekonomiko handian gertatu zen fenomeno.

16-64 urteko biztanleriaren jarduera tasaren arrakala (ehuneko puntuak).
36. irudia



EB datuak 15-64 urte bitarteko biztanleak dira
Iturria: INE. Soldaten egitura.

Hala ere, azken urteetan jarduera tasen arteko aldea nahiko egonkor mantendu da, eta horrek parte hartze arrakalan egitura zoru bat dagoela adierazten du. Azpiko arrazoietakoa bat amaizatearen zigorra litzateke, izan ere, 35 eta 44 urte bitarteko seme alaba duten emakumeen jarduera tasa 20 puntu ehunekotan txikiagoa da seme alaba duten adin bereko gizonen aldean; aldea %6ra murrizten da seme alabarik gabeko adin bereko biztanleen artean.

1.4 Prezioak

Prezioen analisiari dagokionez, eta BPGaren deflatoretik hasita, adierazle hori 2023an %4,1 izatetik 2024an %2,8 izatera igaro zen, azken urteetan kokatua zen %4 ingurutik nabarmen beheratuz. Hazkunde txikiago horretan parte hartu zuten adierazlea osatzen duten elementu guztiek, eta esportazioaren eta inportazioaren deflatoreen bilakaera nabarmendu behar da, bi kasuetan %1,0tik beherako tasak izan baitziren. Nazioarteko merkataritzak izan zituen zailtasunek enpresak salmentako prezioei eustera behartu zituzten. Aitzitik, zerbitzuen deflatorea izan zen moteltzeko joerari gehien aurre egin ziona, kanpoko lehiaren mende gutxien dagoen eta eskari handia duen sektorea delako.

Prezioen analisisia KPIarekin jarraituz, 2024. urtean pauso berriak eman ziren inflazioa kontrolatzeko helburuan. Izan ere, 2022an tasa oso altuak jaso eta gero, 2023an zehar igoerak apaltzeko bidea hartu zen, eta 2024aren amaierarako moteltzeko joera hori %3,1eko inflazio orokorrarekin kontsolidatua zen, eta, ondoren, 2025eko lehen seihilekoan, inflazioa %2,0ko helburutik oso gertu geratu da. Prezioen igoerak neurritsuak izateko joera orokor hori produktu talde gehienetan hauteman da, nahiz eta haietako batzuek aldaketa nabarmenagoak izan dituzten. 2024an zehar inflazioak izan zuen bilakaera, oro har, lineala izan zen, aipatutako prezioen igoera neurritsuarekin bat etorritik. Salbuespena uztaila eta iraila izan ziren, hilabete horietan hamarren batzuk jaitsi baitziren. Ekonomiak pandemia eta ondorengo susperraldia atzean utzi ahala, prezioen igoerek bilakaera egonkorragoa erakutsi dute.

Produktu batzuk, hala nola energia, 2023an biziki merkatu ziren eta orain igoera tasa neurritsuak izan dituzte, eta elikagaiek, aldiz, 2023an oso inflazionarioak izan baziren ere, igoera askoz ere geldiagoak izan zituzten 2024an. Beraz, energiari eta elikagaiei eutsi izanari esker, 2024an inflazioak izandako bilakaerak, %2tik gora mantendu bazen ere, balio apalagoetan egonkortzeko joera argia erakutsi zuen.

Petrolioaren prezioak 82 dolarren inguruan hasi zen pasa den urtean eta 87 dolarretara iritsi zen martxoan, balio gorena ezarriz. Harez geroztik, prezioa motelduz joan ziren urtea 75 dolarren inguruan amaitu arte. 2025ean igarotako hilekoetan, upelaren prezioek jaisten jarraitu dute, munduko eskariaren ahuleziaren eta herrialde ekoizleek eskaintza handiagoa izatearen ondorioz. Hala eta guztiz ere, apirilean 61 dolarrera iritsi ondoren, ekainean 67 dolarreraino igo ziren berriro, Ekialde Hurbilean sortu diren tentsio geopolitikoengatik upelen hornidura etengo ote den beldur zirelako.

Kontsumoko prezioen indizearen banaketa
20. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Inflazioa guztira	1,0	-0,1	3,1	8,0	3,6	3,1
Azpiko inflazioa	1,0	0,8	1,0	5,1	6,2	3,2
KPI landutako elikagaiak	0,6	1,7	1,4	10,2	12,5	4,6
KPI industriako ondasunak	0,3	0,3	1,0	4,7	4,7	1,2
KPI zerbitzuak	1,6	0,7	0,7	3,3	4,3	3,5
Hondarreko inflazioa	0,7	-4,0	12,0	19,5	-6,4	2,6
KPI landugabeko elikagaiak	1,3	4,0	2,6	10,8	7,3	4,0
KPI energia	0,3	-9,4	20,9	26,6	-17,0	1,0

Iturria: INE.

Era berean, gas naturalaren prezioak maila neurritsuetan mantendu ziren 2024an zehar, nahiz eta goranzko joera leuna erakutsi zuten. Hori horrela, lehengai horren prezioa modu nabarmenean igo zen, 2024ko urtarrilean MWh-a 30 euro ingurukoa izatetik urte bereko abenduan MWh-a 48 eurotik pixka bat gora erregistratzeraino. European eguraldi txarraren ondorioz eskaria handitu egin zen eta gas natural likidotuaren horniduran arazoak agertu ziren. BI arrazoi horien ondorioz, prezioak goranzko joerari eutsi dio 2025. urtea hasi ondoren, eta 50 euro MWh baino gehiagora iritsi da, baina apirilaren amaierarako prezioa 30 euro MWh inguruan kokatu zen berriro.

Aurreko guztiaren ondorioz, hondar inflazioa osatzen duten elementu hegazkorrenak igoera nahiko neurritsuak izan zituzten 2024an. Alde batetik, landu gabeko elikagaiek, tentsio logistiko globalen

eta Ukrainako gerraren ondoren nazioarteko merkatuak pixkanaka-pixkanaka normalizatu ondoren, %4,0ko igoerak bakarrik izan zituzten, 2022an eta 2023an, hurrenez hurren, erregistratutako %10,8 eta %7,3rekin alderatuta. Beste aldetik, energiak, 2023an egin zuen bezala merkatu ez bazen ere, oso igoera neurritsuak izan zituen (%1,0) 2024an. Horri guztiari esker, hondar-inflazioa %2,6koa izan zen.

EAEko kontsumo prezioen indizea
21. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Indize orokorra	1,0	-0,1	3,1	8,0	3,6	3,1
- Janariak eta alkoholik gabeko edariak	0,9	2,8	2,0	11,2	11,1	4,5
- Edari alkoholik eta tabakoa	0,3	0,2	0,4	4,3	7,0	4,3
- Jantziak eta oinetakoak	1,0	1,0	1,0	2,8	2,0	1,0
- Etxebizitza	-1,5	-3,3	11,3	15,8	-12,0	3,7
- Etxeko hornidura	1,0	0,5	1,9	6,6	6,0	1,5
- Medikuntza	0,4	0,5	0,8	0,6	2,3	2,7
- Garraioa	2,7	-3,6	7,2	11,2	0,3	0,9
- Komunikazioak	0,9	-1,1	-3,0	-1,2	3,2	0,1
- Aisia eta kultura	-0,2	-1,1	-0,1	3,2	4,6	2,4
- Irakaskuntza	1,0	1,1	0,9	1,6	1,9	2,3
- Hotelak, kafeak eta jatetxeak	1,9	1,2	1,2	6,0	6,2	4,3
- Besteak	1,6	0,9	1,3	3,8	5,4	3,7

Iturria: INE.


Azpiko inflazioari dagokionez, adierazle hori %3,2an kokatu zen pasa den urtean, inflazio orokorra baino zertxobait gorago (%3,1). Indize orokorra baino igoera handiagoa izateak adierazten du ezen, energiaren prezioak eta zenbait elikagai produkturenak moteldu ziren arren, oinarrizko ondasun eta zerbitzuen prezioek erritmo iraunkorrean garestitzen jarraitu zutela, lan kostuen gorakadak, kontsumoaren sendotasunak eta metatutako beste kostu batzuen transmisioak bultzatuta, hala nola zerbitzuetan, etxebizitzan eta elikagai landuen atalean. Izan ere, landutako elikagaien

salneurriak %4,6 igo ziren eta zerbitzuenak, berriz, %3,5. Industriaren ondasunak, aldiz, %1,2 baino ez ziren garestitu.


Taldekako azterketan, elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak dira inflazio tasa altuena jaso direnak, %4,5ko hazkunde tasa batekin, eta gero jatetxeak eta hotelak, %4,3ko garestitzea jasota. Elikadurak, aurreko bi urteekin alderatuta nolabaiteko moteltzea izan bazuen ere, metatutako kostuen inpaktua islatzen jarraitzen du, eta ostalaritzaren sektoreak, berriz, lan kostuen eta lehengaien kostuen igoera azken prezioetara eramaten jarraitzen du, eskaria etengabe suspertzen ari den testuinguru batean. Etxebizitzaren kasuan, uraren eta elektrizitatearen atala, prezioen %3,7ko igoerarekin, 2023an prezioak merkatzetik 2024an eurogunekoaren gainetik garestitzera igaro da.

KPIaren bilakaera 37. irudia

Indize orokorra: EAE



Indize orokorra: Eurogunea



Iturria: INE eta Eurostat.


Prezioen hazkunderik txikiena izan zuten taldeak hauek izan ziren: komunikazioak (%0,1), garraioa (%0,9) eta jantziak eta oinetakoak (%1,0). Komunikazioen kasuan, prezioen egonkortasuna sektoreko lehia gogorraren ondorio da, nahiz eta prezioak Europako prezioen gainetik hazten

jarraitzen duten. Garraioak bilakaera neurritsua erakutsi zuen, petrolio gordinaren prezioa egonkortu egin zelako eta garraio publikoa bultzatzeko politikak garatu zirelako.


2025eko lehen sei hilekoan, kontsumoko prezioek igoera neurritsuekin jarraitu dute, eta 2025eko maiatzean %2,4ko igoera markatu zuten, %2,0ko helburutik gero eta gertuago. Kontsumoko prezioak gehiegi ez igotzeko neurri fiskalak kendu diren arren eta ziurgabetasun globala areagotu den arren, oro har, inflazioa kontrolatuta egotetik gertu dago, bai Euskadin, bai eurogunean, lurralde horretan izan baita moderazio handiena. Hala eta guztiz ere, petrolio gordinaren prezioek eta hornikuntza kate globalen normalkuntza progresiboak (2025eko hasiera honetan inflazio presioei eusten lagundu dute) edozein unetan bere eragina irauli dezakete, nazioarteko ingurune geopolitiko baten aurrean, zeinak, egonkortu beharrean, tentsio foku berriak pilatzen baititu. Aurrekoaz gain, euroa dolarren aurrean lortu duen balio irabaziak ere lagundu du prezioen igoerei eusten, batez ere inportazioen bidez.

EAEren eta Eurogunearen arteko inflazio tarteak. 2024ko batez besteko balioak
38. irudia

Indize orokorra: EAE



Indize orokorra: Eurogunea



Iturria: INE eta Eurostat.

Industriako prezioei dagokienez, IPRIk beheranzko joera esanguratsua erakutsi zuen 2024an. Hain zuzen ere, 2022an serie historiko osoko hazkunderik handiena markatu ondoren (%20,0), 2023an

balio negatibotan kokatu zen, eta 2024an, energiaren prezioen jaitsierak (-%22,0) eta hornidura kateen tentsionamendu txikiagoak lagunduta, %4,0ko jaitsiera gehigarria ekarri zuten. IPRI osatzen duten gainerako taldeek, bitarteko ondasunek izan ezik, aldakuntza tasa positiboak eta %3,0tik gorakoak jaso zituzten. 2025. Urteko hasieran, igoera neurritsuak jaso dira eta, KPlarekin gertatu den bezala, intentsitatea galtzen joan dira, eta IPRIa maiatzean berriro eremu negatiboan kokatu zen, -%1,9ko aldaketarekin.

EAEko industriako prezioen indizea
22. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Indize orokorra	1,4	-3,1	7,3	20,0	-2,6	-4,0
- Kontsumoko ondasunak	-0,3	1,9	2,8	6,6	8,5	3,5
- Kontsumo iraunkorrak	1,9	0,9	1,8	5,2	2,7	4,5
- Kontsumo iragankorrak	-0,7	2,1	3,0	7,0	10,0	3,2
- Ekipamendu ondasunak	1,6	0,8	0,1	4,2	4,7	3,8
- Bitarteko ondasunak	0,0	-0,5	7,1	16,5	0,0	-1,4
- Energia	5,0	-15,1	20,6	57,9	-17,6	-22,0

Iturria: Eustat.

Negoiazio kolektiboari dagokionez, 2024ko amaieran izandako bilakaera positiboa nabarmendu behar da. Hitzarmen kolektiboak sina zitzaketen langileen %67,7k akordio eguneratuak zituzten, eta %4,6k baino ez zituzten hitzarmen indargabetuta eta estaldurarik gabeak. Datu horiek emaitzarik onenak dira konparaziorako serie homogeen bat dagoenetik (2012tik aurrera, lan merkatuaren erreforma onartu zen urtetik aurrera), bai hitzarmenak indarrean dituzten pertsonen ehunekoari dagokionez, bai estaldurarik ez dutenen kopuru txikiari dagokionez.

Garrantzitsua da adieraztea negoziazio kolektiborako akordioak sina ditzakeen langile horiek ez dituztela funtzionarioak eta langileak hitzarmen bidez arautu gabeko jardueretan sartzen, baina lan kontratua duten langile publikoak sozietate publikoetan sartzen dituzte. Hitzarmen bidez arautu gabeko jarduerak 48.000 pertsona inguru bildu zituzten, gehienak emakumeak (%79,5), eta etxeko zerbitzuko enplegua nabarmendu zen. Aitzitik, negoziazio kolektiboaren mendeko soldatapekoek banaketa orekatuagoa izan zuten sexuaren arabera (%55,6 gizonak eta %44,4 emakumeak).

Negoiazio kolektiboari lotutako pertsona guztietatik, %68 inguru EAEko esparruko hitzarmenen bidez arautzen dira, eta %32 inguru, berriz, Estatuko hitzarmenen bidez.

Zehazki, 2024an 295 hitzarmen erregistratu ziren, eta horrek 101.773 pertsonarentzako lan baldintzak berritzea ekarri zuen. 2024an aurreko urtean baino pixka bat hitzarmen gutxiago erregistratu ziren arren, 2023an 388.641 langile zeuden indarraldi arrunteko hitzarmenetan, eta 2024an, berriz, 436.652 langile. Horrek erakusten du negoziazio kolektiboaren estaldura handitu egin dela. Igoera hori gizonen eta emakumeen artean gertatu zen. Hala, gizonen ehunekoa, indarrean dituzten hitzarmenekin, 2023an %68,1 izatetik 2024an %71,4 izatera igaro zen, eta emakumeena, berriz, 2023an %58,2 izatetik 2024an %63,0 izatera pasa zen.

Azkenik, adierazi behar da 2024rako indarrean zeuden hitzarmenetan adostu zen batez besteko soldata igoera %3,4 izan zela, aurreko bi urteetan erregistratutako igoeren azpitik. Halaber, urtean zehar sinatutako hitzarmenetan finkatutako igoera %3,7koa izan zen, 2023ko datua baino puntu bat txikiagoa, eta aldi horretako inflazioaren portaerarekin nahiko lerrokatuta. Beste ezaugarri gehigarri bat da sektoreko hitzarmenen batez besteko hazkundea (%3,4) enpresa mailako hitzarmenena (%3,2) baino pixka bat handiagoa izan zela.

Hitzarmenetan adostutako soldata igoerak

23. taula

	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Indarrean dauden hitzarmenak	2,0	1,7	1,2	4,1	4,2	3,4
- Urtean zehar sinatutakoak	2,3	1,2	1,1	4,1	4,7	3,7
Negoiazio esparruaren arabera:						
- Sektoreko hitzarmenak	2,1	1,7	1,0	3,9	4,3	3,4
- Enpresako hitzarmenak	1,8	1,7	1,9	4,7	4,1	3,2


Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

1.5 Lehiakortasuna eta lan kostuak


2024an, Euskadin langile bakoitzeko lan kostuak %2,3 hazi ziren urte arteko tasan, INEren Lan Kostuen Hiruhilekoko Inkestaren (LKHI) arabera. Hazkunde hori 2023an izandako igoeraren ia erdia da, eta horrek adierazten du lan kostuen igoeraren erritmoa moteldu egin dela.

Lan kostu osoa langile bakoitzeko 2019-2024
39. irudia

Urte arteko aldakuntza tasak



Batez besteko euroak



Iturria: LKHI-INE

Igoera hori, aurreko bi urteetan bezala, maila apalean mantendu da, eta beste eskualde batzuetan ikusitakoen azpitik, hala nola Espainian (%4,0), Madrilan (%4,8) edo Nafarroan (%3,8). Aipatutako %2,3ko hazkunde orokor horren barruan, eraikuntzaren sektorea izan zen kostuen hazkunderik handiena izan zuena (%4,3); ondoren, industria (%3,4) eta zerbitzuak (%2,0) datoz, horiek ere aurreko urteetako joerarekin bat etorritik.


Hazkunde erritmo hori txikiagoa izan arren, Euskadi lan kostu handienak dituen autonomia erkidegoetako bat izan zen 2024an, langile bakoitzeko 3.523 euroko batez bestekoarekin. Zenbateko hori Madrilak bakarrik gainditu zuen (3.711 euro), eta Nafarroaren gainetik kokatu zen argi eta garbi (3.364 euro). Estatuko batez bestekoaren (3.113 euro) %13 gainera ere badago.

Lan kostu osoa sektoreko langile bakoitzeko. Urte arteko aldakuntza tasak
40. irudia

Alderaketa 2019-2024



Alderaketa Euskadi-Espainia




Iturria: LKHI-INE

Nazioarteko ikuspegitik, eta AMECOn eta Eustaten kalkuluen arabera, Euskadin lan egindako ordu bakoitzeko batez besteko lan kostuak urte arteko %3,0ko igoera izan zuen 2024an, eta horrek eskualde-mailan ikusitako moderazio joera indartzen du. Tasa hori 2023koa baino 1,7 puntu txikiagoa da, eta 2022ko hazkundearen 2,3 puntu txikiagoa; horrek dezelerazio argia berresten du. Erreferentziazko beste ekonomia batzuekin alderatuta, Euskadiko hazkundera nabarmen txikiagoa izan zen Europar Batasuneko (%5,5), Espainiako (%5,8) eta Alemaniako (%5,8) baino.

Pandemiak eta Ukrainako 2020tik 2023ra bitarteko gerrak eragindako shocken ondoren, ekonomia nolabaiteko normaltasuna berreskuratzen hasi da, eta hori produktibitate datuetan ere islatzen da. 2024an, Euskadin lan egindako ordu bakoitzeko lan produktibitateak %0,7ko urte arteko hazkundera izan zuen, 2023koa baino txikiagoa eta 2022an ikusitako gorakada handiaren oso azpitik. Datu hori bat dator epe luzerako hazkunde joera neurritsuago eta iraunkorrago batekin, Europar Batasun osoan (%0,3) eta Espainian (%1,2) ikusten denaren antzekoa.

Batez besteko lan kostua orduko.2022-2024. Urte arteko aldakuntza tasak
41. irudia




Iturria:Ekonomia Zuzendaritzak egin a AMECOn eta Eustaten datuak erabilia.

Hala ere, kontrastea nabarmenagoa da Europako ekonomia batzuekin, hala nola Alemaniarekin eta Austriarekin, produktibitateak bilakaera ahulagoa edo geldoagoa izan baitu. Aitzitik, Estatu Batuek ustekabeen harrapatu zuten 2024an %2,2ko hazkunde tasa nabarmenarekin, eta horrek indartu egin zuen bere posizioa lan eraginkortasunari dagokionez ekonomia dinamikoenetako bat bezala.


Azterketa 2019-2024 aldira zabalduz gero, Euskadik bilakaera sendoa du produktibitateari dagokionez. Lan egindako ordu bakoitzeko neurtuta, produktibitate metatua %4,3 hazi da 2019arekin alderatuta, eta landuneko hazkundera, berriz, %2,6. Ibilbide horrek Euskadi Europako batez bestekoaren gainetik eta kontinenteko ekonomia aurreratuenen ildotik kokatzen du. Hala ere, Estatu Batuek bakarrik izan dute bilakaera positiboagoa bi adierazleetan, eta Europako ekonomiekiko arrakala handitu dute. Horrek egiturazko desberdintasunak nabarmentzen ditu lan merkatuaren egokitzapen gaitasunean eta eraginkortasunean.

Lan produktibitatea orduko
42. irudia



Iturria:Ekonomia Zuzendaritzak egina AMECOn eta Eustaten datuak erabilia.

Lan kostu nominala orduko
43. irudia



Iturria:Ekonomia Zuzendaritzak egina AMECOn eta Eustaten datuak erabilia.

2024an, Euskadiko unitateko lan kostu Nominalak (ULK) %2,2ko urte arteko hazkundea izan zuen, Europako ekonomia gehienetan ikusitakoa baino nabarmen txikiagoa. Portaera horrek euskal ekonomiaren lehiakortasunaren hobekuntza erlatiboa iradokitzen du, Europako homologoen aldean. Mailari dagokionez, Euskadiko ULKa Europar Batasuneko eta Estatu Batuetako batez bestekoaren gainetik dago pixka bat, eta Espainiakoaren ildotik, baina Alemaniaren eta Austriaren azpitik, eta horren arrazoia izan daiteke lan-kostu gehiago izatea eta ekoizpen efizientzia handiagoa izatea.

2019-2024 aldian, Euskadiko ULK nominalaren hazkunde metatuak Europako ekonomia gehienek baino ibilbide moderatuagoa izan du, eta Estatu Batuetakoen antzeko mailetan mantendu da. Bilakaera horrek soldaten moderazioa eta produktibitate irabaziak konbinatzen ditu, eta horiek euskal ekonomiaren lehiakortasuna babesten lagundu dute, inflazio tentsio handiek eta lan merkatuko egiturazko aldaketek markatutako nazioarteko testuinguru batean.

1.6 Arlo publikoa

Zerga itunduak

2024an, EAEk %0,5 handitu zuen diru bilketa, 2023arekin alderatuta, 18.310 milioi euro bildu baitzituen. Auzitegi Gorenaren epaia betetzeak eta, ondorioz, 1979ko urtarrilaren 1a baino lehen mutualitateetan kotizatu zuten pentsiodunei itzultzeak murrizketa handia ekarri du, eta horrek eragotzi du 2024rako aurreikusitako diru kopurua lortzea, 19.000 milioi euro ingurukoa baitzen. Hala eta guztiz ere, eta EAEko ekonomia azken urteetan izaten ari den hazkunde joera onaren luzapenari esker, lortutako diru bilketa oso positibotzat jotzen da, eta pandemiaren ondoren hasi zen urtez urteko igoeren joerarekin jarraitzen du.

Aurtengo urterako, foru aldundiek izaera sozialeko neurri berriak sartuko dituzte egungo zerga ereduan, zergen progresibitatea indartzeko eta gizarte kohesioa handitzeko. 2025erako 19.700 milioi eurotik gorako diru bilketa aurreikusten da.

Hautemandako bilakaera positiboa lan merkatuaren bilakaera onak ezaugarritzen duen testuinguru batean kokatzen da. Euskadik, gaur egun, Gizarte Segurantzako inoizko afiliazio maila handiena

milioi bat kotizatzaille baino gehiagorekin duen arren, eta nominen atxikipenek %7,7ko igoera izan zuten arren, adierazi behar da PFEZaren ondoriozko diru bilketa 2023an baino %1,6 txikiagoa izan zela, lehenago ere aipatu diren mutualistei egindako itzulketen ondorioz.

Zerga itunduen bilakaera

24. taula

Mila euro

	Diru-bilketa		Urte arteko aldakuntza (%)				
	2024	2019	2020	2021	2022	2023	2024
PFEZ	6.972.672	5,7	-1,1	8,2	6,3	9,0	-1,6
Sozietateen gaineko zerga	1.739.711	-11,7	-20,0	10,8	17,0	21,0	6,4
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	171.107	59,8	-2,0	22,5	74,3	65,9	-4,9
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	179.829	-7,4	-0,1	47,3	-15,1	4,1	13,1
Ondarearen gaineko zerga	197.469	-9,3	5,7	-3,2	-1,0	3,8	12,1
Kreditu entitateen gordailuen g/ zergak	29.493	-1,6	14,3	-0,4	4,8	3,1	-0,8
Energia elektrikoaren ekoizpenaren g/ zerga	22.728	-32,0	25,6	-17,1	-97,4	-	-
ZUZENeko ZERGAK GUZTIRA	9.313.009	1,6	-4,1	8,9	7,4	11,5	0,5
BEZ	6.873.547	3,3	-14,3	21,2	10,6	0,1	-0,8
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	192.187	1,7	-13,7	29,9	-2,2	-5,9	14,4
Egintza juridiko dokumentatuen g/ zerga	39.644	1,1	-24,6	14,3	10,8	-19,6	8,7
Garraiobide jakin batzuen g/ zerga bereziak	30.043	7,9	-42,9	26,2	22,4	9,8	10,2
Fabrikaz. zerga berezia. Bertoko kudeaketa	1.458.065	12,6	-17,1	14,6	-10,1	6,1	1,6
Aseguru sarien gaineko zerga	125.275	-0,3	1,1	31,2	7,5	5,1	6,0
Joko jardueren gaineko zergak	7.066	-5,9	10,0	-3,8	-29,9	43,0	6,9
Berotegi efektuko gasen gaineko zergak	9.327	-20,8	-7,1	13,4	39,2	9,4	91,0
Iraungitako zergak	(307)	70,2	96,3	25,9	98,2	-	-
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	8.893.618	5,0	-14,8	20,1	8,0	0,6	0,7
TASAK ETA BESTE. SARRERAK GUZTIRA	103.402	-7,5	-30,3	19,7	-60,7	213,5	-8,2
ITUNDUTAKO ZERGAK GUZTIRA	18.310.029	3,3	-9,8	14,4	7,3	6,3	0,5

Iturria: Foru aldundiak.


Analisia zuzeneko zergapetzearekin jarraituz, sozietateen gaineko zergak %6,4ko igoera lortu zuen. Aurreko urtearekin alderatuta, igoera 2023an erregistratutakoa baino pixka bat txikiagoa izan da, urte horretan diru bilketaren igoera oso handia izan baitzen 2022arekin alderatuta (%21), eta zifra absolutuetan 1.739,7 milioi eurokoa izan zen. Sozietateen gaineko zergaren bitartez bildu den diru kopurua modu iraunkorrean hazi da 2020tik, eta 2024an koronabirusaren aurreko mailak gainditu zituen. Are gehiago, krisi finantzarioaren aurreko mailetara hurbiltzen ari da poliki-poliki. Horrek adierazten du enpresak marjinak eta jarduera berreskuratzen joan direla aldi honetan zehar. Diru bilketa osoari egiten dion ekarpena %9 ingurukoa bada ere, zerga horrek izan duen hazkunde gero eta handiagoak nabarmen hobetu du EAEko enpresen osasun finantzarioa.

Zeharkako zergei dagokienez, BEZak, diru bilketaren bolumenaren arabera zerga figura nagusia baita, bilakaera ia egonkorra izan zuen, urte arteko hazkunde tasa %0,8ra mugatu baitzen. Egoera 2023koaren antzekoa da; izan ere, kontsumoa sendo hazten ari den arren, 2022aren amaieran elikadurako oinarritzko produktu jakin batzuetarako eta energiaren arlorako (elektrizitatea, esaterako) onartu ziren tasen murrizketak bere horretan mantendu ziren, eta diru bilketa ez zen nabarmen handitu.

Azkenik, zerga berezien bitartez lortu zen diru bilketa %1,6 handitu zen aurreko urtekoaren aldean, ez hainbeste modu efektiboan bildu zelako, baizik eta foru aldundiek Estatuari ordaindu zioten diru kopurua 2023ko zifra baino 25,3 milioi euro txikiagoa izan zelako. Doikuntza hori alde batera utzita, atzerakada txiki bat hauteman da, batez ere hidrokarburoen gaineko zergaren portaera negatiboari egotz dakiokeena.

Diru bilketaren hazkundera nolabaiteko geldialdia ezagutu zuen 2024. urtean, %0,5 bakarrik handitu baitzen, azken bi urteetan lortu ziren tasetatik (%7,3 eta %6,3, hurrenez hurren) nahiko urrun, eta, ondorioz, diru bilketa hori, aurreko urteetan ez bezala, non BPGaren %20 inguruko pisuak mantentzen zituen, BPGaren %18,8ra jaitsi zen. Gauza bera gertatu da PFEZarekin, %8 inguruko bilketa pisutik %7,2ra igaro baita. Mutualistei egindako itzulketen eragina alde batera utziz gero, bai diru bilketa osoak bai PFEZaren bitartez lortutakoak BPGaren gaineko pisuak aurreko urteetakoetatik askoz hurbilago izango zituzketen. Bestalde, BEZaren protagonismoa %7,6tik %7,1era jaitsi zen, aipatutako tasen murrizketek eraginda. Sozietateen gaineko zergak %1,8an mantendu du bere pisu egonkorra.

Zerga nagusien diru bilketa 2005-2024. BPGaren %a
44. irudia




Iturria: Ekonomia Zuzendaritzak egina, Eustaten eta foru aldundien datuak erabilia.

Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien jarduera ekonomikoa

2024an, Eusko Jaurlaritzaren diru sarreraren aurrekontua 14.272 milioi eurokoa izan zen, hau da, aurreko ekitaldian baino %1,8 gehiago. Termino erlatiboetan, bolumen hori BPGaren %14,7 izan zen, eta 2023an, berriz, %15,1. Sarrera arruntak 13.185 milioi eurokoak izan ziren, %1,5eko hazkundearekin, BPGaren hazkundera (%4,9) baino txikiagoa. Ondorioz, BPGaren gaineko pisu erlatiboa %14tik %13,6ra jaitsi zen, aurrekontu osoaren %92,4.

Sarrera arrunten barruan, foru aldundien ekarpenak (transferentzia arruntak) 12.288 milioi eurokoak izan ziren, hau da, BPGaren %12,6, eta %1,7ko hazkundera izan zuten 2023arekiko. Bestalde, Estatuko Administrazio Zentralaren transferentziak 34,8 milioi eurotan murriztu ziren, 440 milioi eurotan kokatuz, %7,3ko jaitsiera suposatuz. Aitzitik, Eskualde Garapeneko Europako Funtsetik (EGEF) eta Europako Gizarte Funtsetik (EGIF) etorritako diru-sarrerak 104,25 milioi eurotik gorakoak izan ziren. Zifra horri esker, 2014-2020 aldirako Euskadiri esleitutako finantza-bide osoa ziurtatu eta jaso ahal izan zen, Europako Batzordeak COVID-19ak eragindako krisiari erantzuteko aktibatutako REACT-EU funtsak barne.

Eusko Jaurlaritzaren eragiketa arrunten bilakaera 2005-2024. BPGaren %a
45. irudia




Iturria: Eustat. Sektore publikoaren aurrekontu gauzatzea.

Ondare sarrerei dagokienez, banku kontu korranteek sortutako interesek (kategoria horren %99,5) 112,7 milioi euro ekarri zituzten, aurreko ekitaldietakoan antzeko kopurua (110 milioi). Aitzitik, tasak, prezio publikoak eta bestelako diru sarrerak %2,14 jaitsi ziren, 194,5 milioi euroraino.

Gastu arruntak 12.763 milioi eurokoak izan ziren, 2023an baino %7,6 gehiago, hau da, BPGren %13,12. Kapituluka, funtzionamendu gastuak BPGaren %5,16 izan ziren, %10eko igoerarekin. Osakidetzaen kontratu-programak nabarmendu behar dira, 3.889 milioi eurora iritsi baitziren (BPGaren %4). Ondoren transferentzia arruntak (BPGaren %4,84) eta pertsonal gastuak (BPGaren %2,9) kokatu ziren.


Horren guztiaren ondorioz, aurrezki gordina positiboa izan zen (421 milioi euro), baina %62,6 murriztu zen aurreko urtearen aldean. Autofinantzaketa ahalmenaren murrizketa horrek kapital gastuen finantzaketa mugatu zuen; izan ere, gastu horiek %7,7 jaitsi ziren 2023ko datuekin alderatuta. BPGari dagokionez, gastu horiek %1,7tik %1,5era igaro ziren.

Eusko Jaurlaritzaren aurrezkia, kapitaleko gastua eta defizita 2005-2024. BPGaren %a
46. irudia



Iturria: Eustat. Sektore publikoaren aurrekontu gauzatzea.

Eusko Jaurlaritzaren zorpetze beharren analisia 2005-2024. BPGaren %a
47. irudia




Iturria: Eustat. Sektore publikoaren aurrekontu gauzatzea.

Eusko Jaurlaritzak 2024an egindako inbertsio globala 1.425 milioi eurokoa izan zen, hau da, BPGaren %1,46 eta aurreko urtean baino %7,7 gutxiago. Inbertsioen gauzatze maila %66,5ekoa izan zen, 2023an baino ehuneko 8,7 puntu txikiagoa.

Kapital gastua moteldu arren, aurrezki gordinaren beherakada handiak (-%62) eta kapital sarrerak %28 murrizteak (231 milioi) 772 milioi euroko defizit ez-finantzarioa eragin zuten, BPGaren %0,8. Defizita zazpi hamarren handitze horrek, amortizazioei eustearekin batera (BPGaren %0,6), zorpetze beharra BPGaren %1,2tik %1,5era igo zuen. Behar hori, partzialki estali zen 834 milioi euroko (BPGren %0,9) zorra jaulkiz.

Zorrenaren kostua eta bizitza
48. irudia




Iturria: Ogasun eta Finantza Saila.

Zorrenaren igoera hori bideratzeko, Eusko Jaurlaritzak finantzaketa iraunkorreko estrategiari eutsi zion, eta Euskadi Bonu Jasangarrien zortzigarren jaulkipena egin zuen 600 milioi euroren truke. Eskariak nabarmen gairitu zuen eskaintza, 4.013 milioi eurora iritsiz. Bonuen %70 nazioarteko inbertitzaileetan jarri ziren, %24 estatuko inbertitzaileetan eta %6 euskal inbertitzaileetan. Eragiketa horrek merkatuak kaudimenean duen konfiantza eta Eusko Jaurlaritzaren iraunkortasunarekiko

konpromisoa islatu zituen. Gainera, maileguen lerroa 235 milioi eurotan handitu zen. Ondorioz, zorraren batez besteko kostua %2,25etik %2,12ra jaitsi zen, eta batez besteko bizitza 8,79 urtetik 8,32 urtera igaro zen.

Foru aldundien eragiketa arrunten bilakaera 2005-2024. BPGaren %a
49. irudia




Iturria: Eustat. Sektore publikoaren aurrekontu gauzatzea.

Foru aldundiei dagokienez, diru sarrera eta gastu arruntek beheranzko bidea jarraitu zuten. 2024an, sarrera arruntak BPGaren %19,6 izan ziren (2023an %20,5), eta gastu arruntak %18,8 (%19,6). Ondorioz, aurrezki gordina bi hamarren murriztu zen, BPGaren %0,78raino.

Aurrezpen horrek, 54,6 milioiko kapital sarrerarekin batera, kapital gastuak finantzatzea ahalbidetu zuen 604 milioi euroren truke (BPGaren %0,6), 2023an egindako inbertsioa indartuz (850 milioi). Horrela, foru aldundiek BPGaren %0,21eko superabitarekin itxi zuten 2024a, finantzatzeko gaitasun historikoari eutsiz.

Foru aldundien aurrezkia, kapital gastuak eta defizita 2005-2024. BPGaren %a
50. irudia



Iturria: Eustat. Sektore publikoaren aurrekontu gauzatzea.


Azkenik, euskal administrazioen baterako zorra %0,8 baino gehiago murriztu zen 2024an. Beherakada horretan lagundu zuten bai Eusko Jaurlaritzaren aipatutako murrizketak, bai aldundien zorra %3ra murrizteak. Udalek, bestalde, ia zorpetzeari eutsi zioten, BPGaren %0,3ra iritsiz.

Zorpetzeari dagokionez, Gehiegizko Defizitaren Protokoloaren arabera (defizita BPGaren %3tik gorakoa bada, edo zor publikoa BPGaren %60tik gorakoa bada, eta arrazoizko erritmoan murrizteko aurreikuspenik gabe), Eusko Jaurlaritzaren zorra 181 milioi handitu zen, eta 10.842 milioi eurora iritsi zen. Hala ere, termino erlatiboetan, zorraren maila bost hamarren murriztu zen, BPGaren %11,6an kokatuz, eta horrek Euskadi, Nafarroarekin eta Kanariekin batera, zorraren ratio txikiena zuten autonomia erkidegoen artean kokatu zuen.

Europako testuinguruan, Gehiegizko Defizitaren Prozedura (GDP) 2024an aktibatu zen hainbat estatu kiderentzat, besteak beste, Belgika, Frantzia, Italia, Hungaria, Malta, Polonia eta Eslovakia, BPGaren %3ko muga gainditzeagatik. Errumaniak GDPren pean jarraitzen du 2020tik. Prozedura horrek neurri zuzentzaileak eskatzen ditu egiturazko defizita eta zor publikoa murrizteko, zehapenen arriskupean. Europako arau fiskal berriek Europar Batasuneko estatu kideei eskatuko diete

kontsolidazio fiskaleko planak diseinatzea epe ertainera, gastuei, erreformei eta lehentasunezko inbertsioei buruzko planak barne hartuta. Eskakizun horiek Euskadira eramaten dira, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren bidez.

Administrazio Autonomoaren zor publikoaren bilakaera (gehiegizko defizitaren protokoloaren arabera). BPGaren %a
51. irudia



Iturria: Espainiako Bankua, Ogasun eta Funtzio Publiko Ministerioa eta INE (eskualdeko kontabilitatea).

Eusko Jaurlaritzak egindako gastuaren analisi funtzionala

Aurrekontuaren sailkapen funtzionalak gastu publikoa antolatzeko eta aurkezteko aukera ematen du, Jaurlaritzak baliabide erabilgarriak esleitzean lortu nahi dituen helburuen arabera. Funtsean, galdera honi erantzuten dio: zein da gastu publikoaren helburua? Sailkapen hori funtsezkoa da funts publikoen erabilera lehentasun sozialekin bat datorrela bermatzeko, eraginkortasuna maximizatzeko eta gardentasuna nahiz kontuak ematea indartzeko. Aurrekontu funtzio guztiek ez dute pisu bera; batzuk xurgatzen dituzten baliabideen bolumenagatik nabarmentzen dira, herritarrengan duten eragin zuzenagatik edo Estatuaren funtzionamenduan duten egitura eginkizunagatik. Testuinguru horretan, Osasuna, Hezkuntza eta Gizarte Babesa bezalako arloek

lehentasunezko garrantzia dute, ez bakarrik aurrekontuan duten partehartze handiagatik, baita Ongizate Estatu modernoaren muina izateagatik eta garapen eta gizarte kohesioari dagokionez duten garrantzi estrategikoagatik ere.

2024an, 14.916 milioi euroko gastua egin zuen Eusko Jaurlaritzak, hau da, aurreko ekitaldian baino %3,5 gehiago. Hazkunde horrek, positiboa bada ere, moderazioa adierazten du, aurreko bi urteetan %5ekoa izan baitzen. Horren ondorioz, gastu publikoak BPGaren gainean duen pisu erlatiboak bi hamarreneko jaitsiera txiki bat izan zuen, %15,3an kokatuz.

Ikuspegi funtzional batetik, Osasuna da oraindik ere aurrekontu zuzkidura handiena duen funtzioa. 2024an, 5.202 milioi euro bideratu ziren eremu horretara, hau da, 446,5 milioi (%9,4) gehiago 2023arekin alderatuta. BPGari dagokionez, zifra hori %5,35aren parekoa da, eta pandemiaren aurreko mailen gainetik mantentzen da. Halaber, aurrekontu osoaren barruan duen pisua handitu egin da, %33tik %34,9ra.

Nabarmentzekoa da 2024an hasi zela indarrean Eusko Jaurlaritzaren 2030 Osasun Plana, hurrengo urteetako osasun politiken ibilbide orria. Euskadi osasuntsuago bat, herritar guztien osasunerako eskubidea bermatzea eta inor atzean geratzen ez dela ziurtatzea da Plan honen helburu nagusia. Definitutako hamar helburu estrategikoetatik hiruk zeharkako izaera dute: osasun arloko desberdintasunak murriztea, pertsonak beren osasunaren eta ongizatearen protagonista aktibo izan daitezen sustatzea, eta erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzak hobetzea eragile eta maila guztiekin, Osasuna, politika guztietan ziurtatzeko.

Helburu horietan aurrera egiteko, Osasun Finantzaketa eta Kontratazioko programako gastua 423 milioi eurotan handitu zen, aurreko ekitaldian baino %10,3 gehiago, eta BPGaren %4,7ra iritsi zen. Programa horren barruan, Osakidetzaen Programa Kontratua aipatu dezakegu, 218 milioitan hazi zena, 3.889 milioi eurora iritsi arte, hau da, 2023an baino %5,9 gehiago eta BPGren %4,4. Era berean, aipamen berezia merezi du 2023-2028 Larrialdietako Garraio Sanitarioaren Sarerako (LGSS) indartzea, 2023an ia 20 milioiko gastua izatetik 2024an 62 milioikoa izatera igaro baitzen. Bestalde, Farmazia programak ia 25 milioi euroko hazkundera izan zuen, 584,5 milioi eurokoa, hau da, aurreko ekitaldiaren aldean %4,4ko hazkundera.

Hezkuntza gastu bolumen handiena duen bigarren arloa izan zen, 3.699 milioi euroko kopuruarekin, aurrekontu osoaren ia laurdena biltzen duen zenbatekoarekin. Haren pisu erlatiboa %24tik %24,8ra

igo zen, eta BPGaren gaineko partaidetza %3,7tik %3,8ra pasatu zen. Eremu horren barruan, 102 milioi euroko hazkundera nabarmendu zen, %6,1 gehiago, langile gastuetan, Euskadiko BPGaren %1,83 osatzen baitute. Halaber, Hezkuntza Kontzertura bideratutako partida 112 milioi eurotan handitu zen, 947,6 milioi eurora iritsiz, 2023an baino %13,4 gehiago, hau da, BPGaren %1. Hazkunde horren arrazoi nagusia itunpeko ikastetxeetako langileen soldata parekatzea da.

2024an gauzatutako gastu bolumen handieneko hirugarren funtzioa Gizarte Segurtasuna eta Babesa izan zen, 1.058,9 milioi eurora iritsi baitzen, aurreko ekitaldiaren aldean 64,7 milioi gehiago izan ondoren. Zenbateko hori aurrekontu osoaren %7,1 da, eta BPGaren %1,1. Funtzio horren barruan, enplegua sustatzeko politika bideratutako partidak nabarmentzen dira bereziki, 768 milioi eurokoak izan baitziren, 59,7 milioiko igoerarekin, hau da, %8,4ko hazkundearekin eta Euskadiko BPGari %0,79ko ekarpenarekin. Baliabide horiek hainbat programaren artean banatzen dira, eta horien artean Gizarteratzearena nabarmentzen da, 734 milioi eurora iritsi baitzen, 2023an baino %8,5 gehiago. Ondoren, Familia eta Komunitate Politika (129 milioi euro), Gizarte Zerbitzuak (11,7 milioi euroko igoerarekin 97 milioi euro arte), Lanaren eta Enplegua. Egitura eta Laguntza (38 milioi euro) (%6,6ko igoera) eta Lana programa (34,9 milioi euro, %9,7ko igoerarekin) daude.

Aitzitik, Zorraren funtzioan gauzatutako gastua nabarmen murriztu zen 2023tik, 115,6 milioi euroko murrizketarekin, 857 milioitan kokatuz. %11,9ko gutxitze horrek esan nahi du aurrekontu osoan zuen pisua %6,7tik %5,7ra jaitsi zela, eta BPGaren gaineko partaidetza %1,05etik %0,88ra murriztu zela.

Herri Segurtasuna eta Babesaren eremuan, gauzatutako aurrekontua 10 milioi eurokoa izan zen, aurreko urtean baino %1,4 gehiago, eta 729,7 milioira iritsi zen. Igoerarik handiena izan zuen partida Zaintza eta Erreskate Unitaterako materiala erostera bideratutakoa izan zen. Zibersegurtasuneko programa berriaren sorrera ere nabarmendu behar da, 4 milioi euroko zuzkidura izan baitzuen.

Administrazio Orokorren funtzioari dagokionez, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa (SEM) zeregina azpimarratu behar da, Eusko Jaurlaritzak hainbat gastu politikara bideratutako partidak indartu eta handitu ahal izan baititu, batez ere inbertsioen esparruan. 2024an, SEMari lotutako gastuak 254 milioi eurokoak izan ziren, hau da, BPGaren %0,26, baina horrek esan nahi du 54 milioiko murrizketa izan zela 2023arekin alderatuta. Jarduera aipagarrienetako bat MOVES III Programa kopurua handitzea da, 2023an 12 milioi izatetik 2024an 28,5 milioi izatera igaro baitzen, hau da, % 135eko igoera. Energia eraginkortasunera bideratutako bizitegi eraikinak eta etxebizitzak

birgaitzeko laguntzak ere igo egin ziren, 26 milioi eurotik 37 milioi eurora. Halaber, "Balio katea adimen artifizialean" lankidetza proiektu berria jarri zen abian, RETECH IA programaren barruan, 17,4 milioi euroko zuzkidurarekin, industria arloko enpresa sarean adimen artifizialaren eta datuaren teknologiaren erabilera sustatzeko, Madrilgo eta Galiziako Erkidegoekin lankidetzan.

Beste programa garrantzitsu bat Informatika eta Telekomunikazioena izan zen, %4,8 hazi baitzen 57,6 milioi eurora iritsi arte. Bestalde, Eragindako Krisiaren aurkako Neurrien programak %72,6ko igoera nabarmena izan zuen, 31 milioi eurotik 53 milioi eurora igaro baitzen. Igoera horren barruan, ETEen finantzaketa kostua murrizteko dirulaguntzak nabarmendu ziren, 10 milioi hazi baitziren ia 18 milioira iritsi arte, eta Bilakatu 2022ren funtsa handitu egin zen, 2023an 1,7 milioi izatetik 2024an 14,7 milioi izatera igaro baitzen, eta horrek 13 milioi euroko igoera suposatu zuen.

Ikerketa zientifiko, tekniko eta aplikatuaren funtzioak ere gora egin zuen, %0,9ko hazkundearekin, 423 milioi eurora iritsi arte. Teknologia programaren barruan, diruz laguntzeko hainbat programa daude, industria sarea indartzera bideratuak. EMAITEK+2024 51 milioi eurekin, eta HAZITEK 2024 enpresa arloko I+G partida lehiakorren artean, 29,4 milioirekin ,partida nagusien artean aurkitzen dira. Eremu horretan, Basquevolt proiektua nabarmentzen da, INGEBAT proiektua ere deitua, egoera solidoko baterien garapenean zentratua, litiozko baterien hurrengo belaunaldian Euskadi Europako erreferente gisa kokatzeko helburuarekin.

Ikerketa programaren esparruan, ikertzaileak prestatzeko laguntzak nabarmendu behar dira, 2023an 1,7 milioi euro izatetik 2024an 8,1 milioi euro izatera igaro baitziren. Basque Quantum (BasQ) ekimenaren barruan, IBM DIPCren (Donostia International Physics Center) Patronatuan sartu da, teknologia kuantikoak sustatzeko. Horretarako, eraikin berri bat eraikitzen ari dira, munduko IBMren sareko superordenagailu kuantiko indartsuena hartuko duena. Aurrekontuei dagokienez, 2024an 4 milioi euro bideratu ziren kontzeptu hauekin: PIIE Estrategia LINKER, IKUR-DIPC Edificio eta Basque Quantum eta PIIE-Estrategia LINKER eta IKUR Ikerbasque-DIPC, 7,2 milioi euro (aurreko ekitaldian baino %41 gehiago). Etorkizuneko ordenagailua instalatzearen eta BasQ estrategia osoaren garapenaren bidez, Euskadi nazioarteko erreferente bihurtu nahi da Teknologia Kuantikoen esparruan: komunitate zientifiko kuantiko sendo bat sortzea eta indartzea, talentu oso espezializatua sortzea eta erakartzea, eta industria eta enpresa eremuan garatzeko apustua egitea.

Testuinguru horretan, LINKER estrategia nazioarteko talentua erakartzera, ikertzaileen nazioartekotzea sustatzera eta akademiaren eta tokiko ekosistemaren arteko loturak sendotzera bideratuta dago. Estrategia hau IKUR 2030 Estrategiaren barruan kokatzen da, epe luzerako ibilbide

orri bat, Euskadi nazioarteko erreferentzia polo zientifiko bihurtu nahi duena. IKUR lehentasunezko lau esparruren inguruan egituratzen da: neurobiozientziak, teknologia kuantikoak, neutronikoa eta superkonputazioa eta adimen artifiziala. Gainera, funtsezko hiru ardatzetan oinarritzen da: bikaintasuneko ikerketa proiektuak finantzatzea, azpiegitura zientifiko aurreratuak garatzea eta kualifikazio handiko talentua erakartzea.

Oinarritzko azpiegituren eta garraioen arloan, 408,7 milioi euroko gastua egin zen 2024an. Funtzio horren barruan, Trenbide Garraioaren Azpiegitura eta Kudeaketa programak pisu nabarmena izan zuen, 295,5 milioi euroko zuzkidurarekin, aurreko ekitaldiarekin alderatuta 32 milioiko murrizketa izan arren. Testuinguru horretan, Euskal Trenbide Sareari (ETS) emandako kapital-dirulaguntza nabarmen handitu zen, 2023an 115 milioi izatetik 2024an 126 milioi izatera igaro baitzen, hau da, %9,6 igo zen.


Aurrekontu indartze horri esker, ETSk hainbat proiektu estrategikotan zentratu ahal izan zituen bere baliabideak, Trenbide azpiegitura hobetzeko eta Euskadin mugikortasun iraunkorragoa bultzatzeko. Jarduketa garrantzitsuenen artean, honako hauek daude: Hegoaldeko Trenbide Saihesbidea, hiri inguruneetako konektibitatea hobetzeko eta salgaien trafikoa murrizteko, eta Donostialdeko metroaren pasabidea, eskualdeko tren zerbitzuaren fidagarritasuna eta arintasuna handitzeko. Era berean, Espainiako Gobernuak eskumenak transferitu dituenek, ETSk bere gain hartu du Renferen aldirietako lineen kudeaketa, eta horrek inbertsio gehigarri esanguratsua eskatzen du. Eremu horretan bertan, Bizkaiko Garraio Partzuergoari 38 milioi euroko dirulaguntza eman zaio, lurraldean garraio publikoaren sarea indartzeko.

Gizarte sustapenaren funtzioaren barruan, 2024an 388 milioi euroko gastua egin zen, hau da, aurreko ekitaldian baino ia 17 milioi gehiago (%4,5eko igoera). Arlo horretan, Enplegura eta Prestakuntzara bideratutako partidak nabarmendu ziren, 217 eta 136 milioi euroko zuzkidurekin, hurrenez hurren. Biek ala biek igoera txikiak izan zituzten aurreko urtearen aldean. Bereziki garrantzitsua izan zen Gazteria programari esleitutako partidaren hazkundea, ia 6 milioi eurotik 20 milioira igaro baitzen, batez ere Emantzipa 2024-2026 Programak bultzatuta. Programa horrek 13 milioi euro ditu, eta zuzeneko laguntza ekonomikoen bidez gazteen emantzipazioa erraztea izan zuen helburu.

Bestalde, Etxebizitza eta Hirigintza funtzioak ere gora egin zuen, guztira 273 milioi euro inguruko zuzkidurara iritsiz, 2023an baino 6 milioi gehiago. Programa aipagarrien artean, Bizigune (11 milioi euro) eta Alokabide (8,6 milioi euro) daude. Halaber, Gaztelagun 2024 Programak, gazteei

alokairuaren ehuneko bat ordaintzen laguntzera bideratuak, 19,5 milioi euroko esleipena izan zuen. Horri gehitu zitzaizkion etxebizitza-eskubide subjektiboari lotutako prestazio ekonomikoak, 17,8 milioi eurora iritsi zirenak.

Eusko Jaurlaritzak gauzatutako gastuaren bilakaera (2005-2024). BPGaren %
52. irudia



Iturria: Eustat eta Eusko Jaurlaritza. Ekonomia Zuzendaritza.

Industrian, 143,4 milioi euroko gastua egin zen, hau da, aurreko ekitaldian baino ia 13 milioi gehiago. Funtzio horren barruan, Bilbao Exhibition Centre-ri emandako laguntzen igoera nabarmendu behar da, 5,3 milioi eurotik 16 milioi eurora igaro baitziren. Energia Eraginkortasunerako Laguntzak ere nabarmen igo ziren: 0,9 milioi izan ziren 2023an, eta 8,3 milioi, berriz, 2024an. Gainera, Inbertsio Estrategikoen Erakunde arteko Planari (IEEP) lotutako partidak indartu ziren, hala nola SPRI-SPRILUREk kudeatutako Fabrikazio Aurreratuko Zentrora bideratutakoak (5 milioi euro gehiago, 8 milioi eurora iritsi arte), eta BAM-CFari zegozkionak (aktibo zientifiko-teknologikoak), 0,5 milioi

inguru izatetik 5 milioi euro izatera igaro baitziren. Arlo horretako beste jarduera aipagarri batzuk honako hauek izan ziren: CADEM proiektua, elektrolizagailuen bidez hidrogeno berdea ekoizteko teknologietan oinarritua; INNOBIDEAK FAST TRACK, ETEen berrikuntza bizkortzera bideratua; eta Hidrogenoaren Euskal Korridoreko hidrogenoekin lotutako ekimenak, energia iturri horren inguruan kate industrial eta teknologiko bat finkatzea bilatu zutenak.

2. ZIURGABETASUN HANDIKO ALDI BATERAKO POLITIKAK

2.1 Funtsak kudeatzeko Europako politika

Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (BEEP) esparruan, Susperraldi eta Erresilientzia Mekanismoaren (SEM) hedapenak gero eta eragin handiagoa izan du euskal ekonomian azken urtean. Ingurune makroekonomiko egonkorrago baten konbinazioak, dagoeneko konprometituta dauden proiektuen gauzatze helduak eta sektore publikoaren eta pribatuaren xurgatze ahalmena hobetzeak Europako funtsak inbertsioaren, jardueraren eta enpleguaren bektore esanguratsu gisa sendotzea ahalbidetu dute.

Egoera horretan, SEM funtsek inbertsio publikoko bektore kontrazikliko gisa eta egiturazko eraldaketaren motor gisa jarduten jarraitu dute. Gobernantza eredua finkatzeak, plangintza sistemak hobetzeak eta 2021-2023an abiarazitako proiektuak heltzeak egikaritze erritmo altuari eustea ahalbidetu dute 2025eko lehen seihilekoan.

Txosten honek Euskadiko SEMren datu eta joera nagusiak aurkezten ditu 2025eko maiatzaren 31n, arreta berezia jarritz mobilizatutako funtsen bolumenari, aurrekontu betearazpenari, onuradunen profilari, sustatutako sektoreei eta Ekonomia Berreskuratze eta Eraldatzeko Proiektu Estrategikoetan (EBEPE) parte hartzeari.

Inbertsio publikoaren aurrerapena: SEMaren eragin ekonomikoa

Azken urtean, SEMak Euskadin izan duen hedapenak bere zeregina sendotu du, lurraldeko inbertsio publikoko motor nagusietako bat den aldetik. 2025eko maiatzaren 31n, Eusko Jaurlaritzak 965

milioi euro egikaritu ditu guztira, hau da, tresna juridikoen bidez hitzartutako bolumenaren %80,2 (1.203 milioi euro) eta sartutako guztizkoaren %74,3 (1.299 milioi euro). Egikaritze erritmo horrek %21,2ko igoera adierazten du, aurreko urteko aldi beraren aldean.

Inbertsio horiek eragin zuzena izan dute enpleguko sektore intentsiboen jardueran, eta arraste eragin handia izan dute, hala nola eraikuntzan (energia birgaitzea), manufaktura industrian (mugikortasun elektrikorako eta hidrogenorako osagaiak), informazioaren eta komunikazioaren teknologietan eta zerbitzu zientifiko eta profesionaletan. Era berean, sektore publikoa indartu egin da balio sozial erantsi handiko proiektuen dinamizatzailerik gisa, batez ere hezkuntzaren, osasunaren eta gizarte zerbitzuen arloetan.

Honako hauek dira lorpen aipagarrienak:

- 7.000 etxebizitza baino gehiagotan energia eraginkortasuna hobetzea, hiri birgaitzearen eta lotutako zerbitzu teknikoaren sektorean jarduerak sortuz.
- Laneratzeko 5.000 ibilbide baino gehiago aktibatzea, kolektibo kalteberen enplegarritasunean eragin zuzena izanik.
- 300 ekipamendu publiko baino gehiago sortzea edo modernizatzea, hala nola iraupen luzeko zainketak, hezkuntza digitalizazioa eta osasun digitala.

Emaitza horiek enpleguari eusten eta enpresa ehuna dinamizatzen laguntzeaz gain, produkzio aparatua modernizatzea eta funtsezko zerbitzu publikoak hobetzea ere bultzatu dute, ekonomia errealean egiturazko ondorioak eraginez. Euskadi 2030 Agendaren ardatzekiko lerroak (trantsizio berdea, digitalizazioa, gizarte eta lurralde kohesioa, eta genero berdintasuna) argia da, eta SEMaren zeregina indartzen du, herrialdeko lehentasun estrategikoen tresna palanka gisa.

Gaur egun, SEM funtsek Euskadiko BPGan duten eraginari buruzko azterketa espezifikoak garatzen ari da, eta emaitzak urtea amaitu baino lehen aurkeztuko dira. Hala ere, exekuzioari buruzko datu metatuek eta sustatutako sektoreen profilak aukera ematen dute ekarpen positiboa aurreratzeko azkenaldiko hazkunde ekonomikoari, batez ere inbertsio produktiboaren, enpleguaren sorreraren eta ekonomia errealean eragin handia duten proiektuen aktibazioaren bidez.

Finantzaketa egitura eta funtsak sartzeko bideak

Euskadin eragin zuzena duten Susperraldi eta Erresilientzia Mekanismoaren (SEM) funtsen guztizko bolumena 3.962 milioi eurokoa da 2025eko maiatzaren 31n. Kopuru horrek kudeaketa maila desberdinetatik datozen baliabideak biltzen ditu, aktibatutako tresnen aniztasuna eta euskal ekosistemak hainbat administrazio mailatan Europako finantzaketa lortzeko duen gaitasuna islatuz.

Kudeaketa kanalen arabera banaketa honako hau da:

- Estatuaren kudeaketa: 2.292 milioi euro (%58)
- Kudeaketa autonomiko zuzena (Eusko Jaurlaritzak): 1.299 milioi euro (%33)
- Beste autonomia erkidego batzuetatik erakartzea: 371 milioi euro (%9)

Banaketa horrek agerian uzten du Euskadik parte hartze sendoa duela estatuko norgehiagoka deialdietan, eta indartu egiten du Eusko Jaurlaritzak erakunde betearazle eraginkor gisa duen zeregina, gobernantza eta plangintza eredu propio batekin.

Kudeaketa autonomikoak - bolumen osoaren herenaren erantzulea - gauzatzeko gaitasun handia, eskualde garapenaren lehentasunekin lerrokatutako esleipena eta enpresa, gizarte eta erakunde ehunaren gaineko bultzada esanguratsua izan ditu ezaugarri. BEETaren 31 osagaietatik 25etan kokatutako 109 azpiproiekturen bidez, baliabideak funtsezko lerroetara bideratu dira, hala nola:

- C02 – Etxebizitza birgaitzea eta hiria berroneratzea: 241 M €
- C01 – Mugikortasun iraunkorra: 178 M €
- C22 – Zainketen ekonomia: 175 M €
- C07 – Energia berriztagarriak eta hidrogenoa: 152 M €
- C20 – Lanbide Heziketa: 101 M €
- C03 – Osasun-sistemaren digitalizazioa: 88 M €

Lehenetsitako lerro horiek indartu egiten dute Europako funtsen eta Euskadiko ekonomia eta gizartea eraldatzeko estrategiaren arteko koherentzia. Inbertsioek, jarduerari eta enpleguari dagokienez eragin zuzena izateaz gain, erakundeen erresilientzia eta politika publikoen iraunkortasuna handitzen ere lagundu dute.

Kanalen arteko osagarritasuna (estatukoa, autonomikoa eta eskualdekoa) funtsezkoa izan da bildutako funtsen guztizko bolumena maximizatzeko, finantzaketa tresnak dibertsifikatzeko eta euskal sistema ekonomiko osoa ezartzeko gaitasuna indartzeko.

Onuradunen profila eta programaren kapilaritatea

Susperraldi eta Erresilientzia Mekanismoaren (SEM) hedapenak kapilaritate maila handia lortu du Euskadin, finantzaketa eskuratu duten agenteen kopuru gero eta handiagoak erakusten duen bezala. 2025eko maiatzaren 31n, 26.013 erakunde eta pertsona fisikok jaso zuten laguntza, eta kopuru horrek programaren hedapena eta tokiko eta sektoreko ezarpen sarearen finkapena islatzen ditu.

Onuradun motaren arabera banaketak erakusten du SEMaren ehun hartzailearen aniztasuna Euskadin:

- % 43: mikroenpresak eta ETEak, enpresa oinarria eta digitalizazioa indartuz.
- % 34: enpresa handiak, industria proiektu estrategikoen bultzatzaile gisa.
- % 12: aldi baterako enpresa-elkarteak (ABEE), bereziki obra publikoko proiektuetan eta energia garbietan.
- % 8: unibertsitateak, fundazioak eta hirugarren sektoreko erakundeak, funtsezkoak berrikuntza, zaintza eta prestakuntza bezalako esparruetan.
- % 3: pertsona fisikoak eta familiak, batez ere birgaitze energetikorako eta alokairurako programen bidez.

Sektorearen ikuspegitik, baliabideak euskal BPGan pisu handia eta arrastatzeko gaitasun handia duten jardueretan kontzentratu dira:

- Manufaktura industria: %26,4; automozioa, material aurreratuak eta industria digitalizazioa nabarmentzen dira.

- Zerbitzu zientifiko eta teknikoak: %7,9, aplikatutako I+G+Bri lotuta.
- Eraikuntza: %5,4, batez ere hiria birgaitzeko proiektuen arabera.
- Energia hornidura eta ingurumen kudeaketa: %4,8, trantsizio energetikoan eta ekonomia zirkularrean.
- IKTak: %4,6, bereziki osasun digitalean eta administrazio elektronikoan.
- Beste sektore batzuk: %50,9, merkataritza, turismo iraunkorra, garraioa eta gizarte zerbitzuak barne.

Lurraldeka, banaketak arrazoizko oreka erakusten du, lurralde bakoitzaren pisu ekonomikoari eta biztanleriari egokituia:

- Bizkaia: %36
- Gipuzkoa: %26
- Araba: %21
- Beste probintzia batzuk: %17 (proiektuak gauzatzeko kokapenaren arabera)

Ondorioz, SEM funtsen banaketak Euskadin enpresa handien, ETEen, irabazi asmorik gabeko erakundeen eta tokiko administrazioen parte hartzea erraztu du, egikaritze eredu inklusiboa eta sektore anitzekoa sendotuz. Datuek erakusten dute lurraldeen arteko oreka eta sektoreko kontzentrazio eredu koherentea dela BEEPren helburu estrategikoekin: trantsizio berde eta digital bikoitza bizkortzea, zerbitzu publikoak indartzea eta hazkunde ekonomiko bidezkoagoa eta erresilienteagoa sustatzea.

Industria, energia eta zerbitzu sektore aurreratuetako onuradunen ehuneko handiak berresten du SEM koiunturazko laguntza mekanismo gisa ez ezik, euskal sistema ekonomikoaren egiturazko modernizazioaren katalizatzaile gisa ere ari dela. Toki erakundeen, zentro teknologikoen eta hirugarren sektoreko eragileen parte hartze handiak, gainera, lortutako eraginaren gizarte eta lurralde dimentsioa indartzen du.

EBEPEetan parte hartzea: Euskadiren posizionamendu estrategikoa

Ekonomia Berreskuratzeko eta Eraldatzeko Proiektu Estrategikoetan (EBEPE) Berreskuratze Planaren ardatz handienetako bat dira. Lankidetzat publiko-pribatuko ekimenak dira, eta Espainiako

ekonomiarentzako balio kate estrategikoak garatzea dute helburu, eskala handiko inbertsio eraldatzaileak bultzatuz. 2025eko maiatzaren 31n, Euskadik 1.155 milioi euroko partaidetza izan zuen proiektu horietan, hau da, 2024ko itxieraren aldean 201 milioi euro gehiago.

Bildutako guztizkotik, 823 milioi euro ministerio arduradunek ebatzitako estatuko deialdietatik datoz, eta 332 milioi euro, berriz, autonomia erkidegoaren eremuan gidatutako edo kudeatutako proiektuetatik. Banaketa horrek euskal ekosistema industrialak maila tekniko handiko deialdietan arrakastaz lehiatzeko eta enpresen, zentro teknologikoen eta administrazioen arteko aliantza estrategikoak sendotzeko duen gaitasuna islatzen du.

Euskadik parte hartze nabarmena izan duen EBEPE nagusiak
25. taula

ESEPE	Estatukoa, guztira	Euskadin harrapatutakoa	% Estatuaren aldean
Ibilgailu elektrikoa eta konektatua	3.521 M€	404 M€	11,5%
Energia berriztag., hidrogenoa eta biltegia.	6.108 M€	359 M€	5,9%
Abangoardiako osasuna	1.397 M€	46 M€	3,3%
Ekonomia Zirkularra	492 M€	21 M€	4,3%
Ontzigintza	310 M€	20 M€	6,5%
Nekazaritzako elikagaiak	950 M€	16 M€	1,7%

Fuente: Dirección de Planificación y Fondos no Estructurales.

Proiektu garrantzitsuenen artean, hauek nabarmentzen dira:

- Ibilgailu Elektriko eta Konektatuaren EBEPEn, EAEko trakzio-enpresek eta hornitzaileek parte hartzea balio erantsi handiko osagaien, ibilgailu elektrikoaren plataformen eta baterien garapenean, Araban eta Bizkaian kokatutako instalazio eta zentro teknologikoekin.
- Energia Berriztagarrien, Hidrogeno Berriztagarriaren eta Biltegitratzearen EBEPEn, hidrogeno berriztagarriko proiektuak, Hidrogenoaren Euskal Korridorearen inguruan finkatutako industria-partzuergoak buru dituztela, ekoizpen-, mugikortasun- eta biltegitratze-azpiegiturretan baterako inbertsioak eginda.

- Abangoardiako Osasunaren EBEPEn, euskal ospitaleek eta teknologiek medikuntza pertsonalizatuko, digitalizazio diagnostikoko eta osasun-teknologia aurreratuen garapeneko ekimenetan parte hartzen dute.
- Ekonomia Zirkularreko EBEPEn plastikoak birziklatzeko, industria-hondakinak balorizatzeko eta eraikuntzan materialak berrerabiltzeko proiektuak nabarmentzen dira, Gipuzkoan eta Bilboko metropoli-ingurunean eragina dutenak.

Presentzia esanguratsu hori lurraldeko gaitasun teknologiko eta industrialen kontzentrazioari eta partzuergo traktoreen konkurrentzia eta artikulazioa errazteko erakundeen konpromisoari erantzuten dio. Automobilgintzan, hidrogeno berriztagarrian eta energia biltegitratzeko teknologietan, esaterako, Euskadi berrikuntzaren eta ekoizpenaren funtsezko nodo gisa kokatzea lortu du Estatuan eta Europan.

Inpaktu ekonomikoaren ikuspegitik, EBEPek aktibo produktiboetako inbertsio pribatua bizkortzen ari dira, modernizazio teknologikoa, enplegu kualifikatuaren hazkundea eta industria-gaitasunen garapena bultzatuz eremu emergenteetan. Era berean, mugikortasun iraunkorra, osasun digitala edo nekazaritzako elikagaien katea bezalako sektoreetan autonomia estrategiko handiagorantz aurrera egiteko aukera ematen dute.

Epe ertainera, euskal inplikazioa EBEPetan lagungarria izango da balio erantsi handiko berrikuntza industrialeko ekosistemak sendotzeko, euskal enpresen nazioarteko presentzia indartzeko eta itzulera ekonomiko eta sozial iraunkorrak sortzeko. Eusko Jaurlaritzak prozesu horri laguntzen jarraituko du, inbertsioari laguntzeko tresnen, lankidetzarako pizgarrien eta gobernantza-mekanismoen bidez.

2.2 Moneta politika

2024. urteko ezaugarriak honako hau izan ziren: moneta politika egokitzaileagoetara jo zen oro har, zor merkatuetan errentagarritasunak igo ziren, Europako eta AEBetako burtsen portaera oso positiboa izan zen, eta dibisen merkatuetan hegazkortasun handia bizi izan zen. Inflazioak hartu zuen moteltzeko joerak eta interes tasen gainera zeuden igurikimenen aldaketak finantzaziorako baldintzak hobetzen lagundu zuten, baina tentsio egoerak ere izan ziren, batez ere urtearen bigarren erdian.

Banku zentralen interes tasak
26. taula

	01-07	08-14	15-21	2022	2023	2024	2025-eka
Europako Banku Zentr.	2,8	0,0	0,0	2,5	4,0	3,0	2,0
Erreserba Federala	2,9	0,1	0,8	4,25-4,5	5,25-5,5	4,25-4,5	4,25-4,5
Japoniako Bankua	0,1	0,0	-0,1	-0,1	-0,1	0,25	0,5
Ingalaterrako Bankua	4,5	0,1	0,4	3,5	5,25	4,75	4,25
Txinako Bankua	3,7	1,4	4,2	3,7	3,5	3,1	3,0
Indiako Bankua	7,2	2,0	5,5	6,3	6,5	6,5	5,5
Brasilgo Banku Zentrala	11,0	2,9	8,2	13,75	11,75	12,25	15,0

Iturria: Europako Banku Zentrala, Reuters Agentzia eta Espainiako Bankua.

2022an hasitako igoera ziklo luze baten ondoren, banku zentral nagusiak beren esku hartze tasak pixkanaka murrizten hasi ziren 2024ko bigarren seihilekotik aurrera. Eurogunean, Europako Banku Zentralak gordailutzeko erraztasuna %4,0an mantendu zuen hasieran, baina ekainetik aurrera, inflazioaren presioak moteldu egin zirelako, adierazle batzuk ahuldu egin zirelako eta finantza baldintzak gehiegi gogortzeko arriskua zegoelako, oinarritzko 25 puntuko hiru murrizketa egin zituen jarraian, eta urtea %3,0an amaitu zuen. Bide horrek 2025ean jarraitu zuen, eta jaitsiera berriak izan ziren urtarrilean, martxoan, apirilean eta ekainean, %2,0ra iritsi arte. EBZk prezioen egonkortasunarekin duen konpromisoa berretsi badu ere, murrizketen norabidean balizko etenaldia iragartzen hasi da, inflazioko arrisku iraunkorren eta ziurgabetasun geopolitikoaren gorakadaren ondorioz.

Erreserba Federalak jarrera zuhurragoa hartu zuen eta irailera arte ez zituen murrizketak hasi. Orduan, elkarren segidako hiru jaitsiera aplikatu zituen, eta erreferentzia tasa 100 oinarritzko puntu murriztu zuen (EBZren magnitude bera), %4,25-%4,5eko tartean kokatu arte. Erabaki horrek prezioen moteltzeari eta ziurgabetasun politiko handiko testuinguru batean hazkundera babesteko beharrari erantzun zien. 2025ean, Fedek aldaketarik gabe eutsi dio urkila objektiboari, Administrazio berriaren neurri ekonomikoen eragina ebaluatzeko zain, batez ere zerga eta merkataritza politikan. Halaber, %2,0ko inflazioaren helburuarekin duen konpromisoa berretsi du, eta baldintzek hala eskatzen badute politika murriztailea mantentzeko prest dagoela adierazi du.

Ingalaterrako Bankuak, 2023ko abuztuan %5,25eko maximoa lortu ondoren, urtebete geroago hasi zen bere tasa murrizten, %4,75ean kokatu zuten bi jaitsierekin. 2025ean bi murrizketa gehiago aplikatu ditu, %4,25eraino, inflazioaren jaitsierari eta jarduera adierazle batzuen ahultzeari erantzuteko, batez ere lan merkatuan. EBZk bezala, ekonomia suspertzen lagundu nahi du, prezioen egonkortasuna arriskuan jarri gabe.

Aitzitik, Japoniako Bankuak behin betiko utzi zuen tasa negatiboen politika, eta bi aldiz igo zuen tasa ofiziala %0,25eraino, inflazioaren aurreikuspenak eta barne eskariaren susperraldi iraunkorraren seinaleak gorantz berrikusteko testuinguruan. Mugimendu horrek moneta politika ultralaxaren etapa luze baten amaiera markatu zuen, zortzi urtez hedatu dena. 2025ean, bankuak goranzko bide horri eutsi dio, eta erreferentzia tasa %0,5era igo zuen berriro, 2008tik izan duen mailarik altuenera, alegia. Gainera, inflazioaren presioak sendotuz gero politika gogortzen jarraituko duela adierazi du. Analistek urteko bigarren seihilekoan gutxienez tasen igoera berri bat aurreikusten dute, baina ohartarazi dute egutegian kanpoko faktoreek eragina izan dezaketela, hala nola AEBko muga zergen bilakaerak eta Japoniako barne politikaren egonkortasunak.

Gorabidean dauden ekonomietan, moneta politikaren ibilbideak desberdinak izan ziren. Txinak bere tasa ofiziala %3,10ean mantendu zuen 2024ko zatirik handienera, barne eskariaren ahultasunaren eta higiezinaren sektoreko tentsio iraunkorren aurrean hazkundera bultzatzeko estimulu estrategia moderatu bati jarraituz. 2025eko maiatzera arte ez zuen banku zentralak oinarritzko 10 puntuko murrizketa aplikatu, eta tasa %3,0koa izan zen, jarduera ekonomikoa suspertzeko eta arrisku deflazionistak geldiarazteko. Brasilek, aldiz, jarrera argi eta garbi uzkurra hartu zuen. 2024a %11,25eko interes tasarekin hasi zen, eta, inflazioak, narriadura fiskalak eta errearen gaineko presioak gora egin zutenaz, banku zentralak hainbat igoera ezarri zituen urtean zehar, eta abendua %12,25ean amaitu zuen. Joera hori areagotu egin zen 2025ean, eta igoera berriak izan ziren urtarrian, martxoan, maiatzean eta ekainean, %15,0ra iritsi arte.

Epe luzerako zor subiranoaren errentagarritasunei dagokienez, 10 urterako bonuak dinamika heterogeneoa erakutsi zuen ekonomien artean. AEBetan, tresna horren errentagarritasuna etengabe handitu zen, %4,55era iritsi arte, inflazioaren presioek eta Administrazioa aldatu ondorengo aurreikuspen fiskalen okertzeak bultzatuta. Europan, portaera edukiagoa izan zen. Frantzia, errentagarritasuna pixkanaka %3,19ra igo zen, aurrekontu tentsioen eta hazkunde txikiagoaren testuinguruan, eta Alemaniako *bund*-ak, berriz, apirilean %2,65era igo ondoren, %2,36an amaitu zuen urtea, bere ekonomiaren egitura ahuleziaren eta finantzaketa beharren goranzko berrikuspenaren isla.

10 urterako zor publikoaren errendimendua
27. taula

	Errendimendua (%)						Alemaniarekiko aldea (oinarri puntuak)					
	08-14	15-21	2022	2023	2024	25-jun	08-14	15-21	2022	2023	2024	25-jun
Alemania	2,13	0,08	2,09	2,03	2,36	2,59	0	0	0	0	0	0
Frantzia	2,69	0,45	2,62	2,56	3,19	3,29	58	40	53	53	83	70
Italia	4,41	1,62	4,26	3,71	3,52	3,49	226	161	217	168	116	90
Erresuma B.	2,72	1,09	3,37	3,54	4,57	4,48	54	110	128	151	221	189
Espainia	4,21	1,04	3,09	3,00	3,06	3,23	216	98	100	97	70	64
Irlanda	5,19	0,51	2,59	2,37	2,64	2,91	305	47	50	34	28	32
Portugal	6,30	1,57	3,10	2,79	2,84	3,06	413	151	101	76	48	47
Grezia	12,51	3,91	4,22	3,08	3,20	3,28	849	389	213	105	84	69
AEB	2,60	2,02	3,66	3,87	4,55	4,23	49	204	157	184	219	164
Japonia	0,92	0,06	0,00	0,63	1,08	1,43	-210	0	-209	-140	-128	-116

Iturria: Espainiako Bankua.

Azpimarratzekoa da errentagarritasunen igoera nabarmenagoa izan zela Europako guneko ekonomietan periferikoetan baino, non barne dinamikek merkatuaren presioak arintzen lagundu zuten. Espainian, 10 urterako bonuak %3,06an itxi zuen ekitaldia, 2023ko mailatik ozta-ozta gora, egonkortasun makroekonomikoaren pertzepzioak eta kontsolidazio fiskalean izandako aurrerapen jarraituak babestuta. Italian, errendimendua %3,52raino jaitsi zen, kontu publikoen hobekuntzak eta tentsio politiko txikiagoak lagunduta. Bestalde, Greziak sendotu egin zuen kreditu kalifikazioa (*ratinga*) hobetu ondoren hasitako joera positiboa. Horrek nazioarteko inbertitzaileen konfiantza indartu zuen, eta errentagarritasuna %3,20 neurritsuan mantentzea ahalbidetu zuen, finantza sinesgarritasun eta erakunde egonkortasun handiagoaren isla.

Bilakaera horri esker, arrisku sariak oro har murriztu ziren euroaren periferian. Espainiakoa oinarritzko 70 punturaino jaitsi zen, Italiakoa oinarritzko 116 punturaino eta Greziakoa oinarritzko 84 punturaino, eurogunearekin bat egiteko joera sendotuz. Baina zor subiranoaren merkatuetako urteko gertakari nagusia Frantziako arrisku sariaren gorakada izan zen, oinarritzko 35 eta 15 puntu itxi baitzituen, hurrenez hurren, Portugalen eta Espainiaren gainetik, eta ia Greziaren ildotik. Jokabide hori Frantzia jasaten ari den zailtasun politikoetatik ez ezik, bere zerga egoera konplexutik

ere eratortzen da. Estatubatuar ekonomian, 2025ean hazkunde sendoagoaren igurikimenak epe luzerako errentagarritasunak handitzen hasi ziren, Alemaniarekiko diferentziala oinarritzko 219 puntu handitu arte.

2025eko lehen sei hilekoan, 10 urterako bonuen errentagarritasunak aurreko urtearen amaieran hasitako goranzko joera luzatu zuen, baina intentsitate txikiagoarekin. Martxoan, Alemaniako bund-ak %2,93ko errentagarritasuna lortu zuen, defentsan eta azpiegiturretan inbertitzeko aparteko funts baten iragarpenak bultzatuta, eta horrek emisio garbiaren igurikimenak handitu zituen. Mugimendu hori Europako gainerako herrialdeetara aldatu zen. Espainiako bonuak %3,57ko errentagarritasuna lortu zuen udaberrian, baina %3,23an amaitu zuen ekaina. Italiakoa, berriz, %3,49 inguruan mantendu zen. Frantzia, orobat, errentagarritasuna %3,29koa izan zen, iraunkortasun fiskalari buruzko zalantzak bere horretan segitzen zutelako. AEBetan, azkenik, 10 urterako bonuak %4,5 gainditu zuen maiatzean, eta gero %4,23raino moteldu zen, hazkunde igurikimenak beherantz berrikustearen ildotik.

Gorakada orokorra izan arren, Alemaniako bonuaren errendimendua handitzeak arrisku primak zabaltzea saihestu zuen. Izan ere, maila neurritsuan mantendu ziren. Zehatzago adierazita, Espainiakoak 64 puntutan amaitu zuen ekaina, Italiakoak 90 puntutan, Greziakoak 69 puntutan eta Frantziakoak, azkenik, 70 puntutan. AEBen kasuan, diferentziala 164 punturaino murriztu zen, eta finantza baldintzetan nolabaiteko konbergentzia islatu zen.

Errenta aldakorrek merkatuari dagokionez, 2023a urte aparta izan zen, non burtsako indize nagusiek errealizazio historikoak izan zituzten, sektore teknologikoaren susperraldia, martxoko banku krisiaren osteko finantza egonkortzeak eta adimen artifizialaren inguruko baikortasunak bultzatuta. Gainera, 2024a berriro nabarmendu zen bere ezohiko portaeragatik.

Zehazki, Europan, euroguneko konpainia nagusiak biltzen dituen Eurostoxx 50 indizeak %10,8 egin zuen gora, inflazioaren egonkortzeak, aurreikuspen geopolitikoaren hobekuntzak eta finantza eta industria sektoreen tonu onak lagunduta. Joera horren ildotik, IBEX-35 indizeak %14,8 areagotu zuen bere balioa, finantza sektorearen portaera onak bultzatuta, marjina handiez eta tasen murrizketen igurikimenez baliatu baitzen. Bestalde, Italiako MIB FTSEk %13ko hazkundera izan zuen, eraikuntzaren sektorearen dinamismoan eta Italiako zor subiranoaren gaineko pertzepzioaren hobekuntzan oinarrituta. Era berean, Alemaniako DAXek %20ko errealizazioa gainditu zuen, manufakturen, softwarearen eta teknologiaren sektoreek bultzatuta. Aitzitik, Frantziako CAC 40 indizea izan zen ekitaldia negatiboan amaitu zuen Europako indize handi bakarra, %2,2ko

jaitzierarekin, barne kontsumoaren ahuleziak, kontu publikoen gainerako presioak eta luxua eta automozioa bezalako funtsezko sektoreen apaltzeak eraginda.


AEBetan, S&P 500 eta Nasdaq gailur historikoetara iritsi ziren, %23,3ko eta %43,4ko igoerekin, hurrenez hurren, teknologia handien jardun sendoak eta adimen artifizialaren inguruko gogo biziak bultzatuta. Hala ere, joera hori 2025eko lehen hilabeteetan itzuli zen. Administrazioa aldatu ondorengo ziurgabetasun politikoak, “Askapen Eguna” deiturikoarekin goia jo zuenak, eta DeepSeek fenomenoak agertu ondoren balio teknologikoak zuzendu izanak, atzerakada handia eragin zuten indize nagusietan. Zehazki, S&P 500ek eta Dow Jonesek bi digituko erorikoak izan zituzten apirilaren erdialdean. Ondoren, AEBek eta Europar Batasunak muga zergen arloan merkataritza akordio bat egiteko aukeraren aurrean baikortasun berriak tonu positiboa berreskuratzea ahalbidetu zuen. Ekainaren amaieran, %5,5eko eta %3,6ko balio irabaziak pilatu zituzten, hurrenez hurren.

Aitzitik, Europako burtsa merkatuek hasieratik erakutsi zuten zurrumbilo globalen aurrean erresilientzia gaitasun handia. Muga zerga berrien hasierako eragina eta hegakortasun geopolitikoa gorabehera, indize nagusiek aurrerapen esanguratsuak izan zituzten. Ekainaren amaieran, IBEX-35 indizea izan zen igoeren buru, %20,7ko igoerarekin, barne kontsumoaren susperraldiak eta banku sektorearen dinamismoak bultzatuta. Alemaniako DAXak %20,2 irabazi zuen, azpiegiturretan eta defentsan egindako gastu publikoaren gorakadak lagunduta, eta Frantziako CAC 40 %5,1era mugatu zen, industria sektorearen ahuleziak eraginda.

Gorabidean diren merkatu nagusietako burtsen dinamikari dagokionez, 2024an Brasilgo Burtsak (BOVESPA) %10,4ko beherakada izan zuen, narriadura fiskalak, errearen balio galerak eta ziurgabetasun instituzionalak eraginda. Argentinan, Merval indizea %19,0 jaitsi zen, ezegonkortasun makroekonomiko handiko testuinguru batean. Bestalde, Mexikoko Balore Burtsak (BMV) %13,7 egin du behera, ziurgabetasun politikoak eta ahultasun ekonomikoak eraginda. Beheranzko joera horiek 2025eko lehen erdian mantendu dira, Mexikoko BMVn izan ezik, non merkatuak %16 egin duen gora, atzerriko kapitalaren sarrera handiagoak eta enpresen konfiantza hobetzeak bultzatuta.

Truke tasei dagokionez, euroak dolarrarekin alderatuta 2024an izan duen bilakaeran sentsibiltate handia egon zen diru politikaren igurikimenean aldaketekiko, tentsio geopolitikoekiko eta AEBen eta euroaren eremuaren arteko hazkunde ekonomikoaren desadostasunekiko. Faktore horiek hegazkortasuneko gertakariak sortu zituzten urtean zehar, baina sakoneko joera nabarmen aldatu gabe.

EBZk euroarentzat ezarritako truke tasa ofizialak. Moneta unitateak euro bakoitzeko
53. irudia



Iturria: Espainiako Bankua.

Zehazkiago adierazita, lehen seihilekoan dolarraren balioak nabarmen egin zuen gora, AEBko lan merkatuaren sendotasunak eta Erreserba Federalak diru politika murriztaileago baten pertzepzioak bultzatuta. Geroztik, euroak posizioak berreskuratu zituen hirugarren hiruhilekoan, AEBetako inflazioaren moderazioak eta tasen murrizketen igurikimenek lagunduta. Hala eta guztiz ere, urte amaiera aldera, Donald Trumpen izendapenak dolarra indartu zuen berriro. Oro har, urteko batez

besteko truke tasa ia egonkor mantendu zen 2023arekin alderatuta, eta euro bakoitzeko 1,082 dolarrekoa izan zen.

Libera esterlinari dagokionez, euroak balio galera txiki bat izan zuen 2024an, 0,871 libratik 0,847 librara igaro baitzen euro bakoitzaren balioa, hau da, %2,75eko jaitsiera. Mugimendu horrek Erresuma Batuko ekonomiaren sendotasunari eta Ingalaterrako Bankuak interes tasen politikan erakutsitako irmotasunari erantzun zien, EBZren lehen murrizketekin kontrastean. Erresuma Batuko dibisa ere hobetu egin zen herrialde hartako hazkunde aurreikuspenek hobera egin eta gero.

Japoniako yenaren aldean, euroaren portaera bereziki azpimarragarria izan zen. Izan ere, Japoniako Bankuak diru politika ez hain hedakor baterantz bira egin arren, herrialde hartako dibisak bere ahultze bideari jarraitu zion. 2024an, euroa %7,8 jaitsi zen yenaren aldean, eta euro baten truke 163,8 yen ordaintzera iritsi zen, historikoki maila handia baita. Indartze horrek yenaren egiturazko ahultasuna islatzen du, etekin errealeko negatiboen eta kapitalak dolarretan eta eurotan izendatutako aktiboetarantz irtetearen testuinguruan. Japoniako dibisaren gainerako presioak bere horretan jarraitu zuen, baita bonu subiranoen etekinen gorakadarekin ere, eta horrek arreta jarri zuen Japoniako Bankuaren balizko esku hartze baten gainean.

2025ean, Europako monetak balio irabazi orokorra izan du, eurogunean ingurune ekonomikoa hobetzeak, egonkortasun politiko handiagoak eta Erreserba Federalak bira egokiagoa emateak bultzatuta. Testuinguru horretan, euroak %6,5 egin du gora dolarraren aldean lehen seihilekoan, eta 1,152 dolarrera iritsi da ekainean. Libera esterlinaren aurrean, lur pixka bat berreskuratu du (0,85 libera euro bakoitzeko), eta Japoniako yenaren aurrean, berriz, gora egiten jarraitu du, baina intentsitate txikiagoarekin: 166,5 yen ordaindu dira euro bakoitzeko. Horren guztiaren ondorioz, euroaren truke tasa efektibo nominala %100etik gorakoa izan da, eta dibisa saski haztatu baten aldean, oro har, balioa handiagoa da. Bilakaera horrek inportatutako inflazioa moteltzen eta energiaren eta lehengaien prezioen gainerako presioak murrizten laguntzen du.


Finantza osasunari dagokionez, familiek zuhurtasunez jokatu zuten 2024an ere, interes tasak oraindik handiak ziren eta inflazioa pixkanaka moteltzen ari zen testuinguru batean. INEren datuen arabera, aurrezki tasa errenta gordin erabilgarriaren %13,6ra igo zen 2024an, 2023ko %12,0 zein pandemiaren aurreko batez besteko historikoa gaindituta. Aurrezkiaren gorakada horri mesede egin zioten enpleguaren hazkunde sendoak, soldaten hobekuntzak eta gizarte prestazioen igoerak, bai eta kapitalaren diru sarrera handiagoek ere, aurreztaileentzat errentagarritasun handiko ingurune batean. Halaber, errenta erabilgarria inflazioaren gainetik hazi zen, eta, horri esker,

erosteko ahalmena berreskuratu eta familien finantza koltxoia indartu zen. Termino absolutuetan, Espainiako familien aurrezki gordina 139.900 milioi eurora iritsi zen, 2023arekin alderatuta 26.000 milioiko igoera. Urtearen azken txanpan kontsumoa goraka hasi bazen ere, 2024a familien aurrezkia sendotzeko ekitaldi gisa itxi zen.


Hala ere, 2025eko lehen hiruhilekoan bira esanguratsua eman da. Familien aurrezki tasa beren errenta gordin erabilgarriaren %4,8ra jaitsi zen, 2024ko aldi berean erregistratutako %6,4aren oso azpitik eta aurreko urteko %13,6ko urteko batez bestekotik urrun. Beherakada horren arrazoa kontsumo pribatuaren dinamismo handiagoa da, errenta erabilgarriaren gainetik hazi baitzen, inflazio txikiagoko, interes tasen jaitsierako eta familien konfiantza handiagoko testuinguruan. Gainera, ziurgabetasun ekonomiko globala handitzeak eta errenta tarte handienetan aurrezkia bultzatzeak zuzenketa hori egiten lagun dezakete. Errenta nazional erabilgarri gordina urte batetik bestera %5,1 hazi bazen ere, aurrezkia %20,9 murriztu zen, eta horrek erakusten du portaera finantzarioa aldatu egin zela aurreko urteetan egindako eusteko ahaleginaren ondoren.

Gordailuen bilakaera. Milioi euro
54. irudia

Gordailu pribatuak



Gordailu publikoak



Iturria: Espainiako Bankua.


EAEko familien kasu espezifikoan, 2024ak joera aldaketa bat eragin zuen aurrezkiaren dinamikan, 2023aren amaieran erregistratutako uzkurdura arinaren ondoren. Urtean zehar, gordailu guztiak %4,2 hazi ziren eta 100.326 milioi euroko maximo historikoa lortu zuten. Gorakada horri mesede egin zioten lan merkatuaren hobekuntzak, errenta erabilgarriaren igoerak eta finantza erakundeen politika aktiboago batek, zeinak ordainsari handiagoak eskaintzen hasi baitziren likidezia erakartzeko, EBZk estimuluak kentzeko testuinguru batean. Hazkundera bereziki handia izan zen eperako gordailuetan, urte arteko %24,6 hazi baitziren; ageriko gordailuak, berriz, %0,7 baino ez ziren hazi, eta produktu errentagarriagoetara aldatzeko gogoia sendotu zuten. Ekainean tasek behera egin zuten arren, erakundeen arteko lehiak erakargarri mantendu zituen errentagarritasunak, eta horrek joera hori indartu zuen.

2025eko lehen hiruhilekoan, ordea, aurrezkiaren hazkunderaren erritmoa moteldu egin zen. Gordailu guztiak 99.588 milioi eurokoak izan ziren, hau da, urte arteko %2,6ko hazkundera. Sektore pribatuak bilakaera positiboa izan zuen, %2,8ko hazkunderarekin, berriro ere eperako gordailuek bultzatuta, %11,8 hazi baitziren eta 15.200 milioi eurotik gorakoak izan baitziren. Ageriko gordailuak, berriz, %1,1 handitu ziren, eta aurreko urtearen amaieran hasitako susperraldiaren bidea sendotu zuten. Sektore publikoak ere lagundu zuen hazten, %1,1eko gehikuntzarekin bere gordailuetan.

Kredituen ibilbideari dagokionez, EAEko eragileek zorpetzea gutxitzeko prozesua luzatu zuten 2024an zehar, oraindik ziurgabetasun ekonomikoak eta finantzaziorako baldintzak gogortzeak markatutako testuinguru batean. EBZk urteko bigarren erdian tasak murrizteko bideari ekin zion arren, kredituaren gaineko eragina mugatua izan zen, bai familiek bai enpresek jarrera zuhurra izatea erabaki baitzuten, zorraren amortizazioa lehenetsiz finantza konpromiso berriak hartzearen aurrean.

Familien portaerari dagokionez, kreditu pribatuaren portaera nagusiki hipoteken eta, neurri txikiagoan, kontsumorako maileguen gorakadak markatu zuen batez ere. Igoera hori banku erakundeen arteko lehia handiagoak eta finantzaziorako baldintzak zertxobait hobetzeak eragin zuen, nahiz eta interes tasak oraindik nahiko altu mantendu ziren. Gorakada hori gertatu bazen ere, ez zen lortu zorpetzea gutxitzeko joera orokorra iraultzea, zeren eta familia askok zorra amortizatzen eta aurrezkia lehenesten jarraitu baitzuten, oraindik zalantzarik den ingurune ekonomiko baten aurrean.

Kredituen bilakaera
55. irudia



Iturria: Espainiako Bankua.

Beste aldetik, enpresa txiki eta ertainek kreditu murrizketei aurre egiten jarraitu zuten. Urteko une batzuetan diru laguntzak emateko irizpideak apur bat lasaitu baziren ere, kredituen eskari efektiboak bere horretan jarraitu zuen. ETE askok, pandemiaren geroztik metatutako finantza higadurak eraginda ere, zorrarekiko esposizioa murriztea eta balantzeak indartzea erabaki zuten. Ondorioz, mailegu pribatuaren saldoa 757 milioi euro murriztu zen 2024an, eta sektore pribatuaren zorpetzea 56.900 milioi eurokoa izan zen, 2004tik izandako mailarik txikiena. Sektore publikoak ere dinamika horretan lagundu zuen, zorpetze maila %4,2 murriztu baitzuen, 8.435 milioi eurotan utzi arte.

Oro har, EAEko kredituen bolumen osoa %1,7 gutxitu zen 2024an, 65.335 milioi euroraino. Bilakaera hori gordailuen bilakaerarekin kontrastatu zen, %4,2 hazi baitziren eta 100.326 milioi iritsi baitziren, bi finantza tresnen arteko saldo positiboa are gehiago handituz. Gordailuen eta kredituen arteko aldea 35.000 milioi euro ingurukoa izan zen, eta erregistroak daudenetik dagoen diferentzialik handiena finkatu zen.


2025eko lehen hiruhilekoan ere joera horri eutsi zitzaion, baina pixka bat motelduta. Maileguen bolumen osoa 65.717 milioi eurokoa izan zen, hau da, urte arteko %1,4ko jaitsiera izan zen 2024ko

hiruhileko berarekin alderatuta, nahiz eta igoera txiki bat jaso du (%1,5) 2024ko amaierako zenbatekoarekin alderatuta. Sektore publikoak bideratu zuen doikuntzarik handiena, zorpetzea %9,7 murriztu baitzen, 7.946 milioiraino, bost urtean izan duen mailarik txikieneraino. Sektore pribatuari emandako kreditua, berriz, ia ez zen aldatu (-%0,1), eta 57.770 milioi euro inguruan egonkortu zen.


Oro har, datuek erakusten dute, finantzaziorako baldintzak hobetu diren arren, EAEko eragileek jarrera zuhurra erakusten jarraitzen dutela, balantzeen onbideratzean zentratuta, baina kreditua egonkortzeko eta aurrezpena pixkanaka normalizatzeko seinaleekin.

Etxebizitzaren hipoteken bilakaera (milakoak) eta 12 hileko euriborra **56. irudia**

Formalizatutako hipotekak



Formalizatutako hipoteken zenbatekoa



Iturria: INE eta Espainiako Bankua.

Hipoteken merkatuari dagokionez, INEren arabera, 2024an EAEn formalizatutako hipoteken kopurua %10,3 igo zen, eta 21.006 eragiketara iritsi zen, hau da, 2023an galdutako eremuaren zati bat berreskuratu zuen, orduan erregistratu baitzen pandemiaren geroztik izandako zifrarik txikiena. Gorakada hori gorabehera, hipoteka kredituaren guztizko bolumenak bere horretan jarraitu zuen, eta hipotekaren batez besteko zenbatekoa 158.976 eurokoa izan zen, aurreko ekitaldikoaren oso antzekoa. Portaera horrek zera iradokitzen du, EAEko familiek neurri batean etxebizitza erosteari

ekin zioten arren, kontu handiz egin zutela, aurrezkietan oinarrituta eta banketxeen arteko lehia handiagoaz baliatuta, finantzaketa baldintzak nabarmen hobetu beharrean.

Hipotekak eskuratzeko kredituaren portaeran erabakigarria izan zen Euriborraren ibilbidea. 2023ko irailean goia jo ondoren (%4,228), hamabi hilabeterako Euriborrak, tasa aldakorreko hipoteketarako erreferentzia nagusia baita, beheranzko bideari ekin zion berriro, eta joera hori 2024an areagotu egin zen, EBZk dirua erlaxatzeko zituen igurikimenekin batera. 2024aren amaieran, indizeak azken hamabi urteetako urte arteko jaitsierarik handiena metatu zuen, abendua %2,436ko batez bestekoarekin amaitu baitzuen, 2023arekin alderatuta 1,244 puntu gutxiago direlarik. Joera hori 2025eko lehen erdian mantendu zen, eta ekainean hileko batez bestekoa %2,08 izan zen, hau da, sei hilabete eskasean ia puntu erdiko jaitsiera izan zuen. Jaitsieraren erritmoa moteldu egin da aurreko hilabeteekin alderatuta, baina inpaktua nabarmena da oraindik familien ekonomientzat.

2.3 Merkataritza politika


2025eko udaberrian, Estatu Batuetako gobernuak Europar Batasunari zuzenean eragin zion estrategia komertzial protekzionista suspertu zuen. Neurriek automobilen eta produktu metalurgikoen gaineko %25eko muga zergak jaso zituzten, baita Europako gainerako produktuen gaineko %20ko muga zerga orokorra ere, salbuespen batzuekin. Neurri horietako batzuetarako 90 eguneko luzamendua iragarri bazen ere, muga zerga gehienak indarrean jarri ziren eta ziurgabetasun nabarmena sortu zen nazioarteko merkatuetan.

Azterketa hau neurri horiek euskal ekonomian duten eraginari dagokio, CEPREDEK BasqueTraderentzat garatutako simulazio batetik abiatuta. Analisiak bi eredu konbinatzen ditu: SMART, nazioarteko merkataritzaren gaineko eraginak zenbatesten dituen, eta EUREGIO-2017, zeharkako eraginak balio kateen bidez ebaluatzeko aukera ematen duena. Hurbilketa bikoitz horri esker, esportazioen gaineko eragin zuzena eta eskualdeko produkzio ehunaren gaineko ondorio zabalenak atzeman daitezke.

Emaitzarik nabarmenena da Euskadiko BPGa %0,33 murriztu daitekeela muga zergen ondorioz. Jaitsiera hori honela banatzen da: %0,267ko eragin zuzena, esportazioen galeraren ondorioz, eta %0,059ko zeharkako ondorioak, tarteko ondasunen eta lotutako zerbitzuen eskari txikiagoari

lotuta. Datu hori testuinguruan kokatzeko, Espainia osoko batez besteko eragina $-0,21\%$ ingurukoa da, eta Asturias, Andaluzia edo Katalunia bezalako erkidegoek antzeko beherakadak izan dituzte. Beste muturrean, Kanariak, Ceuta edo Melilla bezalako erkidegoek inpaktu neurritsuagoak dituzte, $-0,1\%$ etik beherakoak. Enpleguari dagokionez, 3.381 lanpostu galduko direla kalkulatu da, eta, ondorioz, Euskadi da Espainiako erkidego kaltetuenetako bat.

BPGren gaineko eragina eskualdearen arabera
57. irudia




Iturria: 2.0. Merkataritza Gerra: Estatu Batuetako muga zergen eragin ekonomikoa Euskal Herrian. Basque Trade & Investment eta CEPREDE

Nahiz eta gehitutako inpaktuak moderatua dirudien, sektore azterketak askoz ere ñabardura gehiago dituen errealitatea erakusten du. Euskal industria da, eta bereziki manufaktura osagaia, Estatu Batuek ezarritako muga zergen aurrean arrisku handiena duena. Urrakortasun horren arrazoia industria sektore askoren esportazio orientazioa eta nazioarteko balio kateetan duten integrazioa dira. Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa, petrolioaren finantza, makineria

industrial eta zuraren industria dira jaitsierarik handienak balio erantsi gordinean (BEG), kasu batzuetan sektoreko BEGaren %2 gainditzen duten jaitsierekin. Jaitsiera horiek, esportazioen zuzeneko galera ez ezik, hornitzaileengan eta zerbitzu laguntzaileengan izandako eragina ere islatzen dute.

Eragindako sektore nagusiak. Eragin erlatiboa BEGaren ehunekoetan. Euskadi
58. irudia




Iturria: 2.0. Merkataritza Gerra: Estatu Batuetako muga zergen eragin ekonomikoa Euskal Herrian. Basque Trade & Investment eta CEPREDE

Sektore bakoitzak eskualdeko BPGaren jaitsierari egiten dion ekarpena, eraginaren intentsitatearen arabera izateaz gain, jarduerak bakoitzak euskal ekonomian duen pisu erlatiboaren arabera ere bada. Elikagaien eta edarien sektorea termino erlatiboetan kaltetuena ez bada ere, haren inpaktua sektorearen balio erantsi gordinaren -%1,1 ingurukoa da, sei agertokien azterketa

agregatuaren arabera, bai, ordea, balio absolututan, haren tamaina dela eta. Izan ere, eskualdeko BPGaren jaitsierari egindako ekarpena ehuneko -0,045 puntukoa da, aztertutako sektore guztien artean handiena. Gauza bera gertatzen da handizkako merkataritzan, esposizio moderatua (%0,21eko eragin erlatiboarekin) eta garrantzi ekonomiko handia konbinatzen baititu, eta horrek BPGaren jaitsierari ehuneko -0,017 puntuko ekarpena egiten dio. Kanpoko sentsibilitatearen eta egiturazko pisuaren konbinazio horrek funtsezko pieza bihurtzen ditu bi sektoreak muga zergek euskal ekonomian duten eragin agregatua ulertzeko.

Sektore eragin absolutua (BPGari egindako ekarpena, sektoreko BEGaren %)

59. irudia




Iturria: 2.0. Merkataritza Gerra: Estatu Batuetako muga zergen eragin ekonomikoa Euskal Herrian. Basque Trade & Investment eta CEPREDE

Enpleguari dagokionez, lan intentsitate handiena duten sektoreak dira kaltetuenak. Elikagaien industriak 448 lanpostu galdu ditu, eta ondoren handizkako merkataritzak, ekipo elektrikoek fabrikazioak eta makineriak. Zerbitzu sektoreetan ere galera nabarmenak izan dira, hala nola

segurtasunean, logistikan eta ingeniartzan, balio kate industrialetan duten partaidetzaren ondorioz.

Lurraldeka, Euskadik 3.381 enpleguko galera izango du gutxi gorabehera, eta horrek eragin handiena duten erkidegoen artean kokatzen du. Katalunia da rankingeko liderra, 7.480 enplegu baino gehiago suntsituta; ondoren, Andaluzia eta Valentziako Erkidegoa daude, 5.500 eta 5.300 enplegu baino gehiagorekin, hurrenez hurren. Beste muturrean, Galizia edo Murtziako Eskualdea bezalako eskualdeek inaktu askoz ere handiagoak dituzte, 250 enplegutik beherako galerekin. Banaketa horrek erakusten du industria esportatzaileak lurralde bakoitzean duen pisua eta Estatu Batuekiko merkataritza fluxuekiko duen esposizio maila.


Sektore kaltetuenak enpleguari dagokionez (galdutako lanpostu kopurua). Euskadi
60. irudia



Iturria: 2.0. Merkataritza Gerra: Estatu Batuetako muga zergen eragin ekonomikoa Euskal Herrian. Basque Trade & Investment eta CEPREDE

Euskadiren eta Estatu Batuen arteko merkataritza erakusketak azaltzen ditu, hein handi batean, emaitza horiek. Sektore batzuek guztizko ekoizpenaren %5 baino gehiago esportatzen dute Estatu Batuetako merkatura. Horren adibide dira koke-lantegiak eta petrolioaren fintzea (%7,8), ekipo elektrikoen fabrikazioa (%5,9) eta aire garraioa (%4,2). Mendekotasun horren ondorioz, sektore horiek bereziki kalteberak dira Ipar Amerikako merkaturan sartzeko baldintzetan gertatzen den edozein aldaketaren aurrean.

AEBekiko zuzeneko esposizio handiena duten euskal sektore nagusiak. Sektoreko ekoizpen osoaren %an
61. irudia




Iturria: 2.0. Merkataritza Gerra: Estatu Batuetako muga zergen eragin ekonomikoa Euskal Herrian. Basque Trade & Investment eta CEPREDE

Ehunekotan, Euskadiren eta Estatu Batuen arteko merkataritza harremanean, honako hauek dira sektorerik garrantzitsuenak: kokea eta petrolioaren fintzea, elikagaien industria, ekipo elektrikoen fabrikazioa, makineria industriala eta finantza-zerbitzuak. Sektore horiek biltzen dute euskal

merkataritzaren zatirik handiena Estatu Batuetako merkatuarekin, eta, beraz, muga zergen eragina transmititzeko bide nagusi gisa jarduten dute. Petrolioa fintzea, adibidez, Estatu Batuetara esportatutako guztiaren %20 baino gehiago da, eta, ondoren, elikagaiak eta edariak daude, %19 inguruko kuotarekin. Material elektrikoaren eta makineriaren fabrikazioa ere %5etik gorakoa da, eta horrek agerian uzten du esposizio handia dagoela. Finantza zerbitzuak industria sektore tradizionalen artean ez badaude ere, esportazioetan duten garrantziak agerian uzten du balio erantsi handiko jarduerak gero eta nazioartekoagoak direla. Sektorekako kontzentrazio horrek esan nahi du AEBetako merkatuan sartzeko baldintzen edozein aldaketak berehalako ondorio esanguratsuak dituela EAEko produkzio sarean, bereziki kanpo-merkataritzarekiko mendekotasun handia eta enpleguan eta eskualdeko BPGan presentzia handia duten sektoreetan.

AEBetako zuzeneko esposizio handiena duten euskal sektore nagusiak. Sektoreko ekoizpen osoaren %an
62. irudia



Iturria: 2.0. Merkataritza Gerra: Estatu Batuetako muga zergen eragin ekonomikoa Euskal Herrian. Basque Trade & Investment eta CEPREDE

Analisiak ondorioztatzen duenez, BPGraen gaineko eragin globala mugatua dela dirudien arren, sektoreen eta lurraldeen arteko eraginak esanguratsuak dira. Euskal industriak, bere profil esportatzaileagatik eta nazioarteko balio kateetan integratzeagatik, eragin berezia du. Enplegu galera, industria sektoreetan kontzentratuta badago ere, produkzioari lotutako zerbitzu jardueretara ere iristen da.

Etorkizuneko bilakaera, neurri handi batean, Europar Batasunaren negoziazio gaitasunaren eta merkatuen erantzunaren arabera izango da. Errepresalien, merkataritza fluxuen doikuntzen edo kanbio tasen aldaketen aukerak ziurgabetasuna gehitzen dio agertokiari. Horregatik, ezinbestekoa da zaintza aktiboa izatea eta simulazioak eguneratzea, gertaerak garatu ahala.

2.4 Lehiakortasun politika

Europak erronka eta trantsizio handiei egin behar die aurre, eta estatu kideek eta eragile ekonomikoek estrategia partekatua behar dute. 2023an, Europako Batzordeak Italiako Gobernuako presidente ohi Enrico Lettari txosten bat idazteko eskatu zion, Europako merkatu bakarrak garatzeko zituen zailtasunak eta horiek gainditzeko modua jasotzeko. Oinarrizko lau askatasunetan oinarritu zen: ondasunen, zerbitzuen, pertsonen eta kapitalen zirkulazio askea. Lettaren txostena, "Merkatu bat baino askoz gehiago" izeneko, 2024ko apirilean eman zen ezagutzera, eta bosgarren askatasun bat planteatzen zuen, ikerketarekin, berrikuntzarekin eta hezkuntzarekin lotuta. Txostenaren arabera, Europako ekonomiaren produktibitatea txikiagoa da garatutako beste ekonomia batzuekin alderatuta, esaterako, Estatu Batuekin alderatuta. Arrazoiak askotarikoak dira: enpresen tamaina txikiagoa, biztanleriaren zahartzea, inbertsio txikiagoa eta giza kapital falta.

Txosteneko errezeten artean, kapital merkatuen batasunari bultzada berri bat ematea aipatzen da, Europako sektore pribatuaren gehiegizko aurrezpena European inbertsio proiektuak finantzatzeko erabil dadin, Europatik kanpo egin beharrean. Europako enpresen batez besteko tamainari ere garrantzia ematen zaio, Estatu Batuetakoa eta Txinakoa baino txikiagoa. Horrek eragin negatiboa du berrikuntzan, produktibitatean, enpleguaren sorreran eta Europar Batasuneko segurtasunean. Txostenean kezka bat dago batasuna ez delako kolektibo guztien onerako, eta, beraz, gizarte kohesioari eta enpresa txiki eta ertainei laguntzeari ematen die garrantzia. Europako legeria sinplifikatzeko dei bat ere badago, batzuetan gainjarri egiten dena.

Txosten horren osagarri, Mario Draghi, Europako Banku Zentraleko presidente izandakoak, dokumentu bat egin zuen, Europako lehiakortasuna hobetzeko zenbait jarduera aholkatzeko. Bere txostenean (The future of European competitiveness), Europak Estatu Batuekin eta Txinarekin alderatuta bizi duen gainbehera geldiarazteko estrategia bat proposatzen du. Izan ere, Europako batez besteko hazkundera, 2002-2023 aldian, urteko %1,4koa izan zen, Estatu Batuetako ekonomiaren %2,0koa eta Txinakoaren %8,3koa. Dinamismo txikiago hori Europako produktibitatearen hazkunde txikiagoagatik gertatzen da, eta horrek aipatutako beste bi potentziak baino lehiakorrago bihurtzen du.

Txostenak adierazten du, halaber, Gerra Hotzaren amaieratik Europaren hazkundera bultzatu zuten faktoreetako batzuk desagertzen ari direla. Batek nazioarteko merkataritzaren garapen bizkorrekin du zerikusia, Europako ekonomiari esportatzaile handi gisa mesede egin ziona. Eredu hori krisian dago, eta ez da aurrerapen handirik espero merkataritzaren arloan, protekzionismora itzulita. Hazteko beste faktore bat desagertzen ari da: Errusiatik energia merkea hornitzea, Ukrainaren inbasioaren ondorioz. Azken horri lotuta, hirugarren faktore bat dago: Europaren segurtasuna handitzeko beharra, Estatu Batuen mende hainbeste egon gabe.

Europaren lehiakortasuna indartzeko helburu nagusiarekin, Draghi txostenak sei ardatz estrategiko proposatzen ditu: berrikuntzako arrakala ixtea, deskarbonizazio eta lehiakortasun plan bat egitea, segurtasuna handitzea eta mendekotasunak murriztea, inbertsioak finantzatzea, Europako gobernantza erreformatzea eta gizarteratzea zaintzea.

Draghiren ideietatik abiatuta, Lehiakortasunaren Iparrorratza izeneko ekimena aurkeztu zuen Europako Batzordeak, Batzordearen lana bideratzeko esparru estrategikoa eskaintzen duena. Iparrorratzak Europa neutraltasun klimatikoa lortzera bideratutako produktu garbiak, etorkizuneko teknologiak eta zerbitzuak asmatu, fabrikatu eta merkaturatzeko tokia izateko bidea markatzen du. Europak dagoeneko baditu Draghi aipatzen zuen produktibitatearen hobekuntza hori lortzeko osagai asko. Adibidez, eskulan trebatua eta talentua ditu, kapitala eta aurrezkia, merkatu bakarra eta beste eremu ekonomiko batzuetan nekez aurki daitezkeen gizarte azpiegiturak.

Iparrorratzak bere gain hartzen ditu Draghi bere txostenean identifikatzen zituen hiru jarduera eremu nagusiak: berrikuntza, deskarbonizazioa eta segurtasuna. Berrikuntzari dagokionez, sortzen ari diren enpresa berritzaileentzako habitat bat sortu nahi da, industria lidergoa sustatu eta enpresen eta ETEen arteko teknologien hedapena sustatu. Adimen artifiziala bultzatu nahi du eta material aurreratuei, teknologia kuantikoari, bioteknologiari, robotikari eta teknologia espazialei buruzko planak aurkeztuko ditu. Deskarbonizazioari eta lehiakortasunari buruz, energia garbi

eskuragarriko sarbidea errazten saiatuko da. Azkenik, segurtasunari eta dependentzien murrizketari dagokienez, balioa ematen zaio Europar Batasunak dituen merkataritza-akordioen sare zabalari, eta harreman horiek indartzearen aldeko apustua egiten da, lehengaien, energia garbien, garraiorako erregai jasagarrien eta teknologia garbien hornidura ziurtatzeko. Kontratazio publikoko arauak ere berrikusiko dira, funtsezko sektore eta teknologiei lehentasuna emateko.

Aipatutako hiru zutabeez gain, estrategiak bost bideratzaile horizontal definitzen ditu, funtsezkoak baitira sektore guztietan lehiakortasuna hobetzeko. Lehenengoa sinplifikazioa da, arau eta administrazio karga murrizteko eta EBko funtsak eskuratzeko prozedurak eta Batasunaren administrazio erabakiak arintzeko. Bigarrena merkatu bakarraren oztopoak murrizten saiatuko da, merkatu hori izan baita Europako lehiakortasunaren motorra eta bere eraginkortasuna erakutsi baitu, baina gobernantza modernizatu eta dauden oztopoak kendu behar dira. Hirugarren alderdia lehiakortasunaren finantzaketa da, EBk ez baitu kapital merkatu eraginkorrik Europako aurrezkia Europako inbertsio bihurtuko duenik. Laugarren bideratzailea kalitatezko gaitasun profesionalak eta enplegu gaitasunak sustatzea da, eta, besteak beste, etengabeko ikaskuntzan, talentuari eustean, mugikortasun justuan eta immigrazioaren gizarteratzean oinarrituko da. Azkenik, maila nazionaleko eta Europar Batasuneko politiken koordinazioa hobetuko da.

Testuinguru horrekin, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasagarritasun Sailak Euskadiko 2030 Industria Plana aurkeztu du, Europako Batzordeak diseinatutako Lehiakortasunaren Iparrorratzarekin lotzen duena. Dokumentuak euskal industriaren indarguneak xehatzen ditu, eta horien artean nabarmentzekoak dira industria eta ekoizpen sare indartsu dibertsifikatu eta espezializatua (BEGaren %24,2), enpresen eta zentro teknologikoen lankidetzaren bidez garapen teknologikoa eta berrikuntza bultzatzen dituen ekosistema, enpresa oso lehiakor eta esportatzaile ugari dituen industria sarea, konplexutasun ekonomiko handiko eta espezializazio handiko industria sarea, industriaren beharretatik hurbil dauden lanbide heziketako eta titulazio teknikoetako sare sendoa, lankidetzak publiko-pribatu sendoaren kultura, eta Ekonomia Itunak ahalbidetzen duen zerga eta finantza autonomia.

Mundu lehiakor, aldakor eta zalantza betetako honetan, euskal industriak bere etorkizuneko lehiakortasuna baldintzatuko duten erronka batzuei aurre egin beharko die. Erronka horien artean honako hauek aipatzen dira: enpresen errotzea indartzea, enpresa traktore gehiago dituzten enpresen batez besteko tamaina handitzea, industria-ehunaren dinamismoa handitzea, talentua garatzea, emakumeei, belaunaldi berriei eta gutxiegi ordezkaturako kolektiboari arreta eskainiz, beste ekosistema industrial batzuekiko lotura indartzea, I+G+b-n inbertsio pribatua eta publiko-

pribatua handitzea, azpiegitura energetiko eta digitaletarako sarbidea, ekosistema finantzarioa indartzea eta lurzoru industrialak eta logistikoa berrantolatzea.

Erronka horiei erantzuteko, Euskadi 2030 Industria Planak hiru ardatz estrategiko eta zeharkako ardatz bat ditu, sektorearen eraldaketaren ikuspegi osoa erakusten dutenak Europako testuinguruan. Hiru ardatz estrategikoak industria gehiago, industria hobea eta emisio gutxiago gisa definitzen dira, eta zeharkako ardatzak administrazio-sinplifikazioa bilatzen du, proiektu eraldatzaileak izapidetzeko epeak %30 murrizteko helburuarekin.

Industria gehiagoren ardatzak honako hauek landuko ditu: trakzio enpresak errotzea, ETE industrialen tamaina handitzea, balio kateak osatzea sektore estrategikoetan hainbat jardueraren bidez, startup enpresen garapena barne, atzerriko inbertsioa erakartzea etorkizunerako potentziala duten sektoreetan eta euskal enpresen nazioartekotzea sendotzea merkatu estrategikoetan. Industria hobearen ardatzean bildutako ekimenek helburu hauek izango dituzte: enpresen maila teknologiko berritzailea handitzea, adimen artifiziala eta zibersegurtasuna sustatzea, azpiegitura fisiko eta digital aurreratuak sustatzea, industriara talentu berria erakartzea eta garatzea eta kudeaketa aurreratuak eta iraunkorra sustatzea. Azkenik, emisio gutxien dituen ardatzak industria jarduera deskarbonizatzea bilatuko du, lehiakortasunari eutsiz, ekonomia zirkularretik eratorritako industria aukera berriak garatzea, energia berriztagarri propioak sortzea sustatzea, sare elektrikoaren gaitasuna eta malgutasuna handitzea eta klima aldaketara egokitzea sustatzea.

Ardatz horietako bakoitza Euskadik jorratu behar duen industria eraldaketaren funtsezko dimentsioa da: produkzio oinarria indartzea, teknologia eta antolaketa lehiakortasuna hobetzea, eta industria iraunkorrago eta emisio maila txikiagoko baterantz aurrera egitea. Ardatz horiek ez dira konpartimentu estankoak; elkarren artean erlazionatzen etaosatzen dira, eta industria garapenaren ikuspegi integrala eskaintzen dute. Era berean, ardatz bakoitza bost lehentasun estrategikotan zehazten da, eta horiek zehazten dituzte hedatu beharreko ekintza ildo espezifikoak. Lehentasun horiek aribideko trantsizio handiei digitala, ekologikoa eta geopolitikoa erantzuteko formulatu dira, eta adierazle zehatzen bidez neurtzeko eta ebaluatzeko modukoak izateko diseinatu daude. Oro har, hamabost lehentasun estrategikoak dira planaren ardatz operatiboa, eta ekintza publiko eta pribatua euskal industria indartsuago, berritzaileago eta iraunkorrago baterantz bideratzen dute. Administrazio sinplifikazioaren zeharkako ardatzak arkitektura hori indartzen du, oztopo burokratikoak murriztuz eta prozedurak arinduz proiektu eraldatzaileak gauzatzea errazten baitu.

Esparru horretan, planak hiru kategoriatan sailkatzen ditu industria-sektoreak: IRABAZI, HAZI eta SALTO. IRABAZI sektoreak dira gaur egungo traktoreak, enpleguari eta balio erantsiari ekarpen handia egiten diotenak, produktibitate handia dutenak, espezializazio esportatzailea dutenak eta Europako lehentasunekin bat datozenak. HAZIk etorkizunerako trakzio potentziala duten sektoreak biltzen ditu, intentsitate teknologikoa, gaitasun zientifikoak eta merkatu globaletan hazteko ahalmen handia dutenak. Bestalde, SALTOk edozein sektoretako enpresak identifikatzen ditu, proiektu eraldatzaileen bidez lehiakortasunean, jasangarritasunean, berrikuntzan edo nazioarteko proiektzioan jauzi kualitatiboa eman dezaketenak. Sailkapen horrek aukera ematen du erabakiak hartzeko eta plana dinamikoki sektoreen bilakaerara egokitzeko.

Jarduera ardatzak eta lehentasun estrategikoak (I)
28. taula

Jarduera ardatza	Lehentasun estrategikoa	Deskribapena
Industria gehiago	Trakzio enpresak errotzea	Enpresa handien lurralde konpromisoa indartzea, deslokalizazioak saihesteko eta tokiko industria kohesioa indartzeko.
	ETE industrialaren tamaina handitzea	ETEn hazkundea bultzatzea, produktibitatea, inbertsio gaitasuna eta nazioartekotzea hobetzeko.
	Sektore estrategikoetan balio kateak osatzea	Katebegi kritikoak identifikatzea eta startup industrialen garapena sustatzea, produkzio autonomia indartzeko.
	Atzerriko inbertsioa erakartzea potentziala duten sektoreetan	Euskadi helmuga erakargarri gisa kokatzea funtsezko sektoreetan industria inbertsio eraldatzaileak egiteko.
	Merkatu estrategikoetan nazioartekotzea sendotzea	Euskal enpresen presentzia globala indartzea, estrategia egituratuen eta nazioarteko balio kateetarako sarbidearen bidez.

Iturria: Industria Plana-Euskadi 2030.

Jarduera ardatzak eta lehentasun estrategikoak (II)

29. taula

Jarduera ardatza	Lehentasun estrategikoa	Deskribapena
Industria hobea	Enpresen maila teknologiko berritzailea handitzea	Teknologia aurreratuen ezarpena eta I+G+b arloko lankidetzaren sustatzea, enpresa gehiago berrikuntzaren mugan jartzeko.
	IA eta zibersegurtasuna sustatzea	Adimen artifizialaren erabilera sustatzea eta ziberresilientzia indartzea, eraldaketa digital industrialaren zutabe gisa.
	Azpiegitura fisiko eta digital aurreratuak sustatzea	Digitalizazioa eta inbertsioak erakartzea erraztuko duten sare, datu zentro eta lurzoru industrial estrategikoak garatzea.
	Industriara talentu berria erakartzea eta garatzea	Prestakuntza erronka industrialetara egokitzea, gazteak eta emakumeak erakartzea, eta etengabeko ikaskuntza sustatzea.
	Kudeaketa aurreratua eta iraunkorra sustatzea	Lidergoan, jasagarritasunean, antolaketa-berrikuntzan eta gizarte erantzukizunean oinarritutako kudeaketa-ereduak bultzatzea.
Emisio gutxiago	Industria jarduera deskarbonizatzea, lehiakortasuna mantenduz	Emisioak murriztea teknologia garbien, elektrifikazioaren eta hidrogenoaren bidez, produkzio ahalmena galdu gabe.
	Ekonomia zirkularrean industria aukerak garatzea	Birziklapena, ekodiseinua eta sinbiosi industrialak sustatzea, negozio eredu berrien eragile gisa.
	Energia berriztagarri propioen sorrera sustatzea	Prozesu industrialetan autokontsumoa, sorkuntza banatua eta berriztagarrien erabilera zuzena bultzatzea.
	Sare elektrikoaren gaitasuna eta malgutasuna handitzea	Azpiegitura elektrikoak modernizatzea, berriztagarrien elektrifikazioa eta integrazioa errazteko.
	Klima aldaketara egokitzea sustatzea	Industria azpiegiturak prestatzea muturreko fenomenoaren eta etorkizuneko klima arriskuen aurrean.

Iturria: Industria Plana-Euskadi 2030.

Plana Proiektu Eraldatzaileen bidez gauzatzen da. Proiektu horiek eragin estruktural handia duten lankidetza-ekimenak dira. Proiektu horiek lidergo argia, helburu neurgarriak eta ekoizpen-sarea eraldatzeko orientazio praktikoa dituzte ezaugarri. Adibide aipagarri batzuk dira ScaleUp funtsa startup teknologikoak eskalatzeko, Hub del Dato Soberano industriarako azpiegitura digital gisa, Euskadi SpaceLab sektore espazialeko startupak bultzatzeko, Basque Zirkular Metals sektore metalurgikoan zirkulartasuna sustatzeko, Emakumea Industrian emakumea sartzea sustatzeko, eta Deskarbonizazio Harana, hidrogenoa erabiltzeko azpiegiturak garatuko dituen eta COQUEak harrapatuko dituen.

Aurrekontuari dagokionez, 2030erako Euskadiko Industria Planak 3.900 milioi euroko inbertsio publikoa erabiliko du 2025etik 2028ra bitartean. Baliabide horiek, Aldundiek eskainitakoei eta Estatuko eta Europako funtsen bidez historikoki lortutako baliabideei gehituta, Euskadiko BPGaren %2ko inbertsio publikoa batuko dute urtero. Inbertsio hori honela banatuko da: 2.100 milioi Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasuna Sailak emanda, 1.200 milioi Euskal Finantza Aliantzaren bidez, lankidetza publiko-pribatua, eta 600 milioi Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuek emanda. Inbertsio publiko horrek 12.000 milioi euroko trazio efektua eragingo duela espero da, inbertsio pribatuari dagokionez; horrela, legealdian 15.900 milioi euro mobilizatu dira guztira.

Plana tresna dinamikoa da, inguruneko aldaketetara egokitzeko gaitasuna du, eta erakundeak, enpresak, klusterrak eta zentro teknologikoak inplikatzeko dituen elkarlaneko gobernantzan oinarritzen da. Horren ezarpena etengabeko ebaluazioan eta zehaztutako helburu estrategikoei lagunduko dieten proiektu berriak arian-arian txertatzean oinarrituko da, industria eredu lehiakorragoa, iraunkorragoa eta Euskadirentzat inklusiboagoa izan dadin. Oro har, 2030erako Euskadiko Industria Plana industria sendoago, berritzaileago eta jasangarriago baten aldeko apustu irmoa da, XXI. mendeko trantsizio handien buru izateko gai izango dena, Euskadiko eta Europako ikuspegitik.

3 AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

3.1 Inguruneko aurreikuspenak

Gaur egungo ziurgabetasun eta politika ekonomikoko lehentasunen berrantolaketa ingurunean, Nazioarteko Diru Funtsaren epe ertainerako aurreikuspenek aurreko hamarkadetan baino hazkunde estruktural baxuagoa ezaugarri duen mundu bat irudikatzen dute, herrialde eta eskualdeen arteko desberdintasun nabarmenekin.

Biztanleria zahartzeak lan eskaintza mugatuko du ekonomia aurreratu nagusietan, pentsio eta osasun sistemetan presioa eginez eta, aldi berean, hazkunde-potentziala murriztuz. Trantsizio teknologikoak, adimen artifizialak eta bestelako berrikuntza digitalek partzialki konpentsatuko dituzte murrizketa horiek, baina eragina eskualdeen eta produkzio sektoreen arabera desberdina izango da. Gastu mugak, historikoki zorpetze maila handia izatearen ondorioz, mugatu egingo dute gobernuen gaitasuna politika hedakorrei eusteko, joera demografikoaren ondorioz egiturazko gastua handituko den testuinguru batean. Azkenik, klima-aldaketak eta horri lotutako trantsizio energetikoak inbertsio erronkak eta ekoizpen ereduak egokitzeko kostuak planteatzen dituzte, eta hauek ere modu desberdinean eragingo dute.

Mundu mailan, NDFk BPGaren urteko batez besteko hazkundeak % 3,1ekoa izango dela aurreikusten du 2025 eta 2030 artean, 2000-2019 bitartean erregistratutako %3,7ko batez bestekoa baino nabarmen txikiagoa. Hazkundearen motelaldia faktore ziklikoen eta estrukturalen konbinazioaren ondorio da. Alde batetik, azken urteetako krisien ondorioek bere horretan diraude: pandemia, inflazioa, Ukrainako gerra eta, azkenik, tentsio komertzialen gorakada Estatu Batuek iragarritako neurri protekzionista berrien ondorioz.

Aldagai ekonomiko nagusiak
30. taula

Aldiaren batez besteko hazkundera

	BPG erreala		BPGpc		Langabezia tasa		Inbertsioa (%)		Produktibitatea*	
	95-24	25-30	95-24	25-30	95-24	25-30	95-24	25-30	95-24	25-26
Munduko ekonomia	3,5	3,1	-	-	-	-	25,0	26,5	-	-
Herrialde garatuak	2,1	1,6	1,5	1,3	-	-	22,7	22,3	-	-
AEB	2,5	2,0	1,6	1,4	5,6	4,0	21,5	21,7	1,6	1,1
Japonia	0,7	0,6	0,7	1,1	3,8	2,6	26,3	26,2	0,5	0,3
Erresuma Batua	1,9	1,4	1,2	0,8	5,7	4,3	17,7	17,1	0,9	0,3
Europar Batasuna	1,7	1,5	1,5	1,3	-	-	22,0	21,6	-	-
Alemania	1,2	0,9	1,0	0,8	6,5	3,1	21,2	21,3	0,5	0,6
Frantzia	1,5	1,1	1,0	0,8	9,1	7,2	21,8	19,9	0,8	0,9
Italia	0,7	0,7	0,5	0,8	9,5	6,8	20,4	24,2	0,2	0,4
Espainia	2,0	1,8	1,3	0,8	16,2	11,0	23,2	21,1	0,2	1,0
Garapen bideko	4,9	4,0	3,4	2,9	-	-	29,1	32,3	-	-
Txina	8,2	3,9	7,7	4,1	5,2	5,1	40,9	41,3	-	-
Latinoamerika	2,4	2,5	1,1	1,8	-	-	20,2	19,7	-	-
Saharaz heg. Afrika	4,2	4,3	1,4	1,7	-	-	20,6	23,8	-	-


Iturria: International Monetary Fund. World Economic Outlook database: April 2025. (*) Langileko produktibitatea

Estatu Batuetan, BPGaren urteko batez besteko hazkundera %2,0koa izango da 2025 eta 2030 bitartean. Dinamismo hori beste ekonomia garatu batzuen baina handiagoa izango da, lan-produktibitateak aurrera egiten jarraituko duelako eta inbertsio teknologikoko lidergoari esker, bereziki adimen artifizialaren eta digitalizazioaren arloetan. Inbertsioak antzeko mailan jarraituko du BPGrekin alderatuta, eta horrek, bere ekonomiaren hazkunde handiagoak medio, Europako ekonomiekiko inbertsio arrakala handituko du. Langabezia tasa %4,0 inguruan egonkortuko da, bitartean biztanleria zahartzeak, immigrazio politikan egindako aldaketen ondorioz areagotu arren, Europa eta Japonian baino eragin moderatuagoa izango du, eta, horri esker, per capita errenta urteko %1,4 inguruko erritmoan haziko da. Hala ere, gero eta presio handiagoa dago finantza publikoetan: zor publikoak BPGren % 120 gaindituko du, eta egiturazko defizitak negatiboa izaten jarraituko du, epe ertainera jasagarritasun erronka larriak mahai gainean jarritz, finantza merkatuek agerian uzten duten bezala.

Europar Batasunean, hazkundera urteko batez besteko %1,5era mugatuko da 2025 eta 2030 bitartean eta dezelerazio joera luzeari eutsiko dio, 1995-2024 aldiko %1,7ko batez besteko historikoaren azpitik. Moderazio horrek biztanleriaren zahartzearen eta produktibitatearen

dinamismo txikiagoaren eragina islatzen du; azken horren hazkundea ez da %1era iritsiko ekonomia nagusietan, eta, ondorioz, Estatu Batuekiko arrakala handituko da. 62. irudian ikus daitekeenez, Europako ekonomiek pandemian izan zuten portaera AEBko ekonomiatik nabarmen aldendu zen, eta berriro ere agerian utzi zuen Europako ekonomien malgutasunik ezak ondorio kaltegarri iraunkorrak eragiten dituela krisi edo atzeraldi egoeren ondoren.

BPG erreala, BPG potentziala eta pandemia aurreko joera
63. irudia



Iturria: NDF eta Ekonomia Zuzendaritzak egina.

Oharra: 2019ko maila = 100. BPG erreala eta aurreikuspena beltzean, BPG potentziala gorrian eta joera lerro eten urdinean. 1995-2019 urteen artean eredu log-linealarekin zenbatetsitako joera. Gap joera-mailarekiko.

Herrialdeka, Alemaniak ditu aurreikuspenik ahulenak, BPGren %0,9ko eta per capita errentaren urteko %0,8ko hazkundearekin. Horrekin batera, langabezia-tasa txikia izan arren (%3,1), bere industria sareak lehendik zituen zailtasunak islatzen ditu, Ukrainako gerrak eragindako energia prezioen gorakadak areagotuta. Frantziak urtean %1,1 egingo du gora, batez beste %7,2ko langabeziarekin, eta inbertsioa BPGren % 19,9ra jaitsiko da, doikuntza fiskal zorrotzen artean; Italian, berriz, ekonomiak hamarkadak daramatzen geldialdi-egoera luzatuko da. Espainiak profil dinamikoagoa du Europako ekonomiak osatzen dituzten artean, zerbitzuen hedapenari eta migrazio fluxuei esker; urteko batez besteko hazkundera %1,8 izango dela aurreikusten da, eta produktibitatea eta enplegua hobetu egingo direla: langabezia % 11raino jaitsiko da, eta lanaren produktibitatea %1,0ra igoko da urtero.


Japoniak hazkunde apaleko ibilbidean jarraituko du, eta BPGa %0,6 baino ez da haziko urtean, 2025 eta 2030 bitartean. Produktibitateak geldirik jarraituko du, eta inbertsio pribatua ez da nahikoa izango biztanleria aktiboaren beherakada konpentsatzeko. Per capita errentak hazteko gai izango da oraindik, eta langabezia tasa, berriz, maila txikietan mantenduko da, joera demografiko beragatik, lan-merkatuaren dinamismoagatik baino gehiago. Finantza publikoek presiopean jarraituko dute, zor publikoak ekonomia garatuen artean mailarik altuena izaten jarraituko baitu, eta interes tasen bilakaerari eta monetaren sendotasunari buruzko zalantzak areagotzen ari dira.

Gapen bideko ekonomiei dagokienez, Txinak egiturazko trantsizio fase bati aurre egin behar dio, aurreikusitako urteko batez besteko hazkundera %3,9 izanik, aurreko hamarkadetan ekonomia modernizatzaren ondorioz ikusitako tasa handiagoak baino nabarmen txikiagoa, baina baita dibidendu demografikoa ere. Txinako ekonomiaren ohiko inbertsio ahalegin handia gorabehera, etxebizitza sektoreko desoreken jatorrian dauden egitura faktoreek eta esportazioen dinamismo galera, merkataritza zatiketaren ondorioz, hazkunde handiagoa eragotziko dute. Bestalde, Latinoamerikak urteko %2,5eko hazkundeari eutsiko dio; hazkunde apala da errenta per capita ertainaren mailan dauden herrialde gehienek osatutako eskualde baterako, egiturazko erreformarik eta kanpo ahultasuna baldintzatuta, batez ere lehengaiekiko eta lehen sektorearekiko mendekotasun handia duten herrialdeen kasuan.

3.2 EAEko aurreikuspenak

Pandemiak eta inflazio shock-ak euskal ekonomiaren epe ertaineko ibilbidea nabarmen baldintzatzen dute, Europako ekonomia nagusietan gertatu zen bezala. 1995etik 2019ra Euskal ekonomia %2 inguruko tasan hazi zen, batez beste. Europako ekonomietarako aipatu diren egiturazko arrazoi berberak direla eta, euskal ekonomiak hazkunde erritmo horri jarraitu ezin izana litekeena zen: 2019an, hazkundea %2,3ra moteldu zen, eta agregatua bere balio potentzialaren gainetik zegoen. Pandemia inflexio puntua izan zen BPG potentzialari dagokionez, eta modu iraunkorrean murriztu zen, aurreko joera berreskuratu gabe.

Euskadiko BPG erreala, BPG potentziala eta pandemia aurreko joera
64. irudia



Iturria: NDF eta Ekonomia Zuzendaritzak egina Eluse ereduarekin BPG potentzialerako EUCAM aurreikuspen eta metodologiarako.

Oharra: 2019ko maila = 100. BPG erreala eta aurreikuspena beltzean, BPG potentziala gorrian eta joera lerro eten urdinean. 1995-2019 urteen artean eredu log-linealarekin zenbatetsitako joera. Gap joera-mailarekiko.

2019tik joera lineal bat proiektatzeko ariketak erakusten du pandemiatik suspertzeko erritmoa ez dela nahikoa izan aurreko joera berreskuratzeko; izan ere, 2024an, joera hori %3,8 txikiagoa dela

estima daiteke, eta aurretik zegoen hazkunde joera urtean %1,5 ingurukoa izango balitz soilik lortuko litzateke 2030ean BPG maila horretara iristea, epe ertainerako egindako aurreikuspenen arabera. Azken batean, 2024an eta 2025ean, euskal ekonomia egoera zikliko ia neutroan kokatzen da: zerbitzuen sektorean fase zikliko hedakorra dago, eta industriaren kasuan, kontrako zentzuan doana, baina ez dago bere BPG potentzialaren azpiko egoera batean.

Euskadirako 2025-2030erako aurreikuspenek aurreko hamarkadetakoa baino hazkunde ibilbide apalagoa iragartzen dute, Europako testuinguruarekin bat, nahiz eta jarduera eta enpleguari dagokien ez abantaila txiki bat mantentzen den oraindik. BPG erreala %1,7ko urteko batez besteko erritmoan haziko da, iraganeko hedapen edo suspertze faseetan izandakoa baino askoz era apalagoa, eta hori nazioarteko testuinguru dinamismo txikiagoaren eta barne faktoreen ondorio da. Azken horien artean, guztien gaintetik, biztanleriaren zahartzea nabarmentzen da, nahiz eta haren ondorioak hurrengo hamarkadan egingo diren nabarmenago. Dibidendu demografikoaren bukaerarekin, eta migrazio saldo positibo baten bidez lortu daitekeena izan ezik, per capita errentak urteko % 1,3ko batez besteko hazkunde izango du, Europako ekonomia askok baino handiagoa, baina aurreko zikloetan baino aurrerapen motelagoarekin.

Taula makroekonomikoa
31. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	95-04	05-14	15-24	2025	2026	2027	2028	2029	2030
BPG erreala	4,0	0,8	2,1	2,1	1,7	1,6	1,6	1,6	1,6
Per capita BPG erreala	4,0	0,4	1,9	1,8	1,4	1,3	1,3	1,3	1,3
BPG nominala	7,0	2,1	3,8	4,5	3,9	3,9	3,4	3,3	3,3
Itxurazko lanaren ekoizpena	0,8	1,3	0,8	0,6	0,6	0,6	0,6	0,6	0,5
KEG (BPGaren %)	27,4	27,9	23,5	24,0	23,8	23,8	23,8	23,7	23,7
Enplegua	3,1	-0,5	1,3	1,4	1,1	0,9	1,0	1,1	1,1
Langabezia tasa (%)	15,0	8,8	10,6	6,8	6,6	6,5	6,3	5,9	5,1
Okupazio tasa (%/16-64)	56,7	64,8	68,2	72,8	73,5	73,9	74,4	75,1	76,1
Jarduera tasa (%/>16)	53,5	55,3	56,2	56,1	56,2	56,2	56,2	56,1	55,9

Iturria: Eustat eta Ekonomia Zuzendaritza Eluse ereduaren bidez.

Lanaren produktibitateari dagokionez, urteko batez besteko % 0,6ko hazkundera aurreikusten da, 1995 eta 2024 artean erregistratutakoa baino txikiagoa, demografia konposizioaren dinamismoaren murrizketak eta zerbitzuen sektorearen pisuaren areagotzeak industria kapital-intentsiboagoaren kaltetan islatzen direnez. Inbertsioa, BPGren portzentajea neurtua, BPGren %23,7 inguruan egonkortuko da aldiaren amaieran, Europako batez bestekoarekin bat datozen mailetan mantenduz, baina aurreko hamarkadetan eraikuntzaren sektorearen gainbeheraren ondorioz lortutako mailatik urrun. Hala ere, ekipamendu ondasunetan egindako inbertsioa BPGren %9,5etik gora kokatuko da aurreikuspenaren horizontean, azken bi hamarkadetan Euskadiko ekonomiak lortu ez duen maila da, teknologia modernizaziorako beharrezkoak diren inbertsio egokiak bermatzeko.


Lan merkatuak hobekuntza adierazgarriak izaten jarraituko du, ekonomia garatuen estandarrera pixkanaka hurbilduz hainbat adierazletan. Enpleguaren batez besteko urteko hazkundera %1,0koa izango da, eta langabezia tasak pixkanaka murrizten jarraituko du, 2025ean %6,8 izatetik 2030ean %5,1 izatera igaroko baita. Langabezia tasaren murrizketa hori ez da faktore ziklikoek bultzatuta izango, ezta prezioetan inflazio efektua eraginez ere, higiezinaren burbuilaren garaian gertatu zen bezala, zikloari egokituta egingo du, lan merkatuko erakundearen egitura hobetuaren eta kualifikazio handiagoko eta ekonomia moderno baten beharretara hobeto egokitutako lan indarraren ondorioz.

Baliteke sektore batzuetan langile eskasiak sortutako frikzioak pixkanaka agertzea eta aurreikusitako epeaz harago larriagotzea. Nabarmentzekoa da langabezia tasaren jaitsiera hori pandemiaren ondorengo urteetan ere gertatzen ari dela, nahiz eta produkzio jarduerari dagokionez aurrerapen apalagoak izan, euskal ekonomiaren zikloan distortsiorik eragin gabe, soldata-inflazioa bizkortzen ez duen langabezia tasaren (NAWRU, ingelesezko sigletan) estimazioak erakusten duen bezala, 2015ean hasitako beherakadarekin jarraitzen baitu.

16 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren okupazio tasa %76,1era iritsiko da aurreikuspenaren amaieran, eta jarduera tasa, berriz, enpleguak gora egin arren, egonkor samar mantenduko da, biztanleriaren zahartzearen eta zenbait kolektibotako lan-partaidetzaren igoeraren arteko oreka islatuz. Horrela, enplegu sorkuntzan eta langabezia tasaren murrizketan lortutako aurrerapen nabarmenen aurrean ere, Euskadiko biztanleriaren belaunaldi-egiturak ez du jarduera tasan aurrerapauso handirik bultzatuko. Hori dela eta, aurreikuspenaren horizontean azken urteko jarduera tasan aurreikusitako jaitsierak, nahiz eta bi hamarrenekoa baino ez izan, datorren hamarkadan euskal ekonomiak aurre egin beharreko erronka nagusiak iragartzen ditu.

Azken batean, Euskadik Europa osoko eta gainerako ekonomia aurreratuenekin partekatzen ditu trantsizio demografikoak ekarritako erronkak, baita teknologia aldaketako eta energia trantsizioa testuinguruan produktibitatea areagotzeko beharra ere egitura-mailan. Biztanleriaren zahartzeari lotutako finantza publikoen presioak eta esportazio-ardatzeko ekonomiaren lehiakortasun globalak baldintzatuko dituzte epe ertaineko eta luzeko hazkunde potentzialaren aurreikuspenak; orretan funtsezkoa izango da ehun produktiboaren eta lan merkatuaren egokitzeko gaitasuna erronka berri hauei aurre egiteko.

Langabezia tasa eta NAWRU
65. irudia



Iturria: Eustat eta Ekonomia Zuzendaritzak egina, Eluse ereduarekin aurreikuspenerako (lerro etena) eta EUCAM ereduarekin NAWRUko (gorriz).